



**EUSKADIko
SEGURTASUN
PUBLIKOAREN
EGOERARI
BURUZKO**

2024ko
TXOSTENA

AURKIBIDEA

1. ERTZAINZA

2. SEGURTASUNAREN KOORDINAZIOA

3. TRAFIKOA

4. LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIA

5. JOKO ETA IKUSKIZUNAK

6. POLIZIA ETA LARRIALDIETEKO EUSKAL AKADEMIA

7. CYBERTZAINZA

8. ARAUBIDE JURIDIKOAREN, ZERBITZUEN ETA HAUTESKUNDE PROZESUAK

9. TELEKOMUNIKAZIOAK ETA SISTEMA INFORMATIKOAK KUDEAKETA

10. ERANSKINAK

1. ERTZAINZA

1. SARRERA
2. DISPOSITIBOAK KIROL-EKITALDIETAN
3. ESTRATEGIA
4. ZERBITZUAK
5. PERTSONAK
6. BERRIKUNTZA
7. GIZARTEA
8. ESTADISTIKAK
9. ONDORIOAK

1. SARRERA

2024an, Eusko Jaurlaritzaren XIII. legegintzaldia hasi da. Saila eta Segurtasun Sailburuordetza berregituratu dira eta haien ordezkari nagusiak ordezkatu dira.

Aurten, Ertzaintzaren polizia integralaren izaera indartu da. Uztailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordeak Ertzaintzaren segurtasun-lanak portuetara eta aireportuetara ere zabaltzea erabaki zuen, 2021ean Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) espetxeen transferentziazatik eratorritakoak bere gain hartu zituenean bezala.

Segurtasunak planteatzen dituen erronka berrietara egokitzeko eta modernizatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, ikuspegi integral batetik, beste erakunde batzuekin lankidetzaz hitzarmenak sinatuz eta, oro har, euskal herritarrekin komunikazio-kanalak ezarriz, haien kezkak ezagutzeko eta Ertzaintzak haien babesarekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa bermatuz.

Ertzaintzaren bilakaera-prozesua eta EAEko gizartearena batera doaz. Gizarteak eskubideen aitortzan eta sentsibiltateen pertzepzioan aurrera egiten du, eta, aldi berean, haiek zalantzan jartzen direla ere ikusten du. Gainera, EAEko herritarrek mehatxu berriei aurre egin behar izaten diete, eta horietako asko ziberkriminalitateari daude lotuta.

Ertzaintzak gizarteak eraikitakoa zaintzen du, eta segurtasunari ikuspegi zabaletatik heltzen dio, esaterako, genero-ikuspegitik edo gorrotozko kriminalitatearenetik, baina, era berean, ahaleginak egiten ditu trebetasun eta gaitasun profesionala lortzeko, kriminalitateari aurre egiteko tresna berrien erabilera eta berrikuntza dituela lagun.

Polizia integral gisa, EAEn 2024an egin diren ekitaldi handien segurtasuna bermatzen jarraitu du Ertzaintzak, exigentzia eta zailtasun handiko erronkak izan diren ezohiko segurtasun-operatiboetan.

Beste urtebetez Ertzaintza EAEko herritarrek hobekien baloratutako erakundeetako bat izatea lortzea aparteko pizgarria da, etengabeko hobekuntzaren eta gizartearekiko konpromisoa indartzearen alde egiten jarraitzeko.



2. DISPOSITIBOAK KIROL-EKITALDIETAN

Ertzaintzak ezohiko segurtasun-dispositiboak jarri ditu martxan 2024an EAEn izandako kirol-ekitaldiak direla eta. Kirol-ekitaldi handi horietako bi izan ziren, 2024ko Emakumezkoen Champions League-ko Finala, Bilbon, edo Arabako lurretatik igaro zen Espainiako Itzuliaren 18. Etapa.

Apirilaren 11n, kirol hutsetik harago zihoan ekitaldi bat egin zen, Ertzaintzari berebiziko segurtasun-erronka bat ekarri ziona. Athletic Clubeko zaleek gizonezkoen futbol-taldeak Errege Kopa irabazi izana ospatu zuten, txapelketa hori azkenekoz irabazi zuenetik 40 urteren ondoren.

1984an bezala, gabarra batek Nerbioi itsasadarrean gora egin zuen, Abratik Bilboko Udaletxeraino. Ibilbide osoan, itsasadarrearen bi aldeetan, 1.000.000 zale bildu ziren.

Plan Zuzentzailearekin bat etorritik, ekitaldiaren segurtasun publikoak esan nahi du Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, batez ere Ertzaintza, eta Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza (DAEM) koordinatuko direla.

Operazioak bi fase izan zituen, ur-lamina (Itsasadarra) eta lehorreko eremua, eta azken horrek bi eszenatoki izan zituen: alkateak eta agintariek Bilboko Udalean harrera egitea eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundira joatea.

Era berean, kontingentzia-puntu batzuk planifikatu ziren, ibilgailu asistentzialek sartu-irtenetarako erabiltzeko, baita beste puntu kritiko batzuk ere, haien ezaugarri orografikoengatik, egiturazkoengatik edo haietan metatutako pertsona edo ibilgailu kopuruagatik segurtasun-arriskua sor zezaketenak.

Nerbioi itsasadarreko operazioan, beren mugapean ibilgu zati horretako udalerriak barne hartzen dituzten ertzain-etxe guztiek hartu zuten parte: Muskiz, Sestao, Getxo, Erandio eta Bilbo. Ertzain-etxeetako agenteez gain, Ertzaintzaren gainerako unitate eta zerbitzu espezializatuak ere jardun zuten (BMU, ZEU, LIU, BBT, EU, BTLU, IBN, IBLB, etab.).

Guztira, 400 ertzain baino gehiagok eta udalerri ezberdinetako 172 udaltzainek hartu zuten parte ekitaldi jendetsu horretan: horrek agerian uzten du Euskal Poliziaren plangintza- eta koordinazio-lan bikaina.

Gabarrako segurtasun-dispositiboan, gainera, milatik gora profesional aritu ziren lanean, besteak beste, LAEMZko baliabideak (Osakidetza, Suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA, etab.), eta hainbat entitate, organismo eta erakunde aritu ziren lankidetzan, hala nola Athletic Cluba bera, Bilboko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia.



Inplikaturako profesional taldeen eta erakunde guztien ahaleginak zirela medio, eta omenaldira bertaraturako zaleen portaera eredugarriarengatik, jai- eta ospakizun-giroari eutsirik, arrakastaz gainditu ahal izan ziren halako ekitaldi jendetsuek ekarri ohi dituzten segurtasun-arriskuak.

3. ESTRATEGIA

Ertzaintzaren helburua da kohesio handiagoa egotea zerbitzu polizialen eta eskubide berberak dituzten gizon-emakumez osaturako gizarte ireki, anitz eta elebidun honen artean. Horretarako, EAEko Poliziari aplikatu dakiokeen ordenamenduaren barruan, bere egiten du Europako Kontseiluak Poliziaren Europako Etika Kodeari buruz emandako Gomendioa. Ertzaintzaren Estrategiako elementuak xede horretara doitu dira, Ertzaintzari bere eredua erabat garatzen laguntzeko.

MISIOA

Ertzaintza EAEko polizia integrala da. Zerbitzatzen duen gizartearekin konprometituta dago, eta bakea, bizikidetzeta, eta pertsonen segurtasuna eta ongizatea bultzatzen ditu.

IKUSPEGIA

Ertzaintzak aintzatespen handia izan nahi du, gardentasuna, etika publikoa eta giza eskubideekiko errespetua sustatzen dituela eta.

Bere ereduan oinarrituta, eguneroko jarduera hobetzeko lanean jarraituko du, eta lidergoa sendotuko du, hura osatzen dutenen hazkunde indibiduala errazteko, autonomia-maila handitzeko eta eguneroko parte-hartzea sustatzeko.

Gizartearekin estuki lan egiten jarraituko du bere zerbitzuak egokiak eta efizienteak izan daitezen, hala segurtasunean nola asistentzian, eta zerbitzu horiek hurbiltasunez eman daitezela sustatzen ere jarraituko du.

BALIOAK

HURBILTASUNA

Pertsona guztiekiko jarrera irekia eta hurbilekoa dugu.

KONFIANTZA

Zuzentasunez eta gardentasunez jarduten dugu, eta zintzo komunikatzen gara.

KONPROMISOA

Arazoak konpontzen laguntzen duten erantzun eraginkorrak emateko inplikatzeko gara.

TALDEA

Kohesionatuta lan egiten dugu, lidergo aktibo bati jarraituz.

BILAKAERA

Geure burua etengabe ebaluatzen dugu hobetzeko.

Herritarren balorazioa

Ertzaintzak, EAEko polizia integralak, EAEko herritarren segurtasunaren bermatzaile gisa dihardu, delitu-prebentzioko eredu baten arabera. Polizia-eredu horretan, baliabideen % 80 prebentzio-lanetara bideratzen da, eta % 20 delituaren jazarpenera. Poliziak ikerketa profesionala sustatzen du, eta inteligentzia da adierazitako eredu gauzatzeko motorra. Atzerriko polizia gehienek jarraitzen diote eredu horri, eta horretan erreferentea da Ertzaintza; izan ere, etengabeko berrikuntza sustatzen du prebentzio-zereginetan. Horren adibide da patruilatze fokalizatu prediktiboa ezartzea.

4. ZERBITZUAK

4.1 Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako babes

Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako borrokan, ahalegin etengabea eta handia egiten du Ertzaintzak, estrategikotzat jotzen baitira delitu horiek. Hala eta guztiz ere, egiturazko indarkeria horrek oraindik gogor astintzen du gizartea eta 2024an, bi feminizidio gertatu dira EAEn.

Ertzaintza emakumeei indarkeria matxistaren aurkako babes integrala emateko plan estrategiko bat egiten hasi da, funtsean, EAEko emakumeen segurtasuna eta ongizate integrala bermatzeko. Anbizio handiko plan horrek emakumearen aurkako indarkeriarekin zerikusia duten alderdi guztiak barnean hartu nahi ditu, Istanbulgo Hitzarmenean zehaztuta daudenak, hain zuzen.

2024an, Indarkeria Matxistaren Erakundearteko Arretarako eta Koordinaziorako Tokiko Protokoloak berrikusi dira. Gipuzkoan, Azkoitia, Legorreta, Orio, Tolosa, Zaldibia eta Zarautz udalerrietakoak gainbegiratu dira, eta Bizkaian Zornotza, Derio, Galdakao eta Ugao-Miraballes udalerrietakoak.

Eta, azaroan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Emakumeen eta Etxekoen Babesa-EBA sistema eta Barne Ministerioaren VIOGEN-2 sistema interkonektatu dira. Programa horiek ahalbidetzen dute emakumeen aurkako indarkeria-espedienteak modu integralean kudeatzea, arriskuaren ebaluazioak homologatzea, babes egokia ezartzea eta babes-agindu judizialak kudeatzea; eta horrek guztiak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak babesten laguntzen du eta emakume horiei errazten die Estatuaren barruan modu seguruan mugitu ahal izatea.



Bestalde, kasu hilgarrien edo feminizidioen ebaluazioari eta jarraipenari lotutako jarduerak aurrera jarraitzen du, eta horretarako, Barne Arazoetako Ministerioaren Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak deitutako erakundearteko bileretara joaten da Ertzaintza.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistari erantzun koordinatua emateko, zenbait erakunde publikorekin lankidetzan jarraitzen du Ertzaintzak, hala nola Emakunderekin, harekin batera parte hartzen baitu EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren jarraipena egiteko lantaldean. EHUren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrarekin ere elkarlanean dabil, Ertzaintzak bildutako datuetan oinarrituta EAEn indarkeria matxistari buruzko txosten bat diseinatzeko ikerketa-proiektu batean.

4.2 Interes-taldeekiko harremanak sendotzea

Ertzaintzak segurtasun publikoa bermatzeko daukan estrategian, funtsezkoa da interes-taldeen ekarpena sustatzea, alegia, komunitatearen eguneroko jardueran eragina izan dezaketen giza kolektiboena.

Ertzaintzan, *hurbiltzaileak* lotura-lana egiten du ertzain-etxe baten mugapean dauden kolektibo eta elkarteekin. Haren lana da zuzenean ezagutzea herritarren segurtasun-arazoak zein diren, eta, edozein urraketa gertatzen denean, bizikidetza baketsua mantentzen lagunduko duten irtenbide arin eta eraginkorrak eskaintzea.

Harremana arina izan dadin eta ezarritako helburuak lortzeko, agente hurbil horiek oso maiz egin behar izaten dituzte bilerak, eta interes-taldeen beharren edo itxaropenen arabera finkatu eta egokitu behar dira elkarrekintza horiek.

Bisitak EAEko meskitetara

Interes-taldeekin egiten diren bileren artean, EAEko meskitetara egiten diren bisitak nabarmentzen dira. Ertzaintzak islamismo erradikalaren aurka daukan Plan Estrategikoan lehentasun handieneko ardatz bat da prebentzioa, eta esparru horretan garatzen dira bilerak. Komunitate islamikoei elkarriketa-kanal bat ematea da helburua, edozer gertakariaren berri eman ahal izan dezaten: islamofobia-gertakariak, diskriminazioak edo beste edozein delitu.

Interes-taldeekiko bilerak 2024an

3.330

Aurrez aurre 1.114

Bertaratu gabe 2.216

EAEko meskitetan izandako bilerak, 2024an

271

Aurrez aurre 136

Bertaratu gabe 135

4.3 Gorroto-gertakariak

Gorroto-delituen jazarpena lehentasun bat da Ertzaintzarentzat, haren identitate korporatiboaren parte baita pertsona guztientzat oinarrizko eskubideak eta askatasunak bermatzea eta defendatzea, berdintasun-baldintzetan.

2024an, publikoki indarkeria edo gorrotoa bultzatzeko asmoa zuten jokabideei jazarpen jarraitu zen; horrez gain, gehiago ikertu ziren arau-hauste arrazista, xenofobo nahiz diskriminatzaileak, bai eta, salatu ez arren, intolerantziarekin eta haren adierazpideekin lotuta egon litezkeen jokabide guztiak ere.


Kriminalitate hori prebenitzeko eta hartatik modu eraginkorrean babesteko neurrien artean, jarraipena egiten zaie indarkeria hori gertatzen den esparru edo testuinguruei eta, gorroto-gertakariaren edo -delituaren polarizazio-adierazleak identifikatuz gero, azterlan estatistiko bat egiten da. Horretan jasotzen dira zenbat atestatu eta arau-hauste bideratu dituen eta zenbat gertakari hauteman dituen Ertzaintzak gorroto-diskurtsoaren esparruan. Parametro horiei guztiei erreparatuta, poliziak zenbateraino argitu zituen jakin daiteke.

Kriminalitate horri jazaritzeko hartu duen konpromisoaren osagarri, beste erakunde edo organismo batzuekin lankidetzan dabil Ertzaintza. Maiatzean, Ertzaintzaren zuzendariak Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak antolatutako mintegi batean parte hartu zuen: «Gorroto-delituei buruzko mintegia: prozesu- eta froga-arazoak». Halaber, katedra horrekin elkarlanean, Euskadiko gorroto-delituen 2023ko urteko txostena atera zuen argitara 2024ko ekainean.

Lankidetzaz-esparru horretan, irailean, «Gorroto- eta diskriminazio-delituen inguruko jardunbide egokiei, prestakuntzari eta kontzientziazioari buruzko jardunaldia» egin zen, non zeharkako ikuspegi batetik, diskriminazioa eta gorroto-delituak jorratu zituzten Ertzaintzak, aipatutako Giza Eskubideen Katedraren zuzendariak, gorroto- eta diskriminazio-delituen aurkako Espainiako fiskal nagusiak, Barakaldoko 1. Instrukzio Epaitegiko magistratuak eta Biltzen – Integratzaileak eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuak.

GORROTO-GERTAKARIAK EAE-N 2024. URTEAN*

* Informazioa ehunekotan



*Emaitzak dituzten esparruak jaso dira

GORROTO-DELITUEN TAULA

ESPARRUA- TESTUINGURUA	Gertakarien kopurua ezagututako delituetan	Gertakarien kopurua argitutako delituetan	Ezagututako gertakarien kopurua gorro- to-diskurtsoan	Argitutako gertakarien kopurua, gorro- to-diskurtsoan	Arau-hauste administratiboen kopurua	Argitutako arau-hauste administratiboen kopurua	Ezagututako gertakariak guztira	ARGITU- TAKO GER- TAKARIAK GUZTIRA
Arrazakeria-xenofobia	146	122	3	0	1	1	150	123
Orientazio edo identitate sexuala	54	40	2	1	0	0	56	41
Ideologia edo orientazio ideologikoa	16	8	2	0	0	0	18	8
Generoa	9	9	0	0	0	0	9	9
Sinesmen edo praktika erlijiosoak	6	1	1	0	0	0	7	1
Antisemitismoa	2	1	0	0	0	0	2	1
Desgaitasuna	2	2	0	0	0	0	2	2
Beste batzuk	1	0	0	0	0	0	1	0
GUZTIRA	236	183	8	1	1	1	245	185

4.4 Ziberkriminalitatea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ziberkriminalitatearen Plan Estrategikoa ziberkriminalitateak azken urteotan mundu osoan izan duen gorakadari erantzun integral eta koordinatua emateko diseinatu da. Plan horren helburua, ziberkriminalitateak planteatzen dituen erronkei aurre egitea ez ezik, erantzuteko gaitasuna indartzea eta EAEko biztanle, enpresa eta erakundeei zerbitzu hobe ematea ere bada.

Horretarako, Ziberkriminalitatearen Plan Estrategikoak zenbait erronka eta ardatz estrategiko ezarri nahi ditu, ziberkrimenaren aurkako borrokan ikuspegi integral eta eraginkorra eskaintzeko. Besteak beste, prozesuaren etapa guztiak barne hartzen dituen zerbitzua ematea bermatuko du; hasi prebentzio proaktibotik, eta jazotako gertakariak ikertzen diren arte. Gainera, ziberdelituei arin eta eraginkortasunez erantzuteko gaitasuna garatzen da, erabilgarri dauden tresnak eta baliabideak mehatxuen bilakaerarekin bat datozela ziurtatuz.

2024an, Planean ezarritako helburuetako batzuk lortu dira. Esaterako, kriptoaaktiboak erabiliz egindako ziberdelituak ikertzeko programa espezifikoak eskuratu dira. Horretarako, ikertzeko erabiltzen diren ekipoen inguruko erabilera- eta prestakuntza-plan integral bat garatu da.

Era berean, etengabeko prestakuntzako planak egin dira, eta ziberdelituak ikertzen dituzten tokiko eta lurraldeko mailetak eta maila zentraletako agenteei prestakuntza eman zaie. Horri esker, kriminalitate horren aurrean ikertzeko gaitasuna indartu da.

Delitu horiek prebenitzeko lanean jarraitzen da, enpresei nahiz, oro har, herritarrei zuzendutako ekintzen bitartez. Hainbat prentsa-ohar prestatu komunikabideetan argitaratu dira eta entitate publiko nahiz pribatuentzako prestakuntza-ekintzak ere eman dira, ziberdelinkuentziaren aurreko prebentzio-gaitasuna hobetzeko.

Azkenik, errealitate kriminologiko horren aurrean eguneratzeko estrategia bat planifikatzen eta garatzen ari da Ertzaintza, ziberinteligentzia sustatuz. Era berean, 2025ean Zibersegurtasuna Koordinatzeko Ertzaintzaren Burutza bat sortzea proiektatu da eta prozesua bizkortzen ari da. Burutza horrek Ertzaintzaren Burutzaren mendean jardungo du zuzenean, Cyberzaintza - Zibersegurtasuneko Euskal Agentziarekin koordinatuta.

4.5 Aeroflota tripulatua modernizatzea

Ertzaintzaren aireontzi tripulatuen flota helikoptero bat erositako modernizatu da 2024an. Ekainean, AIRBUS multinazional aeronautikoak fabrikatutako H135 T3H/P3H modeloko helikoptero berria jaso zen, eta estreinako hegaldia egin zen.

Aireontziaren kostua 9 milioi eurokoa izan da. Punta-puntako teknologia eta beteko dituen misioetarako tresneria egokia dauka: polizia-zerbitzuak (kamerarekin edo gabe) eta SAR (Search And Rescue, bilaketa eta erreskatea); eta gainera, bere konfigurazioaren barruan aukera bat dauka mendiko edo uretako aire bidezko erreskateak egiteko.



Berriztatze horri esker, Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateak istripuetan, hondamendietan edo zoritxar publikoetan efizientzia handiagoz esku har dezake, eta Ertzaintzaren beste unitate edo zerbitzu batzuei prebentzio-, ikerketa- nahiz esku-hartze lanetan lagundu ahal die.

Zenbait aurrekontu-partida planifikatu dira 2025aren amaierarako bigarren helikoptero baten fabrikaziorako eta entregarako; horrekin, berriztatuta legoke aireontzi tripulatuen flota.

4.6 Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz

Ertzaintzaren «Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz» programak EAEko gizartea segurtasun publikoaren alderdiei buruz sentsibilizatzeko zabalkunde-jarduera bat da. Prebentzio aktibotik eta hurbiletik, ertzainek herritarrekin lantzen dituzte haiei kezka eta segurtasun-falta handiena sorrazten dieten delitu-fenomenoak.

Prestakuntza hori gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta beste erakunde batzuekin akordioak egin dira, baina zaurgarritasun handiena duten kolektiboen eskariz ere egiten dira lankidetzak.

Ziberkriminalitatearen prebentzioari eta zabalkunde-jarduerakegiten dituzten agenteak trebatzeari dagokionez, Ertzaintzak eta Microsoft konpainia informatiko multinazionalak jarduera-protokolo orokor bat sinatu dute «Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz» programaren lantaldea zibersegurtasunaren arloan trebatzeko. Helburua da, behin profesionalak trebatuta daudenean, EAEko ikastetxeetako ikasleak eta, oro har, gazteak modu eraginkorragoan kontzientziaztea, ingurune digitalean beren burua babes dezaten.

Gazteriarekiko konpromiso sendo horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren aitortza jaso du; izan ere, Ertzaintzak haurren eta nerabeen eskubideen alde egiten duen lan bikaina eskertzeko, Bizkaia Kirol Sarien ekitaldira gonbidatu zuen Ertzaintza, sarietako bat eman zezan.

Programaren barruan egindako jardueren 2024ko balantzeak, bestalde, bai prestakuntzen kopurua bai prestakuntzara datorren jende kopurua hazi dela erakusten du. Herritarrek oso ondo hartu eta onartu dutenez programa, ahalegin handiagoa egin da Ertzaintzarentzat atsegingarria den zerbitzu hori osatu ahal izateko.



PREBENTZIOA KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ LANDUZ - ZABALKUNDE-JARDUERA 2024an

Egindako jarduerak	943
Akordioak Hezkuntzarekin	840
Akordioa ONCEekin	21
Akordioa GURUTZE GORRIekin	1
Kolektiboen eskariz (adinekoak, dibertsitate funtzionalak...)	81
Trebatu edo bertaratutakoak, guztira	30.718
Akordioak Hezkuntzarekin	28.408
Akordioa ONCEekin	132
Akordioa GURUTZE GORRIekin	27
Kolektiboen eskariz (adinekoak, dibertsitate funtzionalak...)	2.151

4.7 Jarduera asistentzialak

Eguneroko lanean, prebentzio- edo erreakzio-lanetan agertzen diren gertakarien operatiben aldean bestelako ikuspegi bat eskatzen duten egoerak topatzen dituzte ertzainek. Askotariko larrialdietan edo egoera zaurgarrietan dauden pertsonak babesteko eta laguntzeko jarduerak asistentzialak dira.

Lan asistentziala, batez ere, bide-segurtasunaren eta larrialdien eremuan egiten da. Ertzaintzak funtsezko zeregina betetzen du arrisku-egoera horiei erantzuteko orduan.

Lan asistentzial horiek, besteak beste, hauek dira: biktimei berehala arreta ematea, lehen sorospenak barne, zerbitzu sanitarioak iritsi arte, trafikoa arautzea istripuak saihesteko, eta gorabehera kudeatzea segurtasuna berrezartzeko.

Gainera, aktiboki parte hartzen da arrisku-egoeretan dauden pertsonak erreskatatzen eta bilatzen; batzuetan, Ertzaintzaren unitate espezializatuak aktibatu behar izaten dira horretarako. Horren barruan sartzen dira hiriguneetan edo landaguneetan desagertutako pertsonak aurkitzea eta sute, luizi edo hondamendi naturaletan esku hartu eta salbamendua egitea, larrialdi-zerbitzuekin elkarlanean.

Jarduerak asistentzial horien guztien balioari esker, herritarrengan konfiantza handiagoa pizten da, polizia gertukoa dutela eta babesten dituela sentitzen baitute. Horrela, haien segurtasun-pertzepzioa areagotzen da, eta, gainera, Ertzaintzaren eta harekin elkarlanean aritu behar duten beste zerbitzu batzuen arteko kohesioa indartzen.

JARDUERA ASISTENTZIALAK 2024. URTEAN

Istripuak	%48
Erreskatea/bilaketa	%35
Bide-segurtasuna	%17

Asistentzia mota	Kop.
Pertsonak	61.452
Askotarikoak	24.381
Sutea	21.229
Trafikoa	20.361
Animaliak	13.043
Ingurumena	3.009
Hiria	2.857
Mendia	344
Ura	311
Trena	29
Presak	7
Hegazkinak	5
Industria	2



4.8 Ingurumena babestea: landa-patruilaren zerbitzua

Ertzaintzarentzat konpromiso ildo bat eta lehentasun bat dira EAEko landaguneko biztanleen segurtasuna eta ongizatea eta ondare natural eta historiko preziatua babestea, EAEko gizartearen aberastasun- eta harrotasun-iturria baita. Horretarako, estrategia bat ezarri da, zeinean erreferenteak landa-patruila eta, eremu espezializatuago batetik, Ertzaintzaren Ingurumen Atal Nagusia diren.

Landa Patruilaren lanaren ardatza gertuko zerbitzu baten eskaintzea da, landa-ingurunean barreiatutako komunitateen behar berezietara egokitua. Ezarri zenetik, landa-eremuetako biztanleekin lankidetzan estuan dihardu, baserrietara eta etxebizitzan isolatuetara errutinazko bisitak eginez. Elkarrekintza horien helburua kezkei erantzutea eta segurtasuna ematea ez ezik, Ertzaintzaren eta baserriarren arteko konfiantza indartzea ere bada.

Landa-patruilen lana ez da landa-ingurune baten segurtasuna bermatzera soilik mugatzen; aitzitik, funtsezko zeregina betetzen du Ertzaintzaren ingurumen-konpromisoan. Ildo horretan, agenteek gune babestuak zaintzeko eta kontrolatzeko lanak egiten dituzte, ingurumen-delituak prebenitzen, lege kanpoko isurketak ikuskatzen, eta espezieen lege kanpoko trafikoa eta lege kanpoko mozketari aurre egiten.

Ikuspegi teknikoago eta espezializatuago batetik, Ertzaintzaren Ingurumen Atal Nagusiak erreferente gisa funtzionatzen du ingurumen-delituaren ikerketan, gainerako polizia-baliabideei laguntza eta prestakuntza eskainiz. Delitu horiei jantzeko, Ingurumen Fiskaltzarekin eta Toxikologia eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalarekin lankidetzan estuan dihardu.

Era berean, beste organismo batzuekiko koordinazioa indartu du Ertzaintzak: adibidez, Gipuzkoako eta Bizkaiko foru-aldundietako basozain eta izadizain taldeekin, landa-eremuetako biztanleei zerbitzu eraginkorragoa eta egokiagoa eskaintzeko. Udalekin, Uraren Euskal Agentziarekin eta beste entitate batzuekin ere lankidetzan aktiboan aritzen da ingurumenaren eta ondarearen babes-lana indartzeko.

Era berean, baso-suteen aurkako borrokaren eta euskal kultura-ondarearen espoliazio arkeologikoaren jazarpenaren abangoardian dago Ertzaintza, eta emaitza garrantzitsuak lortu ditu arduradunak identifikatu eta balio historiko handiko piezak berreskuratzeko orduan.

DELITUAK	2024. URTEA
Lurraldearen antolamendua	1
Ondare historikoaren aurkako kalteak	11
Baliabide naturalak eta ingurumena	28
Floraren eta faunaren aurkakoak	4
Animalien aurkakoak	85
Baso-suteak	6
GUZTIRA	135

Ingurumenaren aurkako kriminalitatearen balantzean, ikus daiteke atestatu gehiago bideratu direla 2023. urtean baino. «Animalien aurkako» ustezko delituen ondoriozko instrukzio kopuru handiagoari zor zaio gorakada hori ia osorik. Hazkunde horretan eragina izango zuen, beharbada, martxoaren 28ko 7/2023 Legea (Animalien eskubideak eta ongizatea babestekoa) indarrean jartzeak; izan ere, jokabide horiek zigorgarriak direlako kontzientziazio eta sentsibilizazio handiagoa sortu da herritarren artean.



4.9 ARMA ZURIEN KONTRAKO EKINTZA PLANA

Eusko Jaurlaritzak, 2023ko otsailean, Ertzaintzak segurtasunaren arloan diseinatutako prebentziozko ekintza-plan bat onartu zuen, arma zuriak eta objektu arriskutsuak erabiltzearen ondoriozko arau-hauste penalen gorakadak kezka piztu zuelako.

Euskal Poliziak, orduan, ondorio guztiekin, hainbat prebentzio-ekintza abiarazi zituen hiru lurraldeetan, kaleetan eta euskal herrietako aisialdi-inguruneetan arma horien presentzia murrizteko.

2024an, polizia-lanak areagotzearekin batera planak indarrean dirau, eta honela 1.882 arma zuri eta potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen 518 objektu zirkulaziotik kendu ahal izan dira, herritarren segurtasunerako mehatxu bat zirenak.

Gainera, guztira 1.430 salaketa administratibo instruitu zaizkie eramaileei, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaren arau-hausteengatik, zehapen ekonomiko batekin ebazten direnak. Ondorengo tauletan, salaketa administratibo horietan konfiskatutako arma zurien kopurua jasotzen da.

EAEko hiriburuetan konfiskatutako arma zuriak			
BILBAO	VITORIA-GASTEIZ	DONOSTIA	TOTAL
281	159	103	543

Lurralde historikoetan konfiskatutako arma zuriak			
BIZKAIA	ARABA	GIPUZKOA	TOTAL
683	200	464	1.347

Horrela, Ertzaintzak eta udaltzaingoek elkarrekin lagundu dute hiri-ingurune askoz seguruagoa sortzen.

5. PERTSONAK

5.1 Prestakuntza


2024an, hainbat prestakuntza-jarduera egin dira Ertzaintzako kideak kualifikatzeko: barne-sustapeneko, mailaz igotzeko, espezializatzeko, eguneratzeko eta perfektzionatzeko ikastaroak, prestakuntza-jardunaldiak nahiz euskararen hizkuntza-gaitasuna hobetzekoak.

IKASTAROAK	
Sartzekoa XXXII Promozioa	206 ikasle
Espezializazioa:	
Ikastaro 1 NRBQ-Lehergailuak Indargabetzeko Espezializazio-Ikastaroa	10 ikasle
2 Ikastaro Babes Pertsonalaren arloko Ikastaroa	36 ikasle
Ikastaro 1 Ikerketa Kriminaleko Ikastaroa	98 ikasle
2 Ikastaro Brigada Mugikorra	60 ikasle
Ikastaro 1 Bide Segurtasuna	16 ikasle
Eguneratzea eta Trebatzea	
69 Ikastaro	4515 ikasle
Karrera Profesionala	
12 Ikastaro	1144 ikasle
Jardunaldiak	
3 prestakuntza-jardunaldi	114 ikasle
Euskararen Hizkuntza-gaikuntza lan-ordutegian	
2. HE	179 ikasle
1. HE	87 ikasle

PRESTAKUNTZA

ERTZAINZAKO PRESTAKUNTZA-DATU GLOBALAK

Urtean zehar eman zaizkie



5.2 Aintzatespenak

Aurten ere, banan-banan gogoratu eta nabarmendu dira ETAk 1985etik 2001era bitartean hildako 15 ertzainak, ofizialki haien oroimenez ezarri diren omenaldi-ekitaldietan. Banakako tributu horiek ekaineko lehen igandean egin ziren, lehendakaria buru zela, urtero bezala 2024an ere egin den ekitaldi handiarekin. Ekitaldian, ertzain horien guztien izenak eta irudiak dituen bideo bat proiektatzen da haiek oroitzeko.

2024an, aintzatespen formal ugari jaso dituzte hala Ertzaintzak nola bere agenteek. Bereziki nabarmentzekoa da Ertzaintzaren Brigada Mugikorraren Unitatearen 40. urteurrena ospatzeko ekitaldi instituzionala. Diziiplina anitzeko unitate bat da, Ertzaintza osoari laguntza espezializatua ematen diona: besteak beste, ordena publikoan eta jendetzaren kontrolean, era guztietako erreskateetan, istripuetan eta biktimentzako lehen sorospenetan, hondamendietan eta zorigaitzetan.

Ertzaintzaren kondekorazioak eta ohorezko sariak arautzen dituen araudiaren esparruan, aurten-go urtea oparoa izan da, 68 lagunek jaso baitute bereizgarri ofizialen bat: polizia-merezimendua- ren bereizgarri zuria duten 14 domina eta 54 zorion-adierazpen formal banatu dira zerbitzuan gizaratearen onerako jarduteagatik edo ezaugarri nabarmengarriak agertzeagatik: eredugarritasuna, sakrifizioa, eraginkortasuna eta dedikazioa.

Gizarteko erakunde, elkarte eta partikular batzuek ere aintzat hartu dute Ertzaintzaren lana, eta, bitarteko ofizialen bidez, 62 aldiz jarri dira harremanetan Ertzaintzarekin erakunde gisa egiten duen lana eskertu eta aitortzeko, baita beste 100 aldiz ere, Ertzaintzako agenteei askotariko jarduera eta zerbitzuak betetzeagatik eskerrak emateko.

Kanpoan, EAEko erakunde batzuek eta Espainiako nahiz Europako segurtasun-indar eta -kide- goek ere aintzat hartu dute banako profesionalek egindako lana.

Kirol-arloko sariei dagokienez, 2024an “X. European Police & Fire Games” kirol-lehiaketan parte hartu zuen Ertzaintzak Bragan (Portugal), 1997an hasi zenetik egin duen moduan. Oraingo honetan, Ertzaintzaren ordezkariak guztira 18 kirol-diziplinatan 73 domina eskuratu zituen: 43 urrezkoak, 11 zilarrezkoak eta 19 brontzezkoak.



6. BERRIKUNTZA

Ertzaintzak, dauzkan baliabideak kudeatuz eta antolatuz, berrikuntza bultzatzen du, ezagutza berriak barnerratzeko eta irtenbideak sortzeko indartzeko eta, horrenbestez, polizia-zerbitzu eta prozesu berriak garatu edo egon daudenak hobetu ahal izateko.

Segurtasunaren eta mehatxu berrien erronkari efizientziaz erantzuteko, tresna egoki eta aurre-ratuak eskuratu behar dira. 2024an, teknologia berritzeko hainbat prozesu hasi edo garatu ditu Ertzaintzak, informatika- eta telekomunikazio-sistemak eguneratzearen.

6.1 Europako proiektuak

2024an, Europa Horizontea izeneko Europako ikerketa- eta berrikuntza-programaren hainbat proiektutan parte hartzen jarraitu du Ertzaintzak, eskubide osoko bazkide gisa.

Aligner, Appraise, Engaged, Impulse eta Trace proiektuak amaitutzat eman dira, eta Cyberspace

proiektua garatzen jarraitu da, segurtasun-agentziek, politikagintzako arduradunek eta sektore pribatuak ikuspegi zabalagoa izan dezaten ziberdelinkuentziak eta zibererasoek Europako esparruan duten irismenaren inguruan.

Aurten, bi proiektu berri jarri dira martxan. Lehenbizikoa Preserve programa da: legez kontrako jarduerak egiten dituzten online foro edo komunitateak identifikatzeko helburua dauka (gorroto-delituak, haur-pornografia, terrorismoa edo droga-trafikoa, besteak beste), adimen artifiziala eta Big Data erabiliz edukiak aztertzeko, arriskutsuak izan litezkeen erabiltzaileak aurkitzeko, eta erabiltzaile horiek poliziaren datu-baseetan eta Internet irekian agertzen diren benetako identitateekin erlazionatzeko.

Bigarren proiektua CBRN RAILWAY da. Haren helburua da trenbide-azpiegitura kritikoen operadoreak sentsibilizatzea eta tren-geltokietako NBKE-CBRN larrialdiei eraginkortasunez erantzuteko gaitasunak areagotzea, mehatxu mota horrekin lotutako segurtasun-planak hobetuz eta trenbideko langileak trebatuz.



6.2 Bideoa kudeatzeko plataforma integrala eta banakako kameren sistema

Ertzaintza bideokamera indibidualen sistema bat jartzen ari da martxan. Hari esker, polizia-jardueren ikus-entzunezko erregistroak grabatu ahal izango dira, bideozaintzaren arloan aplikatu beharreko araudiekin bat etorritz.

2024an, Bideogune plataforma garatu eta ezarri da. Bideogune polizia-informazioko sistemetan integratuta dago, hala egotea beharrezkoa da-eta poliziaren lana errazteko eta datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak betetzeko.

Halaber, Irun, Gasteiz, Sestao, Durango, Laudio eta Ondarroako ertzain-etxeetan bideokamera indibidualen sistema erabiltzen hasi dira, eta 2025eko lehen lauhilekoan sistema Herritarren Babeserako unitate guztietara hedatzea aurreikusten da.

Etengabeko hobekuntzari dagokionez, alderdi teknikoetan eta araudi-kontuetan esku-hartzeak egiten ari dira, eta horiek eragina dute herritarren jarreran/inpaktuan eta agenteengan, baita plataformaren funtzionamenduan eta prestazioetan ere.

7. GIZARTEA

Ertzaintzak erakundearen barnetik etika profesionala eta bere jardueren ikuskapena sustatzeko egindako lanagatik aitortua izan nahi du. Ertzaintzak gizartearekin duen konpromisoa, halaber, gardentasunaren arabera neurtuko da; bai eta euskararen erabileraren aldeko sustapenaren, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta, oro har, giza eskubideekiko errespetuaren arabera ere. Gizartearekin dituen harremanak, berriz, elkarlanaren bidez eta elkarren onerako aliantzen bidez bultzatzen dira, bakearen eta elkarbizitzaren arloan sustatzen direnak barne. Arlo horietan egiten dituen ahaleginak ezagutzera emateko, kanpo-komunikazioko plan bat bultzatzen du Ertzaintzak.

7.1 Euskararen erabilera-plana

2023. urtea mugarri bat izan zen Ertzaintzan Euskara Normalizatzeko plangintzan, Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Plana onartu baitzen 2023-2027 aldirako, EAEko administrazio publikoko gainerako erakundeen antzeko parametroetan.

Kolektiboa euskaldunagoa izatea bultzatzeko, Ertzaintzak plangintza-lanekin jarraitzen du 2024an. Horretarako, 096 Jarraibidea prestatu zuen, otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua (Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa) betetzean oinarrituta; izan ere, entitate publiko bakoitzak bere barne-araudian hizkuntza-erabilerari buruzko irizpide propioak onartu behar dituela zehazten du arau horrek.

Hizkuntza-irizpide horiek Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko III. Planaren bidez garatzen dira. Ertzaintzan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko jarraibide orokor batzuk dira, Ertzaintzaren hizkuntza-araudia ere finkatu nahi dutenak.

096 Jarraibidean araututako alderdietako batzuk

- Ertzaintzaren konpromisoa.
- Jarduketan balio juridikoa.
- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Administrazioaren betebeharrak.
- Hizkera ez-diskriminatzailea erabiltzea.
- Ertzaintzaren euskara-erabilera kudeatzea: kudeaketa-mailak, lidergoa eta Planaren zabalkundea.
- Euskara erabiltzeko irizpideak: Euskara izatea zerbitzu-hizkuntza herritarrekiko harremanetan eta kanpo-harremanetan, eta baita lan-hizkuntza ere.
- Euskara erabiltzea korporazioaren irudian eta komunikazioan.
- Euskarazko prestakuntza orokorra izatea, hizkuntza-gaikuntzari mesede egingo dion alderdi gisa

2024an Ertzaintzaren unitate jakin batzuetan egindako ekintzak

- Unitatearen diagnostikoa osatzea eta unitateburuekin euskararen erabilera areagotzeko ekintzak adostea.
- Unitatearen egoera linguistikora egokitzea.
- Hizkuntza-irizpideen berri ematea eta irizpide horiek bete daitezen sustatzea.
- Berbasarea sustatzea, hizkuntza-ohituretan eragiteko dinamika gisa.
- Euskararen gaitasunen eta harremanen mapak egitea.
- Euskara erabiltzeko guneak identifikatzea.
- Lan-harremanetan eta kanpo-harremanetan euskara erabiltzeko esperientziak bideratzea.
- Talde-bilerak (briefing) egitea, eta horietan euskara sustatzea.
- Unitateetara iristen den dokumentazioa eta informazioa euskaraz ere badagoela bermatzea eta, bestela, dagokion unitatearekin koordinatzea, beti EAEko bi hizkuntza ofizialetan irits dadin.
- Ertzain berriei harrera euskaraz ere egitea.
- Euskarazko prestakuntza eta lana erraztea.

7.2 Frantziako poliziarekiko lankidetzak

Polizia eta Aduana Lankidetzarako Zentroa (PALZ) Frantziako eta Espainiako estatuen arteko mugaz gaindiko lankidetzak-gune bat da. Hendaian dago, mugatik metro gutxi batzuetara, Frantziako Polizia Nazionalaren (PNF) bulegoetan.

Hendaiako Lankidetzak Zentroan, mugaz gaindiko delinkuentziarekin zerikusia duen informazioa Frantziako polizia-zerbitzuekin trukatzeko da Ertzaintzaren lana. Polizia-jarduerak eta jarduera operatiboak, besteak beste, ikerketekin, atxilotzekin, estradizioekin, kirol-ekitaldietako dispositiboekin edo ordena publikoarekin lotuta daude.

Bestalde, lankidetza-zentroak lotura-funtzioa ere betetzen du; haren bitartez, bere kanpo-presentzia indartzen du Ertzaintzak. Horretarako, kontaktu-sare bat ezartzen da, Frantziako polizia-zerbitzuekin, erakundeekin eta agintaritzekin lankidetza sustatzen duena. Protokolozko jarduera bat da gehienbat, eta lankidetza-zentroan bisitei arreta eman eta harrera egitearekin zerikusia du, baita Ertzaintza harremanak estutzeko eta erakundea ezagutarazteko bilera edo ekitaldi instituzionaletara joatearekin ere.

2024an, aintzat hartu da Ertzaintzako agenteek Hendaiako Lankidetza Zentroan betetzen duten zerbitzuaren bikaintasuna, polizia-ohoreari bi domina emanez: bata Jendarmeriak emana, Ertzaintzaren komisario bati, eta bigarren kondekorazioa PNFK eman dio Ertzaintzako agente bati.

7.3 Kontsulatuekiko harremanak

Ertzaintzaren kanpo-presentzia sustatzearekin, kanpoko beste erakunde batzuekiko harremanak bultzatzearekin eta Ertzaintza ezagutzera ematearekin bat etorriz, 2024an, Espainian akreditatutako kidego diplomatikoko langileekin harremanak sustatu dira, eta, zehazki, EAEn kontsul-egoitzak dituzten herrialdeekin. Era berean, EAEko kontsul-kidegoarekin eta Madrilen akreditatuta dauden enbaxadekin elkarrekintza dinamizatzen jarraitu, eta haien agregatu polizialekin harremanak areagotu dira.

EAEko kontsul-kidegoarekin zuzeneko harreman ugari eduki eta hainbat ekitalditan parte hartu da. Gainera, dozena bat aldiz baino gehiagotan eskatu diote laguntza edo informazioa Ertzaintzari. Bilboko kontsul-kidegoak antolatutako hainbat ekitalditan ere izan da Ertzaintza.

Azkenik, nabarmentzekoa da protokolozko korrespondentzia-jarduera garrantzitsua egin dela, ehun komunikazio baino gehiago bidali baitira kontsulatuekiko harreman-sarea ehundu eta mantentzeko.

7.4 Udaltzaingoekin koordinatzeko batzordeak

Ekainaren 28ko 15/2012 Legeak (Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeakoak), 43. artikuluan, tokiko polizia-koordinaziorako batzordeak arautzen ditu, eta adierazten du polizia-zerbitzuen esku-hartzeak Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren artean koordinatzeko organoak direla, ezertan eragotzi gabe Autonomia Estatutuan Ertzaintzaren eta Espainiako segurtasun-indar eta kidegoen arteko koordinazioari buruz xedatutakoa.

Araudi horren babespean, lankidetza-hitzarmenak landu eta sinatu dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorak (Segurtasun Sailaren bidez) eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, eta polizia-mailan, Ertzaintzaren eta kasuan kasuko udalerriko udaltzaingoaren arteko lankidetza-protokoloak adostu dira, eskumenak eta titulartasunak zehaztuta, gorabeheren eta udaltzaingo horien ahalmenen arabera.

Ertzaintzak eta udaltzaingoek zeinek bere eskumenak dituzte; hala ere, zenbait eremutan bat datoz eskumen horiek, eta beharrezkoa da polizia-kidego bakoitzak bere jarduerak planifikatzea eta koordinaturik aritzea, herritarren segurtasuna areagotzeko.

Koordinazio-batzordeak segurtasun-foroak dira, udalerrietako alkateek eta Euskal Poliziak (Ertzaintza eta udaltzaingoak) osatuak. Urtero egiten dituzte bilerak, nahiz eta hala gomendatuz gero ugariagoak ere izan daitezkeen, eta horietan herritarren segurtasuna indartzea ahalbidetzen duen edozein gai jorratzen dute.

Bileretan, udalerri bakoitzeko delinkuentziaren balantzea eta kriminalitatearen egoera azaltzen dira; orobat, udaletako agintari gorenak segurtasunari buruz dituzten kezkek jasotzen dira.

Batzuetan, batzordeak mahaiak edo lantaldeak eratzea erabaki dezake, aldizkako jarraipena egiteko Ertzaintzak eta udaltzaingoei erregistratutako delinkuentzia-jarduerari eta hala eskatzen duten gai espezifiko batzuk aztertzeko; adibidez, Indarkeria Matxistari Aurre Egiteko Koordinazio Mahaia.

Ertzaintzak oso baliagarritzat ditu bilera horiek, eta haietan agerikoa da kideen arteko lotura eta elkar ulertzea, helburu berberarekin parte hartzen eta aritzen baitira elkarlanean, hain justu ere, herritarren segurtasuna eta ongizatea defendatzeko. Polizia-mailan, bilera horiek argi uzten dute Ertzaintzaren eta udaltzaingoen arteko errespetua, konfiantza eta lankidetzarako gogoia, eta, azken batean, Euskal Poliziaren parte direlako sentimendua finkatzen dute.

8. ESTADISTIKAK

8.1 Testuingurua

Txosten hau prestatzeko, Ertzaintzak eta Udaltzaingoei jasotako datuak erabili dira, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak emandakoak.

Delitu-tipologia batzuk Barne Ministeriorekin adostutako estandarren arabera jaso dira; Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Europako estatistika ofizialak prestatzeko emandako araua oinarri hartuta.

Udaltzaingoei jasotako arau-hausteei dagokienez, Lurralde Historikoetako 15.000 biztanletik gorako biztanleguneei buruzko datuak dauzkagu, udalerri hauetakoak, hain zuzen:

Araba: Vitoria-Gasteiz, Laudio;

Bizkaia: Bilbao, Barakaldo, Getxo, Amorebieta-Etxano, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Galdakao, Gernika-Lumo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao

Gipuzkoa: Donostia, Irun, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz.

8.2 Ertzaintzak eta Udaltzaingoez jasotako arau-hauste penalak

Euskal Poliziak 2024an 141.190 arau-hauste penal erregistratu ditu, 2023an baino %2 gehiago. 1000 biztanleko delitu-tasa 63,3koa da.

26.968 ziberdelitu zenbatu dira eta horiek kriminalitate guztiaren %19 dira. 2023an baino %3 gutxiago izan dira eta 1000 biztanleko delitu-tasa 12,09koa da, 0,4 puntu gutxiagokoa. Beherakada hori hiru lurraldeetan gertatzen da.

Delitu presentzialak %3 gehiago izan dira. Gipuzkoan handitu dira gehien, %9an; Bizkaian %1ean eta Araban %0,2an.

2024an 8 giza hilketak kriminal burutu dira, 2023an baino bat gehiago.

Ertzaintzak aldi honetan indarkeria matxistaren 5634 emakume biktima artatu ditu, 2023an baino 399 gehiago.


Sexu-erasoak %29 gehiago izan dira eta hirutik bi gutxi gorabehera bortxaketak izan dira; sexu-ziberdelituek, ordea, beren hartan jarraitzen dute.

Ondarearen aurkako arau-hauste penal presentzialen arau-hausteak %3an handitu dira, nabarmendu behar da iruzurak %12an gutxitu direla eta ebasketak %6an handitu.

Indarkeria erabiliz egindako lapurretak %3 gehiago izan dira, etxebizitzaren beste lekuetako lapurretak %16an eta enpresetako lapurretak %11n handitu direlako. Saltokietako eta etxeetako lapurretak, ordea, gutxitu dira, %13an eta %12an, hurrenez hurren.


Ertzaintzak egindako erruztapenak %10 gehiago izan dira, arau-hauste penal guztien gorakadaren gaineko portzentajea, gorakada hori %2koa izan baita.

Euskal Poliziak 2024an 141.190 arau-hauste penal ezagutu eta ikertu ditu, hau da, 2023ko denbora-tarte berean baino %2 gehiago (3.010 gehiago).




Ziberdelituak, 26.968, kriminalitate guztiaren %19 izan dira eta 2023an baino %3 gutxiago izan dira.


Delinkuentzia presentziala



Ziberdelinkuentzia




EUSKADIKO DELINKUENTZIA-MAPA EUSKAL POLIZIA



ONDAREAREN AURKAKO ARAU-HAUSTE PENAL PRESENTZIALAK

Euskadin 2024an modu presentzialean egindako arau-hauste penal guztien artean, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako arau-haustek %71 izan dira eta 2023an baino %3 gehiago izan dira.



Ebasketak


2024. urtean, arau-hauste penal horiek aurreko urtean baino %6 gehiago izan dira.

Gipuzkoan arau-hauste guztien %28 izan dira, hau da, 2023an baino %13 gehiago, 1.502 kasu gehiago. Bizkaian, han gertatzen baitira ebasketen %57, iaz baino %5 gehiago izan dira, hau da, 1.140 kasu gehiago. Araban, ordean, 80 kasu gutxiago izan dira, hau da, %1 gutxiago.

Kalteak

Oro har, horrelako arau-hauste penalen kopuruari dagokion portzentajea ia ez da aldatu eta 120 kasu gutxiago izan dira.

Lurraldeetan, ordea, aldaketak egon dira. Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren, %10 eta %3 gutxiago izan dira; Gipuzkoan, ordea, %8 gehiago.



Indarra erabiliz egindako lapurretak

Etxebizitzetan indarra erabiliz egindako lapurretak¹, oro har, 2023an baino %4 gutxiago izan dira.

Beharakada hori are nabarmenagoa da etxeetan bertan indarra erabiliz egindako lapurreten kasuan, %12an murriztu baitira. Datu positibo hori hiru euskal probintzietan ikusten da.


Etxebizitzaren beste leku batzuetan indarra erabiliz egindako lapurretak, ordea, %22 gehiago izan dira. Hiru lurraldeetan handitu dira: Gipuzkoan %64, Araban %19 eta Bizkaian %4.

¹ "Etxebizitzan indarra erabiliz egindako lapurreta" tipologia bi azpimultzotan banatzen da: indarra erabiliz etxeetan lapurtzea eta etxebizitzaren beste leku batzuetan lapurtzea, besteak beste, garajeetan, trastelekuetan, atarietan, patioetan etab.


Horretaz aparte, indarra erabiliz saltokietan eta beste esparru itxi batzuetan egindako lapurretak %13 gutxiago izan dira, 334 kasu gutxiago.

Beherakada hori hiru probintzietan ikusten da: Gipuzkoan %4, Bizkaian %15 eta Araban %33.

Lapurretak etxean




Lapurretak dendetan eta beste batzuetan



Horrelako iruzurrei dagokienez, kopuruetan %12ko beherakada ikusten da 2023ko kopuruen aldean.

Bizkaian %23 gutxiago izan dira; Araban eta Gipuzkoan, ordea, %13 eta %10 gehiago izan dira, hurrenez hurren.


Iruzur presentzialak




ZIBERDELITUAK

Baliabide informatikoak erabiliz egindako arau-hauste penalak edo ziberdelituak arau-hauste penal guztien %19 dira eta horregatik komeni da horiek berariaz aztertzea, arau-hauste presentzialetatik bereizita.

Ziberdelituak modu birtualean egiten direnez, horrelakoetan, oro har, biktimari kalte ekonomikoa eragiten zaio, baina egilea fisikoki agertu gabe. Horregatik, normalean, egilearen kokapena eta arau-haustea gertatzen den lekua ez dira bat etortzen. Nazioarteko lankidetzara jo behar izaten da, normalean egilea estatuaren eskumenetik kanpo egoten da eta.




Ziberiruzurrak




ONDAREAREN AURKAKO ZIBERDELITUAK


Ziberdelituen %90 dira. 2024. urtean 614 kasu gutxiago izan dira, hau da, %2ko beherakada egon da.

Ziberfaltsifikazioak


%3,6 dira eta %1eko beherakada izan dute, 5 kasu gutxiago izan baitira.

Zibereraso informatikoak

Ziberdelituen %0,3 baino ez dira izan eta 2024an %28ko beherakada izan dute.

PERTSONEN AURKAKO ZIBERDELITUAK**Zibermehatxuak eta Ziberhertsapenak**


Ziberdelituen %3 izan dira. 2024. urtean 2023an baino 18 gertakari gutxiago salatu dira.

PERTSONEN AURKAKO ARAU-HAUSTE PENAL PRESENTZIALAK**Giza hilketak**

2024. urtean zortzi giza hilketa kriminal gertatu dira, 2023an erregistratutakoak baino bat gehiago.

Hasieran giza hilketa-saiakuntza gisa ikertutako delituen %50 inguru, arlo judizialean, lesio-delitu gisa birkalifikatzen dira.

Lesioak




Kapitulu honen barruan sartzen diren arau-hauste penalak, oro har, %6 gehiago izan dira, eta hiru lurraldeetan antzeko proportzioan hazi dira.

Horietatik %31 gertatzen dira genero-indarkeriarekin edo etxeke indarkeriarekin lotuta eta aztertu den aldian %8an handitu dira. Gainerako lesioak %5 gutxiago izan dira, 328 kasu gutxiago.

Sexu-askatasunaren edo sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak


Oro har, 2024. urtean, sexu-askatasunaren aurkako arau-hauste penal presentzialak %24 gehiago izan dira.




Aldi horretan, Euskadin 1.105 pertsonak salatu zuten sexu-erasoren bat jasan zutela, 2023an baino %29 gehiagok.

Sexu-erasoak hiru lurralde historikoetan handitu dira: Araban %42an, Bizkaian %28an eta Gipuzkoan %26an. Ertzaintzaren erregistroen arabera, bortxaketak %30ean handitu dira, 70 kasu gehiago izan baitira.

Motaren arabera sailkapena





Sexu-erasoen ondoriozko salaketak (bortxaketak barne hartuta) gertatzen diren lekuen arabera, honela banatzen dira:



SEGURTASUN KOLEKTIBOAREN AURKAKO ARAU-HAUSTE PENAL PRESENTZIALAK

Atal honen barruan, besteak beste, osasun publikoaren aurkako arau-hauste penalak sartzen dira, hau da, droga-trafikoa eta edari alkoholdunen, drogen edo beste substantzia estupefaziante batzuen eraginpean gidatzea.




Droga-trafikoa

Droga-trafikoa, egiten den presio polizialarekin estuki lotuta dagoena, %15ean handitu da, 133 kasu gehiago izan baitira. Lurraldeen arabera banaketa hau da: Gipuzkoan eta Bizkaian %25ean eta %16an handitu da, hurrenez hurren; eta Araban %7an txikitu da.


8.3 Ertzaintzak eta udaltzaingoez jasotako arau-hauste penalak, lurralde, hiriburu eta udalerrien arabera sailkatuta

Arau-hauste penal presentzialak eta ziberdelituak 2024 Euskal Polizia (LH)

Arau-hauste penal
presentzialen bilakaera




Ziberdelituen bilakaera




Arau-hauste penal presentzialak eta ziberdelituak 2024 Euskal Polizia (hiriburuak)

Arau-hauste penal
presentzialen bilakaera




Ziberdelituen bilakaera




2024 Euskal Poliziak erregistratutako arau-hauste penalak (15.000 bizt. gorako udalerriak)

■ 2023
■ 2024




2024 Euskal Poliziak erregistratutako arau-hauste penalak (15.000 bizt. gorako udalerriak)

■ 2023
■ 2024




8.4 Erruztatutako pertsonak

Erruztatutakoak %10 gehiago izan dira, 50.499 pertsona atxilotu eta ikertu direlako, 2023an baino 4674 gehiago.




Erruztapenak, arau-hauste motaren arabera

■ 2023
■ 2024



Erruztapenak Lurral Historikoaren arabera

■ 2023
■ 2024




5. Indarkeria Matxista, Ertzaintzaren datuen arabera


2024. urtean Ertzaintzak indarkeria matxistagatik² guztira 7.118 arau-hauste penal erregistratu ditu, 2023an baino 546 gehiago, hau da, %8 gehiago.

Emakumeen aurkako etxeko indarkeria-delituak %11n handitu dira. Gero-indarkeria kasuak (gizonezko bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen aurka) %6an handitu dira.

Bikotekideen eremutik edota etxe eremutik kanpo, emakumeen sexu askatasunaren aurkako arau-hauste penalak 766 izan dira eta horrek esan nahi du 2023an baino %19 gehiago izan direla. Lurraldeka, Araban eta Gipuzkoan %28 gehiago izan dira eta Bizkaian %10 gehiago.



² Horren barruan sartzen dira bikote barruko edo hortik kanpoko indarkeria fisikoa eta psikologikoa, eta sexu-erasoa edo sexu-askatasunaren aurkako beste edozein delitu bikotekideen eremutik edo etxeko eremutik kanpo.




Delitu-mota horiengatik Ertzaintzak 5.634 emakume artatu ditu, aurreko urtean baino 399 gehiago.

6. Balorazioak

2024 urteko datu garrantzitsu bezala, aipatu behar da ziberdelituak %3 gutxiago izan direla eta horrek 2017. urtean hasitako goranzko joeraren aldaketa erakusten du. Beherakada horren barruan ez da 2021. urtea sartzen, pandemiaren ondorioz urte atipikotzat jo baitzen.

Dena den, aztertu den urtean Euskadiko arau-hauste penalak guztira %2 gehiago izan dira, arau-hauste penal presentzialak %3 gehiago izan direlako. 2023. urtean baino eteten ez den goranzko joera etengabea izan da, 2020 eta 2021 urteak kanpoan utzi baitira aldi horretako aparteko inguruabarren ondorioz.



Hori dela eta, nabarmendu behar da joera guztiek, dena delakoak izanda ere, patroiz ziklikoei erantzun ohi dietela. Horregatik, hurrengo urteetako datuei begiratu beharko zaie zehazteko ziberdelinkuentziaren beherakada joera bihurtzen den edo aparteko fenomeno den, 2021an %5eko beherakada erregistratu zenean bezala. Globalizazioaren eta interkonexioaren testuinguru honetan, teknologia berriak gure eguneroko bizitzetan gero eta presentziaz daudela, beherakada hori aldi batekoa izan liteke eta horrelakoak aldian-aldian errepikatuko direla, konstante gisa ezarri gabe.

Izan ere, aurreko urteetan ziberdelituak arau-hauste penal guztien artean gero eta gehiago zirela ikusi bazen ere – 2023. urtean %20 izan ziren, eta 2022an baino %38 gehiago- 2024an ziberdelitu horiek apur bat murriztu dira %19 izan baitira.

Ziberdelinkuentziaren beherakadaren datua ona bada ere, delitu presentzialen gorakada orokorra izan da eta hori datu txarra da. Bereziki nabarmendu behar da segurtasun faltaren sententzia areagotzen duten delituen kopurua handitu dela. Gaur egun, herritarren segurtasun eza laugarren dago gizartearen kezka nagusien artean.

- **Giza hilketa burutuak.** %14an handitu dira, hau da, delitu-mota horren barruan kasu bakar bat gehiago izan da. Arau-hauste penal horiek, oro har, egileak suminaldi batean edo planifikatu gabe egindakoen ondorioz izaten dira.
- **Lesioak.** %4an handitu dira, EI/GI-ren arlokoak kanpoan utzita. Hiru lurraldeetan handitu dira eta bereziki Gipuzkoan, %15 gehiago izan baitira, eta Euskadiko hiru hiriburuetan: %1,5 gehiago Bilbon eta Vitoria-Gasteizen eta %11 gehiago Donostian.

Kaleko liskarretan arma zuriak erabiltzea gero eta ohikoagoa izaten denez, Ertzaintzak horri aurre egitea helburutzat hartu du. Hori dela eta, azpimarratu behar da arma zurien erabileraren aurkako ekintza-planak indarrean jarraitzen duela. Prebentzio-plan hori 2023ko otsailean jarri zen martxan eta Euskadiko kaleetan eta aisialdi-inguruneetan arma horien presentzia murriztea du helburu.

Ekintza-plan estrategiko horiek ezarri direnez eta lan polizialak areagotu direnez, bide publikoan 1.882 arma zuri eta 518 objektu potentzialki arriskutsu konfiskatu ahal izan dira. Gainera, guztira 1.430 salaketa instruitu dira horiek eramaten zituzten pertsonen aurka, Herritarren Segurtasunaren Legearen arau-hausteengatik, eta horiek isunak ordaintzea ekartzen dute. Operatiba horri esker, herritarren segurtasunaren aurkako mehatxuak ziren elementu ugari zirkulaziotik kendu ahal izan dira eta, beraz, biztanleentzat hiri ingurune seguruagoa sortu ahal izan da.

- **Indarkeria edo larderia erabiliz egindako lapurretak.** %2 gehiago izan dira. Bizkaiak lortu du gorakada hori moteltzea, lurralde horretan %3 gutxiago izan direlako; baina Araban horrelako arau-hauste penalak %43 gehiago izan dira eta Gipuzkoan %6 gehiago.

Euskadiko hiru hiriburuetan, horietan daudelako biztanle gehien eta merkataritza-jarduera eta enpresa-jarduera handiena, datuak hauek dira: Vitoria-Gasteizen %44, Donostian %33 eta Bilbon %5. Zalantzarik gabe, egoera horrek eragin negatiboa dute segurtasunik ezaren sententzian.

- **Sexu-erasoak:** %29 gehiago izan dira. 2023 urtean %128an handitu ondoren nabarmen txikitu da. Hiru lurraldeetan antzeko joera dago eta azpimarratu behar da Araban %42an handitu dela, Bizkaietan %28an eta Gipuzkoan %26an.

Euskadiko hiru hiriburuetan, horietan gertatzen baitira sexu-erasoen %50, handitu dira: Vitoria-Gasteizen %59an, Bilbon %48an eta Donostian %4an.

Gorakada hori kopuru beltzaren- salatzen ez direnen kopurua- beherakadaren ondorioa izan daiteke, 2022an egindako lege aldaketan ondorioz eta sententziazio-kanpainen ondorioz gizarte kontzientziazioa handiagoa delako. Horrelako delitu-moten argitze-portzentajea %85ekoa da.

lkerketak laguntzen du horrelako delituak argitzen; delitu horiek probatzen zailak izatea eta erasotzaileak identifikatzeko lekukorik ez egotea oztopo handia baitira.

- **Genero-indarkeria:** 2024. urtean, emakumeen aurkako indarkeria berriz ere protagonista izan da Euskadin, biktimizazioak zein biktimen kopurua handitu baitira, biak %8an. Hiru lurraldeetan handitu dira.

Gorakada handienak sexu-askatasunaren aurkako arau-hausteen artean gertatu dira, %19 kasu gehiago izan baitira eta %18 biktima gehiago.

Aurreko urteetan bezala, eraso horietako gehienak biktimen etxebizitzaren intimitatearen barruan gertatzen dira.

Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako arau-hauste penal presentzialak arau-hausten presentzial guztien %69 dira. Horiek zer joera duten markatzen du norabide batean edo bestean arau-hauste penal globalen joera. Horren barruan hauek azpimarratu behar dira:

- Ebasketak kapitulu honetako arau-hauste penal guztien %59 dira eta arau-hauste penal presentzial guztien %41. Horien pisu kuantitatiboa handia bada ere, arau-hauste mota horrek ez die herritarrei segurtasun falta sentsazio larria eragiten, Euskadiko herritarrei egindako inkestetan ikusten den bezala; izan ere, inkesta horien arabera, lapurretek, sexu-erasoek eta eraso fisikoek eragin handiagoa izaten dute.
- Bizkaian gertatzen dira ebasketen %57 eta horietatik %64 Bilbon gertatzen dira. Biztanle-tasa handia izateak eta jendetza biltzeak errazten dute delitu horiek gertatzea, eta nagusiki talde ibiltariak egiten dituzte delitu horiek. Hori dela eta, ertzain-etxe desberdinek prebentzio-plan desberdinak planifikatu dituzte.
- Indarra erabiliz etxebizitzetan, saltokietan eta beste esparru itxi batzuetan egindako lapurretak murriztu dira bigarren urtez jarraian. Arau-hauste horiek segurtasun ezaren sentsazioa areagotzen dutenez, bietan %12ko beherakada izatea datu positiboa da eta ezarritako prebentzio-planen eraginkortasuna berresten du. Hiru lurraldeetan gertatu da beherakada.
- Erruztapenak. %10 gehiago izan dira, aztertutako ia kapitulu guztietan handitu baitira. Giza hilketen delituengatik eta sexu-askatasunaren aurkako delituengatik erruztatutako pertsonen kopurua handitu dela azpimarratu behar da, %31n eta %27an handitu baitira, hurrenez hurren. Sexu-erasoei dagokienez, gertatutako 1105 kasuetan 798 erruztapen izan ziren eta horrek esan nahi du argitze-portzentajea %72koa dela.

Nabarmendu behar da doloeko hilketen kasuetan 16 erruztapen egon direnez, Euskadin 2024. urtean mota horretako hilketa guztiak argitu zirela.

9. ONDORIOAK

Euskadiko krimen-datuak kopuru hutsetik harago doan ikuspegi batetik aztertu behar dira, alderdi kualitatiboak ere kontuan hartu behar baitira. Hau da, unea ulertu behar da, arau-hauste zehatz batzuen zikloa, bilakaera edo joera aztertu behar dira eta, horretan guztian oinarrituta, hartu beharreko prebentzio neurri egokiak hartu behar dira.

Ertzaintzaren modelo proaktibo eta moderno baten ikuspuntutik, Inteligentziak prebentziozko jardueraren, ikerketen eta garatu beharreko ekintza planen motorra izan behar du. Prebentzio-eta ekintza-planak lantzean, garrantzitsua da ingurunea ezagutzea, zein gizartetan bizi den, eta hauek guztiak ulertzea: gizarte horren konposizioa, biztanleak, maila sozialean, ekonomikoan, enpresarialean edo politikoan gertatzen doazen aldaketak, bizitza estiloa eta gizarteko pertsonen ohiturak. Diziplina anitzeko esku hartzea egin behar da gizarte eragile guztien, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen aldetik; zehetasunak aztertuz, horrek delinkuentziaren portaera ulertzen lagunduko baitu.

Euskal Poliziaren hurbiltasunezko modelo polizialaren arabera, segurtasun objektiboa lortzeko lan egin behar da, hau da, delinkuentzia tasa murrizteko; baina baita segurtasun subjektiboa areagotzeko ere, hau da, herritarren artean segurtasun- eta konfiantza-giroa sortzeko. Hortaz, delinkuentziari bere osotasunean aurre egiteko lan egin behar da; nahiz eta inkestetan herritarrek segurtasun ezaren sortzaile nagusitzat lapurreten (indarkeriarekin edo gabe), erasoen (fisikoak edo sexualak) edo lesioen arau-hauste penalak jo.

2. SEGURTASUNAREN KOORDINAZIOA

1. ARAUBIDE JURIDIKO-PUBLIKOAREN ARLOA
2. DIZIPLINA ARAUBIDE ARLOA
3. EKINBIDE- SEGURTASUN PUBLIKOAREN SISTEMA HOBETZEKO
HERRITAR-EKIMENEN BULEGOA
4. IKERKETEN ETA AZTERKETEN ALORRA
5. UDALTZAINGOAK KOORDINATZEKO ARLOA
6. EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLANA
7. ESTATUAREKIKO HARREMANAK
8. LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA
9. IDAZKARITZA NAGUSIA

1. ARAUBIDE JURIDIKO-PUBLIKOAREN ARLOA

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzako Araubide Juridiko Publikoaren Arloak Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren (HSBLO) eta Segurtasun Pribatuari buruzko apirilaren 4ko 5/2014 Legearen (SPL) araubide juridikoa kudeatzen du, eta, bereziki, zehapen-araubideen aplikazioa, salatutako pertsonen eskubideak eta, batez ere, defentsa-eskubidea errespetatzen direla bermatuz. Ikuspegi horretatik, nabarmendu behar da prozeduran zehar aurkezten diren alegazioei erantzuten zaiela, froga egokiak egiten direla eta arrazoitu egiten direla bai prozedura erantzukizunik gabe amaitzen duten ebazpenak, bai zehatzaileak, oro har, irmotasuna lortzen dutenak.

Oso garrantzitsuak dira drogak edukitzea eta kontsumitzea, armak edukitzea eta erabiltzea, bizikidetza nahastea eta abar saihestearekin lotutako arau-hausteak. Halaber, bereziki garrantzitsuak dira agintaritza-agenteen eginkizunen jardun legitimoa babestearekin erlazionaturikoak, hala nola, desobedientziarekin eta errespetu faltarekin lotutakoak, bai eta delituak ikertzeko informazio garrantzitsua ematea helburu dutenak ere, herritarren segurtasunerako garrantzitsuak diren jardueretarako legez aurreikusitako erregistrorik ez izatea edo haietan irregulartasunak egotea zehatzen dutenak, kasu. Prozedura horiek eragin dituzten salaketak Ertzaintzatik eta Euskadiko udaltzaingoetatik datoz. 2024an ia ez dago aldaketa esanguratsurik 2023arekin alderatuta.

	2023 urtea	2024 urtea
Guztira	6.677	6.798
Drogak eta armak edukitzea	3.237	3.259
Agenteekiko desobedientzia eta errespetu-faltak	2.950	2.871
Gainerako arau-hausteak	490	668

Segurtasun pribatuari buruzko legeari dagokionez, kontuan hartu behar da esku-hartze handia aurreikusten duela segurtasun-erakunde pribatuek eta haien langileek garatzen dituzten jarduerak antolatzeke eta gauzatzeko, eta enpresei eta haien langileei, zerbitzu horien erabiltzaileei eta gaiari buruzko prestakuntza-zentroei buruzko jokabideak jasotzen dituela, segurtasun pribatuaren sektorean intrusismoa saihesteko, segurtasun pribatuaren esku hartzeko eta kontrolatzeko ahaletik abiatuta.

HERRITARREN SEGURTASUNA

HSBLO-AREN ARAU-HAUSTEENGATIK 2024AN HASITAKO ESPEDIENTEAK

6798

	ART.	EXP.	
Desordena larriak			L A R R I A K
• Ekitaldi publikoetan	36.1	18	
• Kale edo establezimenduetan	36.3	225	
Funtzioak oztopatzea	36.4	8	
Desobedientziak, erresistentziak	36.6	1.327	
Bilera zilegia egitea eragozte	36.8	1	
Debekatutako armak, arautuak, lehergailuak eta piroteknia-gaiak	36.10/36.12	1.027	
Segurtasun-indar eta -kidegoekin elkarlanean ez aritzea	36.15	4	
Drogak:			
• Kontsumitzea edo edukitzea	36.16	2.222	
• Landatzea eta haztea	36.18	3	A R I N A K
• Establezimendu publikoetan kontsumoa eta trafikoa tolerantzea	36.19	7	
Nabigazioa murrizketak ez betetzea	36.22	1	
Dokumentu-erregistroak:			
• Ez egitea edo ez komunikatzea	36.20	71	
• Irregularitasunak jardura garrantzitsuen erregistroetan	37.9	3	
Bilera:			
• 9/83 LO ez betetzea	37.1	48	
Objetu arriskutsuak erakustea	37.2	2	
Errespetua galtzea edo begirunerik ez izatea	37.4	1.544	
Sexu-askatasunaren aurka eta erakuspen-egintza lizuna	37.5	23	A R I N A K
Argi-sortak igortzea segurtasun-indar eta -kidegoetako kideei	37.6	6	
Higiezinak edo bide publikoak okupatzea	37.7	43	
Agiri pertsonalak zaindu eta gordetzean axolagabekeria	37.11	1	
Ondasunak kaltetu edo hondatzea	37.13	153	
Eraikinak eskalatzea kalteak eragiteko arriskuarekin	37.14	6	
Segurtasun-perimetroak mugitzea	37.15	8	
Animalia kaltegarriak edo abandonatuak	37.16	30	
Alkohola kontsumitzea herritarren segurtasuna larriki nahastuz	37.17	17	

SEGURTASUN PRIBATUA			
SLP-AREN ARAU-HAUSTEENGATIK 2024AN HASITAKO ESPEDIENTEAK			40
	ART.	EXP.	
ENPRESAK		23	
SP-ko zerbitzuak baimenik gabe ematea	57.1A	3	OSO
SP-ko zerbitzuetan gaitu gabeko langileak kontratatzea	57.1B	2	
Armeei eta armaginei buruzko araudia ez betetzea	57.1F	1	
Segurtasun indar eta kidegoei AHZ probatueta erregistratutako benetako alarmak ez transmititzea	57.1N	1	LARRIAK
Homologatu gabeko baliabidebmaterialak instalatu edo erabiltzea	57.2A	3	
SP-kozerbitzuak ematea kontratuak Ertzaintzari jakinarazi gabe	57.2E	4	LARRIAK
SP-ko zerbitzuak ematea kontratuan ezarritakoa bete gabe	57.2F	2	
Dagokion prestakuntzarik ez duten SP-ko langileak erabiltzea	57.2H	3	
Ertzaintzari langileen alten eta bajen berri ez ematea	57.2L	1	
SP-ko langileek zerbitzua behar bezalako uniformetasunik gabe ematea	57.2M	1	
Mantentze-lanak kontratatuta dituzten segurtasun-neurriak urtero ez berrikustea	57.2N	1	ARINAK
Kontratututako nahitaezko azterketen aldikakotasuna ez betetzea	57.3A	1	
ERABILTZAILEAK		10	
Segurtasun-empresa zerbitzuak kontrattzea, jakinaren gainean baimenik ez dutela	59.1A	2	OSO
SP zerbitzuak emateko beharrezko gaikuntza/ egiaztapena ez duten pertsonak jakinaren gainean kontratatzea	59.1H	1	LARRIAK
Alarma-aparatu edo homologatu gabeko bestelako segurtasun-gailuak erabiltzea	59.2B	1	LARRIAK
Prestakuntza-zentroetako instalazio baimenduetatik kanpo prestakuntza-ikastaroak ematea	59.2D	1	
Segurtasun-gailuak arauetara egokitu gabe edo hirugarrenei neurritz kanpoko kalteak eraginez erabiltzea	59.3A	3	ARINAK
Instalatutako segurtasun-neurrien funtzionamendu anormala	59.3B	2	
LANGILEAK		7	
Hirugarrenentzako SP funtzioak betetzea, gaikuntzarik gabe	58.1A	2	OSO
Gaitutako edo egiaztatutako langileek eginkizunak betetzean arretarik ez jartzea	58.2G	5	LARRIAK
HASI DA FITXATEGIAK GUZTIRA			6.838

2. ARAUBIDE JURIDIKO DIZIPLINARIOAREN ARLOA

2024. Urtean diziiplina-prozedura hasi zaien emakumeen eta gizonen kopurua.

	2024		
	G	E	GUZTIRA
FALTA ASTUNA EDO OSO ASTUNA	33	4	37
FALTA ARINA	11	2	13
GUZTIRA	44	6	50

3. EKINBIDE- SEGURTASUN PUBLIKOAREN SISTEMA HOBETZEKO HERRITAR-EKIMENEN BULEGOA

Ekinbide-Segurtasun Publikoaren Sistema Hobetzeko Herritar Ekimenen Bulegoa Segurtasun Sailaren zerbitzu ez-poliziala da, eta bere eginkizuna da herritarrek segurtasun publikoaren euskal zerbitzuaren jarduerari, zerbitzuei eta prestazioei buruz aurkeztutako ekimenak jasotzea, aztertzea eta erantzutea, haien kalitatea eta haiekiko konfiantza hobetzeko eta herritarrek parte hartzeko kanal bat eratzeko. Kanal horretara jo dezake edozein pertsonak edo erakundek, jasotzen dituen segurtasun-zerbitzuekin dituen poztasunak, gogobetetzetik ezak eta iradokizunak adierazteko, herritarrek lortu nahi duten segurtasun-eredua eratzen aktiboki lagunduz.

2024ko jarduerari dagokionez, eta aurreko urtearekin alderatuta, esan dezakegu % 6 inguru igo dela jasotako eta, azkenik, izapidetzeko onartutako ekimenen kopurua. Ekimen motaren arabera banakapenak erakusten digu izapidetutako kexen kopuruak zertxobait gora egin duela (% 2), eta esker onen bidez jasotako gogobetetze-adierazpenek nabarmen egin dutela gora (% 32). Gainerako ekimenei dagokienez, ez dago funtsezko aldaketarik.

2024ko ekimenen kopurua		
	GUZTIRA	%
Izapidetuta	390	85,90
Ukatuta	64	14,10
GUZTIRA	454	100

2024an izapidetuta		
	GUZTIRA	%
Kexak	308	78,97
Esker-emateak	62	15,90
Eskaerak	7	1,79
Iradokizunak	13	3,33
GUZTIRA	390	100

2024ko kexen tipologia		
	GUZTIRA	%
Arreta salaketei	92	30
Trafikoa	85	28
Tratua	37	12
Arreta desegokia	19	6
Atxiloketa / Identifikazioa	20	6
Euskara	17	6
Beste batzuk	38	12
GUZTIRA	308	100

4. IKERKETEN ETA AZTERKETEN ALORRA

Ikerketen eta Azterketen Alorra arduratzen da Segurtasun Sailaren estatistika-jarduera bultzatzeaz, kudeatzeaz, koordinatzeaz eta, hala badagokio, gauzatzeaz, bai eta Saila arlo horretan eskumena duten kide anitzeko organoetan ordezkatzaz ere.

Era berean, SIPen (poliziaren sistema informatikoa) kodetze-sistemaren datu-baseen mantentze-lanak kudeatzen parte hartzen du.

Gainera, Ertzaintzaren webgunean eta Udaltzaingoa atarian agertzen den delinkuentziari buruzko estatistika-informazioa zabaltzen, mantentzen eta eguneratzen du.

2024an honako jarduera eta zeregin hauek egin dira:


1. Arau-hauste penalei, atxiloketei, ikerketei, biktimei eta biktimizazioei (HSL) buruzko estatistika-taulak egin dira. Hartzaileak Segurtasun Saila, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, erakundeak eta partikularrak izango dira. Aldizkakotasun honekin:

ALDIZKAKO TXOSTENAK

- **Hilean behin:** Segurtasun Saila, Emakunde, Barne Ministerioa.
- **Sei hilean behin:** Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia, Emakunde.
- **Urtekoak:** Lehendakaritza, Segurtasun Saila (Eusko Legebiltzarrerako urteko memoria), Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia, Emakunde.

UNEAN UNEKO TXOSTENAK

- **Aipatutako erakunde eta instituzioen nahiz beste organismo, instituzio eta partikularren eskaerei erantzuteko.**
2. Estatistika-eragiketak: Segurtasun Sailak gaur egun 2023-2026 aldirako Euskal Estatistika Planaren barruan (azaroaren 9ko 10/2023 Legean arautua) dituen estatistika-eragiketak



koordinatu eta, hala badagokio, gauzatu. Honako hauek dira:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren estatistika.
 - Trafiko-istripuen biktimen urtekari estatistikoa.
 - Hauteskundeetako emaitzen estatistika.
3. SIPEko (Poliziaren Sistema Informatikoa) kodetze-sistemaren datu-baseen mantentze-lanak kudeatzen parte hartu.
 4. Segurtasun Sailaren ordezkari gisa parte hartu hainbat organo, instituzio eta erakundetan, bai bileretan, bai informazio iraunkorra mantentzen eta helarazten, estatistika-zientziaren esparruan:
 - Euskal Estatistika Batzordea eta Euskal Estatistika Kontseilua.
 - Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT).
 - Barne Ministerioaren Kriminalitatearen Sistema Estatistikoa (SEC).
 - Informazio Sistemen Taldea (IST), EMAKUNDEk koordinatua.
 - Jokoaren Euskal Behatokia: epaimahaiko kide gisa.
 - Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia.
 - Segurtasun Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa.
 5. Ertzaintzaren webgunean agertzen den delinkuentziari buruzko estatistika-informazioa zabaldu, mantendu eta eguneratu (hiru hilean behin argitaratzen da).

5. UDALTZAINGOAK KOORDINATZEKO ARLOA

Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloaren helburua da EAEko poliziaren eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzen laguntzea, eta, hori betetzeko, EAEko udalerriek segurtasun publikoa lortzeko egiten dituzten ahaleginak batzen dituzten jarduerak antolatu eta egiten ditu, eta polizia-kidegoen egituren, plantillen, bitartekoen eta baliabideen elkarrekiko informazioa, baterako ekintza eta homogeneizazioa sustatzen du; era berean, segurtasunaren arloan informazioa, aholkularitza eta arreta ematen die hala eskatzen duten udalerriei.

Aurten, udaltzaingoen bitarteko agenteen poltsa berri bat eratu da; eta poltsa hori eta Udaltzaingoko laguntzaileen poltsa kudeatu dira. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren baterako seigarren deialdia prestatzen lagundu da.

Arau-eremuari dagokionez, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzaren hitzarmena (Esparru-Hitzarmena) sinatzea bultzatzen jarraitu da, eta, ildo horretan, udaltzaingoa duten EAEko

81 udalerrietatik, sei udalek sinatu dute hitzarmen hori 2024an; zehazki, Abadiñok, Arrigorriagak, Eibarrek, Hondarribiak, Irunek eta Karrantza Haranak. Guztira, 75 udal dira sinatua dutenak. Udaltzaingo-zerbitzua duten udalei dagokionez, Alonsotegik hitzarmena sinatu zuen 2024an.

Tetra Enbor Sarea Hitzarmenari dagokionez, bi udalerrik sinatu dute 2024an, eta, guztira, 74 udalerrri dira sinatua dutenak.

Era berean, pertsonak identifikatzeko lankidetzaren protokoloaren eredu berri bat egin da Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren artean, atxilotuak identifikatzeko eta erreseinatzeko Morphobis sistema hartzen duten udaltzaingoentzat (orain arte 6 dira).

Drogen arloko hitzarmena sinatuta duten udalen droga analisiak egitea kudeatu da. Aurten, Ertzaintzaren Polizia Zientifikoaren Unitateak 332 analisi egin ditu udaltzaingoek atzemandako substantzia ez-zilegien gainean, HSBLO hausteagatik zehapen-prozedura administratibo bat hastea eragin dutenak; horrez gain, udaltzaingoek lortutako listu-laginen 683 analisi egin ditu.

Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloak 34 komunikazio masibo bidali dizkie udaltzaingoei, arau- eta kudeaketa-gaiei buruz. Adierazi behar da aurten hainbat erakunde eta entitateen 30 kontsulta juridikori erantzun zaiela, momentuan telefonoz erantzun zirenak kontuan hartu gabe.

EUDELekin egindako lankidetzaren hitzarmen berri batean ere lan egin da. Hitzarmen hori bi erakundeek sinatuko dute 2025ean, aurreko urteetan eratutako lantaldeei jarraipena eman ahal izateko.

Bestalde, iraganean hasitako "Ezagutza partekatuz" topaketak sustatu dira, gai interesgarriak jorratzeko eta Ertzaintzaren, udaltzaingoaren eta polizia-zerbitzuen artean partekatzeko. Ildo horretan, gai hauek jorratu dira: Datuen eta irudien kudeaketa (2024-04-25), Ekitaldiak eta jaiak (2024-06-13) eta Patruila-lan fokalizatua (2024-11-26).

6 tiro-ikastaro, EBaren bi ikastaro (Etxekoen eta emakumeen BABesa), EBaren bertsio berriaren aldaketei buruzko informazio-ikastaro bat eta Udaltzaingoaren atariari buruzko ikastaro bat antolatu dira, udaltzaingoentzat.

Era berean, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzan aritu gara udaletako bitarteko polizien egonkortze-prozesuen aurreikuspenetan, agente lehenera igotzeko ikastaroan, 2025erako arma laburra duten udalerrietara bideratutako oinarritzko tiro-ikastaroen aurreikuspenean, martxoaren 5eko 24/2024 Dekretuan ezarritakoa betez (24/2024 DEKRETUA, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoaren armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk eta horien guztien hornidura arautzen dituen), eta oraingo 5. hautaketa-prozesurako zein etorkizuneko 6. hautaketa-prozesu bateraturako plazen eta plazak gehitzearen aurreikuspenean.

Azaroaren 27an, Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen bilera egin zen, Segurtasuneko sailburu Bingen Zupiria buru zela. Organo horrek Euskadiko udaltzaingoaren baterako lana aztertzen du.

UDALTZAINGOEN ETA UDALTZAINGO-ZERBITZUEN DATUAK

	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
18-25	3	6	9
26-35	120	359	479
36-45	180	814	994
46-55	177	920	1.097
56-59	29	166	195
60-65	36	310	346
>65	4	39	43
Guztira	549	2.614	3.163

UDALTZAINGOEN ETA UDALTZAINGO-ZERBITZUEN DATUAK

	LANKIDETZA HITZARMENA	LANKIDETZA HITZARMENA 45/2021 EBAZPENA, uztailaren 20koa	TETRA EMBOR SAREA	LISTU-LAGINAK IBILGAILUAK GIDATZEN	LISTU LAGINAK HSBLO	GUZTIRA
2013-ra arte	0		44	0	3	47
2014	0		5	0	1	6
2015	0		5	18	0	23
2016	0		4	3	0	7
2017	0		3	3	0	6
2018	28		3	0	0	31
2019	15		0	0	0	15
2020	13		5	0	0	18
2021		36	2	23	4	65
2022		28	2	1	0	31
2023*		6	3	0	0	9
2024*		7	2	0	0	9
Guztira	56	77	78	48	8	267

* Udaltzaingoen zerbitzuak sartzen dira

BITARTEKO LANGILEAK LAN-POLTSEN BIDEZ IZENDATZEA

2014	83
2015	103
2016	158
2017	256
2018	335
2019	342
2020	340
2021	330
2022	499
2023	467
2024	466

2024: 171 emakume eta 295 gizon; 68 udal eskatzaile (Vitoria-Gasteiz, esaterako, lehen aldiz).

UDALTZAINGOKO LAGUNTZAILEAK
LAN-POLTSEN BIDEZ IZENDATZEA

2020	48
2021	39
2022	23
2023	45
2024	17

2024: 8 emakume eta 9 gizon; 3 udal eskatzaile

HAUTAKETA-PROZESU BATERATUAK ETA BATERAKOAK

- Lehenengo Hautaketa Prozesu Bateratua:

2.179 eskaera: % 76 gizonak eta % 23 emakumeak

12 udal 75 plaza

- Bigarren Hautaketa Prozesu Bateratua:

2.660 eskaera: % 74,44 gizonak eta % 25,56 emakumeak.

26 udal 232 plaza

- Hirugarren Hautaketa Prozesu Bateratua:

3.949 eskaera: % 74,04 gizonak eta % 25,96 emakumeak.

36 udal 306 plaza

- Lehenengo Prozesu Baterakoa (Ertzaintza-Udaltzaingoa):

5.989 eskaera: % 72,69 gizonak eta % 27,31 emakumeak

26 udal 157 plaza

- Bigarren Prozesu Baterakoa (Ertzaintza – Udaltzaingoa):

6.671 eskaera: % 70,31 gizonak eta % 29,38 emakumeak.

18 udal 157 plaza

- Hirugarren Prozesu Baterakoa (Ertzaintza – Udaltzaingoa):

4.568 eskaera: % 69,05 gizonak eta % 30,95 emakumeak.

31 udal 151 plaza

- Laugarren Prozesu Baterakoa (Ertzaintza-Udaltzaingoa):

3.977 eskaera: % 63,79 gizonak eta % 36,2 emakumeak

31 udal 85 + 130 handitze = 215 plaza.

- Bosgarren Prozesu Baterakoa (Ertzaintza-Udaltzaingoa):

3.920 eskaera % 62,9 gizonak dira eta % 37,1 emakumeak

21 udal 55 plaza + 71 handitze = 127 plaza.

- Seigarren Prozesu baterakoa (Ertzaintza – Udaltzaingoa)


22 udal 170 plazarekin. Deialdiaren oinarriak argitaratzeke daude.

ELKARREKIN EGINDAKO HAUTAKETA-PROZESU BATERATUAK

Lehen hautaketa prozesua bateratzailea Bigarren hautaketa prozesua bateratzailea Hirugarren hautaketa prozesua bateratzailea


12 Udal

75 Postu




26 Udal

222 Postu




36 Udal

306 Postu

Lehen hautaketa prozesua
(Ertzaintza-Udaltzaingoa)

28 Udal

157 Postu

Bigarren hautaketa prozesua
(Ertzaintza-Udaltzaingoa)


18 Udal

157 Postu

Hirugarren hautaketa prozesua
(Ertzaintza-Udaltzaingoa)


31 Udal

151 Postu

Laugarren hautaketa prozesua
(Ertzaintza-Udaltzaingoa)

30 Udal

210 Postu

Bostgarren hautaketa prozesua
(Ertzaintza-Udaltzaingoa)

21 Udal

55 plazak eta gehigarriak

ARGITARATZEKO ZAIN




6. EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOKO PLAN OROKORRA (2020-2025): 2024ko EKZ MEMORIA

2021eko martxoaren 16an, Gobernu Kontseiluak Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2020-2025 Plan Orokorra onartu zuen, eta 2021eko apirilaren 26an Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen. Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke 15/2012 Legearen babesean garatutako 2. Segurtasun Plana da, segurtasun publikoaren antolamendu-esparruaren ikuskera integrala definitzen duena eta segurtasunaren helburuak, estrategiak eta jardun-ildoak planifikatzeko beharra azpimarratzen duena.



Horren ondorioz, indarrean dagoen ESPPO 20-25 planak 4 erronka, 12 ildo estrategiko, 53 ekimen eta 169 ekintza ditu, emaitzen eta adierazle-sorta batekin batera:



Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plana gauzatzean, urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea aurreikusten da, bai eta hari lotutako beste plan batzuen jarraipena egitea eta horiek betetzea ere: XII. Legegintzaldian aurkeztutako Gobernu Programak segurtasunaren arloan ezarritako helburu estrategikoak, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH), Euskadi Basque Country2030 Agendan jasotakoak, eta Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Jasangarriko 2021-2025eko Plan Estrategikoa.

Plana gauzatzean, haren urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea aurreikusten da, bai eta hari lotutako beste plan batzuen jarraipena egitea eta horiek betetzea ere: XII. Legegintzaldian aurkeztutako Gobernu Programak segurtasunaren arloan ezarritako helburu estrategikoak, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH), Euskadi Basque Country2030 Agendan jasotakoak, eta Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Jasangarriko 2021-2025eko Plan Estrategikoa.

2024an, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren 2 bilera egin dira. 1.a ekainaren 12an izan zen, orduko lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburu Josu Erkoreka Gervasio buru zela. 2. bilera abenduaren 18an egin zen, Bingen Zupiria Gorostidi egungo Segurtasun sailburua buru zela.

Saio horietan, Euskadiko Segurtasun Publikoaren 2020-2025eko Plan Orokorraren jarraipena eta ebaluazioa egin zen, eta 2024ko delinkuentzia-zifrak aztertu ziren. Gainera, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren aurkako fenomeno meteorologikoen aurrean alerta goiztiarreko gaitasunak aurkeztu ziren.

Jarraian, 2024. urteari dagokion aurrerapen-maila jasotzen da:

2024KO SEIHILEKO TXOSTENA		
AURRERAPEN-MAILA PLANAREN EZARPENEAN		
2024 URTEKO AURRERAPEN-MAILA		AURRERAPEN-MAILA
EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2020-2025	2024 URTEA	%91,36
EUSKADIKO SEGURTASUN PUBLIKOAREN PLAN OROKORRA 2020-2025	ALDI ESTRATEGIKOA	%75,49
GOBERNU PROGRAMA	2020-2024	%92,54
GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEN PLANA	2020-2025	%76,15

Nabarmentzekoa da **ESPPO**ren hedapenak, Segurtasun Sailaren beste plangintza-mekanismo batzuekin batera, **eragin positiboa izan duela 2024an segurtasunarekin lotutako datu kuantitatibo eta kualitatiboen koordinazioan eta kudeaketan:**

- Aldez aurretik onartutako Planaren Gobernantza Sistemari erantzuten dioten jarraipen-txostenak egin dira.
- Legegintzaldiko urte bakoitzean Enplegu Eskaintza Publikoko (EEP) deialdi bat egiteko konpromisoa indartu da, belaunaldi-erreleboa bermatzeko eta Euskal Poliziako plantillak gaztetzeko.
- Kolektibo kalteberen gaineko arriskuen prebentzioa bultzatu da, bai eta muturreko fenomeno meteorologikoen aurreko larrialdi-planak berrikusi eta eguneratzea ere.
- Berrikuntza teknologikoak txertatzen jarraitu da, Segurtasun Sailaren gaitasunak hobetzeko eta profesionaleri laguntzeko.

- Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentziaren sozietate publikoa eratu da, euskal administrazioaren baliabide propio gisa. Horrek aukera emango du meteorologia kaltegarritik eta klima-aldaketatik eratorritako etorkizuneko erronkei berme osoz aurre egiteko.
- Egiaztatu da Segurtasun Sailak zabaldutako makro-dispositiboaren koordinazio operatiborako gaitasuna, kirol-ekitaldi handiak ospatu eta kudeatu egin direlako, hala nola Bilboko Athletic Clubaren Kopako titulua edo Emakumezkoen Txapeldunen Ligako finala.
- Bide-segurtasunaren arloan, 2024ko Jarduera Plana nabarmentzen da, sentsibilizazio-eta prestakuntza-programak barne, hiri-inguruneetan eta hiriartekoetan autobabeserako tresnak eskainiz.
- Joko eta ikuskizunei dagokienez, 100.000 euroko dirulaguntza eman da joko patologikoa prebenitzeko eta joko arduratsua sustatzen duten programetarako.
- Larrialdiei eta Meteorologiari dagokienez, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak Meteorologia-fenomeno kaltegarriak iragartzeko, segimendua egiteko eta esku-hartzeko protokoloa eguneratu du.
- Segurtasuneko kanpo-lankidetzari dagokionez, Ertzaintzaren presentzia gradualki areagotzen ari da Europolen eta Interpolen informazioa eta esperientziak trukatzeko lantaldeetan: Europoleko Adituen Plataformako 4 taldetan parte hartzen du, eta SIENA-Europol prestakuntza-bileretan parte hartu du, besteak beste. Gainera, 2024an EMPACTen (European Multidisciplinary Platform Against Criminal Threats) proiektuei buruzko 2 bileretara joan da.
- Eskumen-eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordeak, Ertzaintzak Euskadiko portu eta aireportuetan egiten dituen lanen eskumenak zehaztea erabaki du, ur-lamina barne. Halaber, Ertzaintzak bere gain hartuko du Bilboko portuko azpiegitura kritikoetan laguntza operatiboa emateko planen polizia-erantzukizuna, portua bera eta eremu mugatua barne.
- Gainera, indarkeria matxistaren eta etxeko indarkeriaren biktimen babesa eta arreta hobetzeko, Segurtasun Sailaren EBA Proiektua eta Barne Ministerioaren VIOGEN-2 sistemak konektatu dira. Sistema horiek aukera ematen dute emakumeen aurkako indarkeriaren espedienteak modu integralean kudeatzeko, arrisku-ebaluazioak homologatzeko, babes egokia ezartzeko eta babesteko agindu judizialak kudeatzeko.

Azkenik, Segurtasun Sailak Euskadiko **segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzien arteko koordinazioan eta lankidetzan egiten duen lana azpimarratu behar da. Ildo horretan, Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia (Cyberzaintza)** eratuta, Segurtasun Sailak lanean jarraitu du azpiegitura kritiko eta sentikorrak babesteko, Euskadiko zibersegurtasun publikoa zainduz. Zehazki, **Zibersegurtasunaren Euskal Agentziaren Aholku Batzordea eratu da, estatutuak onartu dira eta Zibersegurtasunaren Euskal Estrategia berria eratu da.**

7. ESTATUAREKIKO HARREMANAK

Koordinazio Zuzendaritzak ordezkartza du Segurtasun Batzordean adostutako polizia-koordinazioarako ereduaren maila politikoan, estrategikoan eta operazionalan.

Uztailaren 24an, Bingen Zupiria Segurtasuneko sailburua eta Fernando Grande-Marlaska Barne ministroa izan dira buru, Madrilen, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Batzordearen bileran. Batzorde hori da segurtasun gaietan bi administrazioen arteko koordinazioarako organo gorena. Segurtasuneko bi arduradunen arteko lehen bilera izan da, Zupiria Segurtasuneko sailburu izendatu zutenetik.

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Euskadiko portu eta aireportuen eskumenak zedarritzea erabaki dute. Hala, Ertzaintzaren polizia-lanak aireportu eta portuetako zerbitzu-eremura ere hedatuko dira, ur-lamina barne. Ertzaintzak bere gain hartuko du, halaber, Bilboko Portuko azpiegitura kritikoetarako laguntza operatiboko planen polizia-erantzukizuna, portua bera eta haren eremu mugatua barne.

Era berean, genero-indarkeriaren aurkako borrokaren eremuan lankidetzat indartzea erabaki zen, Barne Ministerioaren VIOGEN-2 eta Segurtasun Sailaren EBA (Emakumeen eta Etxekoen Babesa) sistemen arteko interkonektibitatearekin. Bi sistemen arteko koordinazioak indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeen babesa indartzen du, eta Estatuan mugikortasun segurua izatea errazten du.

Akordio horiez gain, Ertzaintzak Giza Eskubideak Bermatzeko Bulego Nazionalaren jardueran parte har dezan sustatu da. Polizia-kidegoek tratatu txarren aurkako estatuko eta nazioarteko arauak betetzen dituztela zaintzeko ardura duen organoa da, pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzen direla bermatzeko.




8. LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA


Euskadiko erakundeak eta enpresak, pertsonak bezala, informazioaren teknologiaren mende dau-
de nolabait, funtsezko tresna baitira beren negozio-helburuak lortzeko edo funtsezko jarduerak
garatu ahal izateko. Ildo horretan, azpiegituren aurkako eraso fisikoetatik edo logikoetatik era-
torritako edozein ondoriok eragin negatiboa izan dezake funtsezko zerbitzuen funtzionamendu
egokian, eta horrek eragina izan dezake gizartearen segurtasunean.



Egoera horren aurrean, eta 2020-2025 aldirako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorraren barruan behar bezala kokatuta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Euskadiko **Azpiegitura Sentikorrak Kudeatzeko Segurtasuneko Plan Zuzentzaile** bat garatu du, bai eta lantalde bat ere, planak garatzeko: Plan Estrategiko Sektoriala, Segurtasun Korporatiboko Plana, Azpiegituraren Ebaluazio Plana eta Laguntza Integraleko Plana (segurtasun fisikoko laguntza- eta prebentzio-plan batek eta duela gutxi sartutako Zibersegurtasuneko Laguntza Plan batek osatua).

Plan horien helburu nagusia da zenbait neurri ezartzea sentikor gisa kategorizatutako operadoreen azpiegitura identifikatuak babesteko, haien funtzionamendua funtsezkoa baita Euskadirentzat.






Zerbitzu bat sentikortzat jotzen da haren jarduna beharrezkoa denean herritarren oinarri-zko funtzio sozialei, osasunari, segurtasunari, ongizate sozial eta ekonomikoari edo Euskadiko erakundeen eta haien administrazio publikoen funtzionamendu eraginkorrari eusteko. Zerbitzu sentikor horiek 12 sektore hauetan sailkatuta daude:



PISE osatzen duten planen aurrerapen-egoera honako hau da:



9. IDAZKARITZA NAGUSIA

Ertzaintzaren Idazkaritza Nagusiak laguntza ematen dio Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari, hainbat eginkizun betetzeko:

- Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziak toki publikoetan bideokamerak erabiltzeko baimena ematea.
- Ertzaintzaren, udaltzaingoen, polizia-laguntzaileen, mugikortasun-agenteen eta agualzilen akreditazio profesionalak.
- HSBLO txostenak kudeatzea eta izapidetzea.

Informazio Polizialeko Sistemaren datuak babesteko ordezkaria Segurtasun Sailburuordetza-ri atxikitzen zaio. Sailburuordetza horrek autonomia hierarkiko eta funtzional osoz betetzen ditu bere eginkizunak, eta Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroaren (EPDPZ) barruan dago. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauak (arau-hauste penalak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko esparruan datu pertsonalak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa, Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia indargabetzen duena) eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoak (helburu horietarako tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa) arautzen dute haren jardura.

DATU PERTSONALAK BABESTEAREN ARLOAN JARRAITUTAKO PROZEDURA ETA PROZESUEKIN LOTUTAKO DATUAK

Eskubideak baliatzean izapidetutako espedienteak (datuak eskuratzea, zuzentzea, eza-batzea eta tratatzea)	773
Polizia-fitxategietako informazioa ziurtatzeko eskaerak izapidetzea	110
Interesdunei polizia-aurrekarien ziurtagiriak egitea	88
Pertsonei eta beren polizia-aurrekariei buruzko ziurtagiriak egitea, armen/lehergailuen lizentzia berritzeko/emateko. (Eskaerak/pertsonak)	215/8.900
Langileak aireportuetako Segurtasuneko Eremu Mugatuetara sartzeko egokiak diren jakiteko ebaluazioa egitea. (Eskaerak/pertsonak)	242/6261
Kanpoko pertsonak polizia-zentroetara sartzeko baimenak ematea (Eskaerak/pertsonak)	1.876/5.549
Irudien edo soinuaren grabaketen eskaerak izapidetzea	501
Profil informatikoa edukitzeko eskaerak eta horien esleipenak izapidetzea	2.959
Polizia-erabiltzaileen pasahitzak kontrolatzea eta kudeatzea	2.383
Poliziaren Informazio Sistemarako sarbideak arakatzea	6

POLIZIA-AKREDITAZIOAK

Ertzaintzako akreditazio profesionalak igortzea	2.026
Udaltzaingoaren akreditazio profesionalak igortzea	571
Ertzaintzako erretiratuen txartela izapidetzea	465
Udaltzaingoetako erretiratuen txartela izapidetzea	136

BIDEOZAINZAREKIN LOTUTAKO JARDUERAREN GAINEKO DATUAK

Bideozaintzako instalazio finkoen espedienteak	127
Bideozaintzako instalazio finkoen espedienteen analisisa-izapidetzea	99
Segurtasuneko Sailburuordearen ebazpenak	171
Instalazioen eta sistemen aktak eta txosten fotografikoak egitea	390

3. TRAFIKOA

1.-MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA

2.- 2024KO EZBEHAR-TASA

3.- 2024KO EKINTZAK

4.-PROZEDURA ADMINISTRATIBOA

1. MUGIKORTASUNAREN BILAKAERA

Mugikortasuna, oro har, 2024. urtean 2023an baino handiagoa izan da. Azpimarratu behar da Euskadiko hiru hiriburuetakoko sarbideetan erregistratutako trafiko-fluxuen bilakaera ez dela ibilbide luzeko edota mugaz gaindiko trafiko-fluxuarena bezalakoa izan. 2024. urtean hiriburuetakoko sarbideetakoko fluxuak 2023an baino ia %2 gehiago izan dira.

Ibilbide luzeko joan-etorriak eta mugaz gaindikoak 2024an, batez beste, 2023an baino %6,1 gehiago eta %6,8 gehiago izan dira, hurrenez hurren. Hiriburuetakoko sarbideetakoko trafikoaren hazkunde-erritmoa pandemiaren aurreko erritmoaren antzekoa izan da; ibilbide luzeko eta nazioarteko trafikoaren hazkunde-erritmoa, ordea, urtetik urtera handitzen joan da. Hori dela eta, nabarmendu behar da Euskadiko bide-sare nagusian gero eta ibilgailu astun gehiagok zirkulatzen dutela.

2. 2024KO EZBEHAR-TASAREN BALANTZEA

2024. urtean Ertzaintzak Euskadiko errepideetan 7.655 trafiko-istripu erregistratu ditu. Horietatik 2.484 istriputan biktimak egon dira eta 5.171 istriputan ez da biktimarik egon. 2024. urteko behin-behineko kopuruak eta 2023. urtekoak alderatuta, ikusten da 2024. urtean istripuak aurreko urtean baino %2 gutxiago izan direla. 2023. urtearen aldean, hildakoak %16 gutxiago izan dira eta larri zaurituak %1 gehiago.

2024KO TRAFIKO-ISTRIPUAK				
	2021	2022	2023	2024*
2024KO TRAFIKO-ISTRIPUAK	7.491	7.642	7.942	7.655
Biktimak eragin dituzten istripuak:	2.420	2.391	2.591	2.484
Biktimarik gabeko istripuak:	5.071	5.251	5.351	5.171
INPLIKATUTAKO IBILGAILUAK	13.342	13.910	14.096	13.548
INPLIKATUTAKO PERTSONAK**	14.271	14.640	15.424	14.916
Hildakoak	36	34	38	32
Zauritu larriak	293	291	320	324
Zauritu arinak	2.985	2.968	3.301	3.124

*(Behin-behineko datuak, 2025/01/15ean)

**Zauririk gabeko pertsonak ere horren barruan daude

Istripu-tasaren tipologia

Hildakoen %65 gidariak izan dira, %19 bi gurutetik gorako ibilgailuen bidaiariak eta gainerako %16a oinezkoak (horietako bat motozikleta batek harrapatu zuen).

Hildako guztietatik %76 gizonak izan dira eta gainerako %24a emakumeak.

Hildakoen portzentajea adinaren arabera:


Hildako gidarien %54k 45 eta 64 urte bitartean zituzten; %33k 14 eta 44 urte bitartean; eta gainerako %13ak 64 urtetik gora.

Hildako bidaiarien %43k 25 eta 44 urte bitartean zituzten; %29k 14 eta 24 urte bitartean; %14k 45 eta 64 urte bitartean; eta gainerako %14ak 65 urtetik gora.

Oinezkoen %66k 65 urte edo gehiago zituzten; %17k 25 eta 44 urte bitartean; eta gainerako %17ak 14 urtetik behera.

Kolektibo kaltebera


Trafiko-istripuetan hildako guztien %57 kolektibo kalteberetakoak ziren. %71 motor-gidariak izan dira eta gainerako %29 oinezkoak.



	2019	2020	2021	2022	2023	2024	DIF. 2024*-2023	
							Z	%
Txirrindulariak	1	2	2	1	2	0	-2	%-100
Motorzaleak	16	9	17	14	11	15	4	%36,4
Oinezkoak	13	6	1	15	8	6	-2	%-25,0
Gainerakoak	21	21	22	14	23	16	-7	%-30,4
	51	38	42	44	44	37		
Kalteberak	30	17	20	30	21	21		
Kalteberak Guztira	%59	%45	%48	%68	%48	%57		

Motor-gidariak

2024an motorrez hil diren hamabost pertsonetatik 12 gizonezkoak ziren eta 3 emakumeak. 2017tik aurrera motorrez hil diren zortzi emakumeetatik bost gidariak ziren eta hiru motozikletako bidaia-riak; horiek dira kolektibo horretan azken 8 urteetan gertatutako heriotzen %8.



3. 2024KO EKINTZAK

3.1 Bide-heziketa eta -prestakuntza

'Gerta dakizuke' programa

- Saioen kopurua: 235
- Parte-hartzaileen kopurua: 10.459

'Don't be dummy! programa Zuk ez duzu ordezkorik'

- Saioen kopurua: 29
- Parte-hartzaileen kopurua: 8.133

'Norabide aldaketa' antzerki-forum programa.

- Saioen kopurua: 19
- Parte-hartzaileen kopurua: 493

Helduen Hezkuntzako (HHE) ikasleentzako 'Atzera bueltarik ez' antzerki forum programa

- Saioen kopurua: 9
- Parte-hartzaileen kopurua: 255

Ikasgelan bide-arriskuen prebentzioari buruzko ikastaroak

- Ikastaroen kopurua: 2
- Parte-hartzaileen kopurua: 28

Udaltzaintzako prestakuntza-ikastaroa

- Ikastaroen kopurua: 1
- Parte-hartzaileen kopurua: 11

'Komunikazioaren bidezko prebentzioa' programan parte hartzen duten ertzaintzako ikastaroa

- Ikastaroen kopurua: 12
- Parte-hartzaileen kopurua: 19

Motozikletak seguru gidatzeko ikastaroak

- Ikastaroen kopurua: 4
- Parte-hartzaileen kopurua: 100

Errepideko prestakuntzaren proba pilotua

- Ekintza kopurua: 1
- Parte-hartzaileen kopurua: 29

Adinekoentzako sentsibilizazio-programa

- Ekintza kopurua: 16
- Parte-hartzaileen kopurua: 4.307

Bilbao-Bilbao nazioarteko martxa zikloturistarekin kolaboratu da

- Hiru mezu-bidalketa 40.000 pertsonari bide-segurtasunari buruzko mezuak bidaltzeko
- Trafikoko zuzendaria 2024ko martxoaren 17an egindako martxaren hasieran egon da

Sentsibilizazio-programa espetxeen eremuan

- Ekintza kopurua: 1
- Parte-hartzaileen kopurua: 7

Bide-segurtasuna lan-eremuan

- Ikastaroen kopurua: 3
- Parte-hartzaileen kopurua: 45

Eskolako agenda 2024-2025

- Aleen kopurua: 72.000

Bide-segurtasunari buruzko aholkuak emateko materiala

Bide-segurtasunari buruzko aholkuak emateko animazioak prestatu dira, testuinguru ez-formaletan mugikortasun segururako hezkuntzaren baloreak sustatzeko.

Baimenak

Euskadin 24 bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-zentrori baimena eman zaie, gidabaimena bera edo gidabaimeneko puntuak berreskuratzeke ikastaroak emateko.

Gidabaimena eta gidabaimeneko puntuak berreskuratzeke bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaroak kudeatzea.

- Egindako ikastaroak: 431
- Ikastaroa egin duten pertsonen kopurua: 4.653

3.2 Bide-Segurtasunari eta Mugikortasun Seguruari eta Iraunkorrari buruzko topaketak

TRAFIKO-ISTRIPUETAN PERTSONEI ERAGINDAKO KALTEEN ETA GALEREN BALORAZIO SISTEMAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Martxoaren 11, Madril

Trafiko Zuzendaritzak Balorazio Sistemaren Jarraipen Batzordean parte hartu zuen. Batzorde horren zereginetako bat da trafiko-istripuetan pertsonen eragindako kalteen eta galeren balorazio-sistemari jarraipena egitea; eta horretarako, bereziki aztertzea sistema horren abiaraztea, horren ondorio juridiko eta ekonomikoak eta ezarritako eguneratze-sistema.

MOTORREAN BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONGRESUA

Martxoaren 20a eta 21a, Zaragoza

DGTk eta ANESDORrek sustatutako ekimen horretan nazioarteko hainbat profesional, teknikari eta erakunde elkartu ziren, berariaz motorrean bide-segurtasuna hobetzea bilatzen duten esperientziak partekatzeko, politikez eztabaidatzeko eta ekintza estrategikoak bultzatzeko.

MOTOZIKLETAK GT-52 LANTALDEA

Uztailaren 17a, Madril

Trafiko Zuzendaritzaren lantalde horretan motor-gidariak bide-sarean duten ezbehar-tasaren bilakaera eta Bide Segurtasunaren 2030 Estrategia aztertu ziren, baita istripuak prebenitzeko martxan jartzen ari diren jarduerak ere.

BIDEKO EKIPAMENDUARI BURUZKO XIV. JARDUNALDIA

Irailaren 18a, Madril

Errepideen Elkartek Teknikoak eta AFASEMETRAk antolatutako jardunaldi hori sortu zen errepide nazionalen zein europarretan bideko ekipamenduak hobetzeko eta bideko arauak eguneratzeko beharra zegoelako teknologia berriekin bat etorriz.

JAR ZAITEZ NIRE GURPILETAN

Irailaren 14a eta 15a, Vitoria-Gasteiz

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak antolatzen dituen motozikletak seguru gidatzeko ikastaroak dira. Doakoak dira eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian ematen dira motor-gidarien gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko helburuarekin, horri esker istripuak prebenitzeko.

AUTOESKOLEN NAZIOARTEKO KONBENTZIOA

Azaroaren 8a eta 9a, Avila

Estibaliz Olabarri Trafikoko zuzendariak administrazio publikoek bideko ezbehar-tasa murrizteko duten zereginari buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen, beste hauekin batera: Enrique Lorca, CNAEko burua; Ramón Lamiel, Servei Català de Trànsit-eko zuzendaria, eta José Javier Boulandier, Nafarroako Gobernuko Trafikoko zuzendaria.

XXII. MUGIKORTASUNAREN ALDEKO HERRITARREN TOPAKETA

Azaroaren 14a, Bilbao

Trafikoko zuzendariak Real Automóvil Club Vasco Navarrok antolatuta, aurten topaketaren gaia Emisio Txikiko Eremuak izan zen.

MUGIKORTASUN SEGURUAREN ALDEKO TOPAKETA NAZIONALA

Azaroaren 15a, Iruña

Iruñeko Baluartan egin zen topaketa hori eta Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariak administrazio publikoetatik kudeatzen ari diren ekintzei buruzko mahai-inguruan parte hartu zuen. Horretan beste hauek ere parte hartu zuten: Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko, Servei Català de Trànsit-eko eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioko kideak.



TRAFIKO-ISTRIPUETAKO BIKTIMAK OROITZEKO MUNDUKO EGUNA

Azaroaren 17a, Vitoria-Gasteiz

Trafiko-istripuetako biktimak oroitzeko ekitaldia, Euskadiko Bide Indarkeria Stop elkarteak antolatua trafiko-istripuetako Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna zela eta.

ASEPEYOREN 'RUTA 151' UNITATE MUGIKORRA

Azaroaren 19a, Laudio

Asepeyoren 'Ruta 151' unitate mugikorraren aurkezpena. Proiektu honen helburua da laneko ezbehar-tasa murriztea eta eremu horretako enpresa mutualistetan ohitura osasuntsuak ezar daitezela sustatzea, berrikuntzaren eta teknologia berrien bidez.

PROGRAMA EUOPARRETAN PARTE HARTZEA

Trafiko Zuzendaritzak SCALE (Strengthening C-ITS Adoption and Lining-up across Europe) proiektuan laguntzaile gisa parte hartu zuen. Proiektu horren helburu nagusia da European Garraio Sistema Adimendun Kooperatiboak (C-ITS) ezar daitezela sustatzea. Sistema horiek ibilgailuen, azpiegituren eta bideko beste erabiltzaileen artean modu efektiboan komunikatzeko aukera ematen dute eta, horri esker, bide-segurtasuna eta trafikoaren efizientzia hobetu ahal dira eta ingurumen-inpaktua murriztu.

ESPAINIAKO ITS KONGRESUA

Apirilaren 25a, Madril

Trafiko Zuzendaritzak Ifeman (Madril) egindako Espainiako ITS kongresuan hizlari gisa parte hartu zuen. Hitzaldiaren izenburua hau izan zen: "Big Data: Bide Segurtasuna hobetzen laguntzen". Funtsean azaldu zen beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak kontratatutako zerbitzu eta ekipamenduen iturrietako datuak sendoak izatea, baita datu horiek denbora errealean ustiatu ahal izatea ere, garaiz hartutako erabaki batek bizitzak salba ditzakeelako eta ezbehar-tasa murriztu.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO JARDUNALDIA

Azaroaren 19a, Vitoria-Gasteiz

Deustuko Unibertsitatean (Vitoria-Gasteiz), Industria Digitaleko Graduan egindako jardunaldian hizlari gisa parte hartu zen. Hitzaldiaren izenburua hau izan zen: "Big Data: Bide Segurtasuna hobetzen laguntzen". Funtsean azaldu zen beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak kontratatutako zerbitzu eta ekipamenduen iturrietako datuak sendoak izatea, baita datu horiek denbora errealean ustiatu ahal izatea ere; garaiz hartutako erabaki batek bizitzak salba ditzakeelako eta ezbehar-tasa murriztu.

3.3 Jardunaldiak eta topaketak

TRAFIKOKO JARDUNALDIA: "Bide Segurtasuna motorrean: segurtasunez gidatzeko gakoak"

- Lekua: Kursaal (Donostia)
- Eguna: 2024ko azaroaren 6a
- Parte-hartzaileak: 6 hizlari
- Bertaratuak: 128 pertsona (80 aurrez aurre eta 48 streaming bidez)

Trafiko Zuzendaritzaren jardunaldi profesionalaren XI. edizio horretan, motor-gidariak bide-segurtasunaren arloko kolektibo kalteberenetakoak direla kontuan hartuta, motor-gidarien ezbeharrek prebenitzeko eta hildako edo larri zauritu gehiago ez gertatzeko gakoak sakon aztertu ziren. Horretarako, hainbat lekukotza aurkeztu ziren, motor-



gidariena, hasiera-prestakuntza zein hobetze-prestakuntza ematen adituak diren pertsonena, motor fabrikatzaileena eta sektore horretako profesionalena; eta horiek guztiek Euskadin motozikleta seguruago gidatzeko gakoak eman zituzten.

INNOVABIDE SAREKO ENPRESEN V. TOPAKETA

Innovabide Sareak 2024ko abenduaren 12an egin zuen Enpresen V. Topaketa eta horretan irisgarritasunari buruzko zein obra-eremuetan bide-segurtasuna AAre bidez bermatzeko moduari buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatu ziren. Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaia Aretoan (Abandoibarra) egindako ekitaldi horretan, Estibaliz Olabarri Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendariak Innovabide Aitortza 2024 Euskadiko Mugikortasunaren eta Logistikaren Klusterrari eman zion eta Aipamen Berezia Bridgestone enpresari, bide-segurtasunaren arloko bere konpromisoa-gatik eta praktika onengatik.



3.4 Informazioa eta publizitatea

Web – www.trafikoa.euskadi.eus

Batez besteko sarrera kopurua hilean: 94.891

X – [@trafikoejgv](https://twitter.com/trafikoejgv)

Jarraitzaile kopurua: 34.245

Argitalpenen kopurua: 124.437

(Kopuru metatua 2024ko abenduaren 31n)

Youtube – [TrafikoaEJGV](https://www.youtube.com/TrafikoaEJGV)

Bisualizazioak: 80.600

Igotako bideoak 90

Harpidedunak: 68

011

25.018 kontsulari erantzun zaie

36.562 dei Koordinazioan

HEDABIDEAK

2024. urtean, Trafiko Zuzendaritzak 8 prentsaurreko egin ditu, 52 prentsa-ohar atera ditu eta, guztira, hedabideen 58 eskaera izapidetu ditu.

- Prentsaurrekoak: 8
- Prentsa-oharrak: 52
- Hedabideen eskaerak: 58

PUBLIZITATE-KANPAINAK

2024. urtean 'Zero Ikuspegia. Errepidean heriotza bakar bat ez baita onargarria' kanpaina egin da eta udan zabaldu da, uztailaren 1etik irailaren 1era.

3.5 Argitalpenak

TRAFIKO ISTRIPUEN URTEKARI ESTATISTIKOA

2023ko Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa argitaratu da. Horri esker, trafiko-istripuetan eragina izaten duten faktoreei buruzko datuak ezagutzeko, istripu-tasaren arazoaren neurria zehazteko eta biktimak eragiten dituzten trafiko-istripuen inguruabarrak aztertzeiko aukera daukagu. Azken finean, trafiko-istripuen kopurua eta haien larritasun-maila murrizteko xedez, erabakiak hartzen lagunduko digun tresna eraginkorra, fidagarria eta nahitaezkoa da.

3.6 Trafikoaren ikerketa eta Bide-segurtasuna

TRAFIKOARI BURUZKO AZTERLANAK

Bide-segurtasuneko 15 azterlan edo txosten egin edo aztertu dira: Anda (A-3314), Atxondo (BI-4332), Azazeta (A-132), Baranbio (A-2522), Elorrio (N-636), Gamiz-Fika (BI-3102), Hernani (A-15), Ibarrangelu (GI-3234), Ozaeta (A-3012), Lezo (GI-636), Mendaro (N-634), Otazu (A-2130), Soraluze (GI-627), Itziarko tunela (AP-8) eta Zumaia (N-634).

GARRAIO BEREZIAK

Tresna berri bat garatu da, horren bidez, hauexek egin ahal izateko: garraio berezien neurriak eta pisuak kontuan hartuta, garraio berezi horiek egin ditzaketen ibilbideak kalkulatu; bidaiak baimendutako ibilbideetatik egiten diren kontrolatu eta horren jarraipena egin; eta sortzen den informazio guztia ustiatu garraio mota horiek kudeatzeko politikaren barruan erabaki hobeak hartzeari begira.

KUDEAKETA-TRESNAK

GPS datuetan oinarrituta txosten historikoak egiten dituen eta trafikoaren egoera monitorizatzen duen GeoTraffic aplikazioaren prestazioak hobetu dira.

INTENTSITATEAK KALKULATZEKO TRESNA

Aurreko urteetan garatutako intentsitateak kalkulatzeko tresnaren prestazioak hobetu dira; eta horretarako, eredu-kurbak hobetu dira, emaitzak kalkulatzeko eta aurkezteko erabiltzen den datu-base historikoa handitu da, eta istripu-tasari buruzko datu historikoen erregistroko funtzionalitateak aldatu dira.

BIDE SEGURITASUN ARLOKO AZTERLANAK EGITEKO ANALISI-TRESNAK

Road Safety izeneko tresnaren prestazioak hobetu dira. Tresna horrek istripuetan egon ohi diren faktoreak eta kausak aztertzen laguntzen du, bereziki abiadura, kalitate handiagoko bide- segurtasuneko azterlanak lortzeko.

IRUDIAK ELKARTRUKATZEKO TRESNA

Bideoak trafikoko kameretatik AFara bidaltzeko tresna berritu da.

ITS EKIPAMENDU BERRIAK

Lasernan, A-124 errepidean radar-kabina berri bat instalatu da eta A-8an (Malmasin) 2 kabina berri-tu dira. Gainera, ibilgailu astunen ibilbidea kontrolatzeko sistemaren ekipamenduaren berrikuntza teknologikoa egin da. Halaber, errepidean aforoak instalatu dira, lakio magnetikoko aforadoreen ordez radar teknologia erabiltzen duten eta bide-zoruan intrusiboak ez diren aforadoreak jarri dira eta matrikulak irakurtzeko bisio artifizialeko kamerak instalatu dira trafiko arloko ikerketak eta azterlanak egiteko.

PREBENTZIOA

Ugaldebieta, urriaren 16a

ITSen mantentze-lanetarako azpikontratetako operarioentzat, urteko homologazio-prestakuntza egin da, obren seinaleztapen mugikorrerako prozedurari buruzkoa, arrisku-egoerak kudeatzeko balio duten ezagutzak helaraziz neurri seguruak irakasteko eta horien inguruan kontzientziatzeko helburuarekin.

3.7 Trafikoaren kudeaketa eta kontrola

TRAFIKOAREN ZAINZA- ETA KONTROL-KANPAINAK

Trafiko Zuzendaritzak otsailaren 1ean trafikoaren zaintza- eta kontrol-kanpainen egutegia aurkeztu zuen eta Ertzaintzak 2024. urtean zehar gauzatu du Udaltzaingoekin koordinatuta. 2024an 45 kanpaina planifikatu dira Euskadin istripu larriak eragiten dituzten arrisku-jokabide nagusiak prebenitzeko helburuarekin; motor-gidarien kolektiboan arreta berezia jarri da eta gidatzean gerta daitezkeen distrakzioen gaineko zaintza handitu da, bereziki, telefono mugikorraren erabileraren gainekoa. Abiadura-kontrolak eta alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko kontrolak egiten jarraitu da. Eta, berrikuntza gisa, aurten, Udako, Aste Santuko eta abenduko zubiko irteera-eta itzule-ra-operazioak direla eta, Ertzaintzaren Trafikoko Unitateek burutzen dituzten trafikoa antolatze-ko operazio berezien batzordea ere sartu da.

NEGUKO BIDEZAINZA PLANA

2024an 5 aldiz aktibatu da Neguko Bidezaintza Plana, jarraipen- eta informazio-fasean (elur-kota 1000 metrotik behera eta prezipitazio handiak). Aldi horietan, behin igaro da fase operatibora, prezipitazio handiekin batera, elur-kota 700 m-tik behera jaisteagatik.

Baliabide hauek mobilizatu ziren: Foru Aldundien/Autobideen elurra kentzeko makinak (215), Trafiko Zuzendaritzaren garabi astunak (7) eta Bide Koordinaziorako Postuak (patruila bakoitzean ertzain bat eta Errepideen Kontserbaziorako teknikari bat, biek batera bideko sarearen egoera aztertze-ko misioarekin, hiru Lurralde Historikoetan).

TRAFIKOKO OPERAZIO BEREZIAK

Udako irteera-operazioan, uztaileko azken asteburuan eta abuztuko lehenengoan (uztailaren 26tik 28ra eta abuztuaren 2tik 4ra) seinaleztatzeko ohiko operazioak burutu ziren, nazioarteko trafikoaren arintasuna bermatzeko. Seinaleztatze horiek AP-1/N-622 lotunean (Etxebarri-Ibiñan) eta N-622/A-1 lotunean (Vitoria-Gasteizen) Madril-Burgos noranzkoan egin ziren. Aurretik, ekainaren hasieran, aldi baterako, bide-sare nagusiko puntu estrategikoetan, Portugal/Marokora joateko nazioarteko trafikorako AP-8/AP-1/N-622/A-1 ibilbideari buruzko informazioa-kartelak jarri ziren, baita ibilbidearen barruko erregai-hornikuntzarako eremu hurbilenei buruzko informazio-kartelak ere. Bi kartel mota horiek irailaren erdialdean kendu ziren.

Horretaz aparte, udako itzulera-operazioan, Armiñongo lotunean seinale-operatiboak egin ziren egun hauetan: abuztuaren 22tik 25era eta abuztuaren 29tik irailaren 1era (lehengo AP-1eko irteeraren eta A-1aren arteko lotunea, Vitoria-Gasteizko noranzkoan). Operatibo bera burutu zen Pazko Astelehenean (apirilaren 1a), Aste Santuko Itzulera Operazioagatik.

4. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

Zehapen-espedienteak eta baimenak

- Trafikoko araudiaren aurkako arau-hausteen ondoriozko zehapen-espediente amaituak: 284.896
- Atzerriko matrikula duten eta (geldiarazi gabe) ibilgailuen abiaduragatik arau-hausteen ondoriozko zehapen-espediente amaituak: 39.559
- Ezaugarri teknikoengatik edo garraiatzen duten zama banaezinagatik arauz ezarritako gehieneko masak eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuei baimen bereziak: 7.200
- Osaera euromodularreko ibilgailuei (EMS) baimenak: 639
- Gidarien eskola partikularrei, horien langileei eta ibilgailuei dagokienean, ibilgailuen alta-, baja- eta aldaketa-espedienteen kop.: 344
- Lokalen eta ibilgailuen ikuskapenak: 138
- Zirkulazio-baimen bereziak zirkulazio-murrizketak dauden datetan: 283
- Obrei eta beste ekitaldi batzuei buruzko jarraibideak: 5.594

Kirol-probak

Trafiko Zuzendaritzak EAEko hiriarteko bideetatik guztiz edo zati batean igarotzen diren lasterke-ta, lehiaketa, txapelketa eta, oro har, kirol-probak baimentzen ditu eta horiei buruzko informazioa ematen du.

- Trafiko Zuzendaritzak emandako baimenak: 270
- Trafiko Zuzendaritzak tramitatutako eta DGTk baimendu beharreko espedienteak: 31

EAEn egindako kirol-probetan baliabide hauek mobilizatu dira (Ertzaintzaren laguntzari buruzko datuak):

- Agenteak: 2.536
- Autoak: 402
- Motoak: 1.739

Bide Segurtasun Batzordea

- Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilera (2024/03/06)
- Osoko Bilkuraren ez-ohiko bilera (2024/03/06).

Instrukzioak

- 1/2024 Instrukzioa, 8/2016 Instrukzioan jasotako konfigurazio euromodularreko taldeei zirkulazio-baimen berezia emateko parametroak aldatzekoa.
- 2/2024 Instrukzioa, 2024 urteko trafikorearen zaintza- eta kontrol-kanpainak.
- 3/2024 Instrukzioa, gaztelaniaz idatzita dauden atzerriko baimenekin gidatzeagatik salaketa jartzea eta ibilgetzea bidezkoa den ala ez, baldin eta gidabaimena ematen duen herriarekin hitzarmenik ez badago.
- 4/2024 Instrukzioa, arriskuaz ohartarazteko triangeluak erabiltzeko betebeharretik salbuesten duena, baldin eta ibilgailua, istripu baten edo matxura baten ondorioz, autobide edo autobia batean ibilgetuta badago.

Ebazpenak

- 2024ko otsailaren 20ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko dena.
- 2024ko ekainaren 13ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko bi gailu instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikorearen kontrol, erregulazio, zaintza eta diziiplina helburu.
- 2024ko uztailaren 8ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko gailuak, zinemometroen osagarri, instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikorearen kontrol, erregulazio, zaintza eta diziiplina helburu.
- 2024ko irailaren 17ko Ebazpena, Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko zuzendariarena, 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzeko den Trafikoko zuzendariaren 2024ko otsailaren 20ko Ebazpenaren V. eranskina aldatzen duena; Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarean Gipuzkoako lurraldeko bide-tarte gehiago sartzeko.
- 2024ko irailaren 26ko Ebazpena, Trafikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko gailuak, zinemometroen osagarri, instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikorearen kontrol, erregulazio, zaintza eta diziiplina helburu.

- Urriaren 17ko 1295/2003 EDko (Gidari Eskola Partikularrak arautzen dituen Erregelamendua) arau-hausteen kodifikazioa.
- Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko urriaren 30eko 6/2015 LegED-en barruko IX. eranskineko (Bideko Sentsibilizazio- eta Berreziketa-Zentroak) arau-hausteen kodifikazioa.

Zehapen-eskumenak bere gain hartzea

Trafiko Zuzendaritzak trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan zehatzeko eskumena bere gain hartu du udal hauetako hiri barruko bideetan egiten diren arau-hausteei dagokienean:

- Erriberagoitia (2024/02/27)
- Lantziego (2024/04/17)
- Usansolo (2024/05/14)

4. LARRIALDIEI AURRE EGITEA ETA METEOROLOGIA

1. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA
2. PLANIFIKAZIO ZERBITZUA
3. METEOROLOGIA ZERBITZUA
4. BATZORDEAK

1. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA

1.1 SOS DEIAK 112


ESTATISTIKAK

SOS Deiak Euskadiko larrialdiak Koordinatzeko Zentroak 2024. urtean, 112 telefonoaren bitartez, 816.975 dei jaso eta 250.276 gertakari kudeatu zituen.

Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak 2024an hartutako deiak

2024ko DEIAK	
Lurraldea	Deiak
Álava-Araba	124.912
Bizkaia	439.152
Gipuzkoa	252.911
GUZTIRA	816.975

2024an hartutako deiak (Lurraldearen arabera)




2024ko DEIAK HILEZ-HIL														
Lurraldea	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abustua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	GUZTIRA	%
Álava-Araba	10.126	9.240	9.941	9.738	10.155	10.873	11.716	11.298	10.515	10.913	10.004	10.389	124.912	%15,29
Bizkaia	30.800	34.159	34.291	35.098	37.054	37.303	38.753	37.934	37.044	37.606	34.804	38.240	439.152	%53,75
Gipuzkoa	21.041	18.090	20.840	19.431	20.911	22.014	24.175	22.616	21.409	21.114	19.074	20.990	252.911	%30,90
GUZTIRA	68.033	62.095	65.072	64.267	68.120	70.790	74.644	71.848	68.972	69.633	63.882	69.619	816.975	%100
	%8	%8	%8	%8	%8	%9	%9	%9	%8	%9	%8	%9	%100	

Kudeatutako gertakari gehienak honela bana daitezke: larrialdi medikoak (%22,91), bide publikoan arriskuak antzematea (% 17,53), herritarren segurtasuna (%17,40) pertsonen istripuak (%13,23), eta trafiko istripuak (%8,23).

2024an Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko kudeatutako gertakariak

2024ko GERTAKARIAK					
Mota	Álava-Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA 2024	
				GUZTIRA	%
Mendiko istripuak	80	171	157	408	%0,16
Uretako istripuak	9	257	201	467	%0,19
Suteak	1.130	3.131	2.096	6.357	%2,54
Salgai arriskutsuak garraiatzea	51	111	81	243	%0,10
Istritu industrialak	41	68	74	183	%0,07
Trenbideko istripuak	56	247	84	387	%0,15
Abiazio-istripuak	2	3	-	5	%0,00
Hiri inguruneke erreskateak	1.217	2.803	1.783	5.803	%2,32
Gas-gertakariak	87	279	165	531	%0,21
Gertakari kimikoak	4	2	-	6	%0,00
Ur-gertakariak	314	531	275	1.120	%0,45
Presen protokoloak	9	1	1	11	%0,00
Pertsonak ebakuatzea/ostatu ematea	-	-	-	-	%0,00
Arazo elektrikoak	43	110	84	237	%0,09
Trafiko istripuak	4.184	8.803	7.602	20.589	%8,23
Ingurumenaren kutsadura	142	748	354	1.244	%0,50
Mugimendu sismikoak antzematea	1	2	7	10	%0,00
Meteorologia kaltegarriak	88	122	235	445	%0,18
Pertsonen istripuak	5.299	17.294	10.511	33.104	%13,23
Larrialdi medikoak	8.844	31.461	17.045	57.350	%22,91
Bideko arriskuak antzematea	8.514	19.058	16.300	43.872	%17,53
Gertakariak animaliekin	3.414	7.569	3.616	14.599	%5,83
Telealarma programa	1.242	5.888	3.141	10.271	%4,10
Herritarren segurtasuna	7.211	23.138	13.189	43.538	%17,40
Prebentziozkoak	792	1.523	942	3.257	%1,30
Gainerako erregistroak	1.274	3.026	1.939	6.239	%2,49
GUZTIRA	44.048	126.346	79.882	250.276	%100
	%18	%50	%32		

2024an kudeatutako gertakariak (Lurraldearen arabera)



2024ko GERTAKARIAK HILEZ-HIL														
Lurraldea	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abustua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	GUZTIRA	%
TOTAL	21.012	20.040	19.432	18.897	20.749	20.530	21.828	20.994	20.031	23.100	20.735	22.928	250.276	%100
	%8	%8	%8	%8	%8	%8	%9	%8	%8	%9	%8	%9	%100	

Era berean, SOS Deiak **APP**-a aldi horretan **107.033** aldiz deskargatu zen eta, horren bidez, **851** gertakari kudeatu ziren; eCall sistemak **3.252** larrialdi-dei sortu zituen eta horietako **589** izan ziren gertakari errealengatik.

LARRIALDIETAKO MEREZIMENDUAREN DOMINAK

2024ko otsailaren 17n, Eusko Jaurlaritzak merezimenduak aitortu zizkien aurreko urtean babes zibilararen arloan merezimenduzko egintzak edo gizarte-lan solidarioa burutu zituzten pertsona eta erakundeei.

Egun horretan, Eusko Jaurlaritzak Larrialdien eta Babes Zibilararen arloko bereizgarri berdedun 13 domina banatu zizkien eta plaka-diploma 1 iaz gizarte-lan solidarioa burutu zituzten pertsona eta erakundeei. Ekitaldi horretan, Babes Zibilararen arloko boluntarioei egindako lana aitortu zitzaizen, 2023.urtean zerbitzuan 10 eta 25 urte bete zituzten horiei, hain zuzen, 35 akreditazio-diploma banatu baitzizkieten.

KANPAINAK

2024ko ekainaren 21ean Eusko Jaurlaritzak sei urtetik gorako umeei zuzendutako kanpaina bat jarri zuen martxan, larrialdi egoeretan 112 telefonoa nola erabili behar den irakasteko.

LEHENDAKARIAREN BISITA

Imanol Pradales lehendakaria, harekin batera Bingen Zupiria Segurtasuneko sailburua, Ricardo Ituarte Segurtasuneko sailburuordea eta Joana Egiluz Babes Zibileko sailburuordea zeudela, azaroaren 14an SOS Deiak-Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren instalazioak bisitatu zituen.



ZABALKUNDEA

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) bi kontu dauzka X sare sozialean: @112_SOSDeiak eta @Euskalmet. SOSDeiak-i dagokionez, hauek izan dira 2024 urteko datuak:

@112_SOSDeiak

Jarritako txioak: 1.573

Jarraitzaile kopurua: 42.320

APP-aren deskargak: 107.033

Hedabide tradizionalei dagokionez, LAEMZek 2024an datu hauek izan zituen:

- Elkarrizketak prentsan: 44
- Elkarrizketak irratan: 134
- Elkarrizketak telebistan: 64
- Prentsa-oharrak: 79

JARDUNALDIAK ETA TOPAKETAK

Apirilaren 24tik 26ra bitartean, Valentzian EENA-k (European Emergency Number Association/Larrialdi Zenbakiaren Europako Elkarteak) antolatutako EENA Conference & Exhibition 2024 hitzaldia egin zen.

2024ko urriaren 14an Madrilgo Babes Zibileko Eskola Nazionalan bilera hau egin zen: "Larrialdien arloko komunikazioak desgaitasuna daukaten pertsonentzat"

Azaroaren 27tik 29ra bitartean Extremadurako Merida Udalerrian, Estatuko 112 Zentroetako zuzendarien eta arduradunen XXX Foro Nazionala egin zen.



PROIEKTU EUROPARRAK

2024. urtean zehar, LAEMZek parte hartu zuen EENA-k (European Emergency Number Association/Larrialdi Zenbakiaren Europako Elkarteak) lideratzen duen Larrialdi Deien Transkripzio Proiektuan. Horren helburua da larrialdiaren eraginpeko pertsonen ahozko komunikazioak 112 zentroetako operadoreen pantailetan idatziz ere agertzea.

1.2 Esku-hartze zerbitzua

SIMULAZIOAK

2024an, LAEMZek hainbat simulaziotan parte hartu du, besteak beste, EAEko larrialdi kimikoetarako sirenen sarea aktibatzeneko ohiko jarduketetan, AVEQ-KIMIKA Euskadiko Enpresa Kimikoen Elkartearekin lankidetzan. Horietaz gain, Zuzendaritza honek hauetan ere parte hartu du:

Apirilaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako eta Arabako eta Bizkaiko foru aldundietako larrialdi-zerbitzuek, Nafarroako eta Errioxako ekipoekin batera, Arabako Laguardia inguruan egindako mugaz gaindiko baso-sute simulazio bat arrakastaz burutu zuten.

Ekainaren 25ean, Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia lankidetzan aritu ziren urtero Bakioko hondartzan egiten den simulazioan. Horren helburua zen zerbitzuen arteko koordinazioa aztertzea lurralde horretako areatzetan gerta daitezkeen larrialdiei aurre egiteko.



Ekainaren 26an, Euskadiko larrialdietako ekipoek Bilboko aireportuan aire-istripu baten simulazioan parte hartu zuten. Aenak antolatu zuen jarduketa eta bi helburu izan zituen: Organismo horren Larrialdi Planean aurreikusitako jarduketa- eta koordinazio-prozedurak ebaluatzea, eta horrelako larrialdiei aurre egiteko inplikatzaren diren kolektiboen ezagutza- eta integrazio-maila aztertzea. Azaroaren 19an beste simulazio aeronautiko bat egin zen, Hondarribiko aireportuan.

60 aditu inguruk, besteak beste, Euskal Espeleo Laguntza Elkarteko eta Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko baliabideek, Nafarroako Boskete (Larra-Belagua) osinean erreskate baten simulazioan parte hartu zuten urriaren 5eko 09:00ak eta hurrengo eguneko 07:00ak bitartean.

Euskadiko ordezkarienez gain, Nafarroako Espeleo Laguntzako adituek eta Nafarroako Suhiltzaileen Erreskate Teknikoko Taldeak ere parte hartu zuten, baita Frantziako adituek eta Gurutze Gorriko langileek ere.

BASO SUTEAK ITZALTZEKO HELIKOPTEROA

Abuztuaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek hitzarmen bat sinatu zuten, elkarrekin baso-suteak itzaltzeko helikoptero bat finantzatzeko. Erakunde arteko akordio horren eragile nagusia izan da aldaketa klimatikoa Euskadin gero eta eragin handiagoa izaten ari dela eta, horren ondorioz, fenomeno meteorologiko kaltegarriekin lotutako gertakariak ere gero eta maizago gertatzen ari direla.

Ekitaldian Bingen Zupiria Segurtasuneko sailburuak, Jone Berriozabalek, orduan Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako foru diputatua zenak, Arantza Atutxa Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritzaren saileko diputatuak, eta Xabier Arruti Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko diputatuak parte hartu zuten.

Gogorarazi behar da Gobernu Kontseiluak 2024ko otsailean onartu zuela erakunde arteko lankidetzeta-hitzarmen hori sinatzea. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak 1,2 milioi euroko aurrekontu-partida bat onartu zuen (891.000 € errentamendurako eta 330.000 gehienez 240 hegaldi ordutarako), zerbitzu hori errentamendu erregimenean kontratatzeko.

Erakunde guztien arteko finantzazioa portzentaje hauen arabera egin zen:

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila: % 17,50

Arabako Foru Aldundia: % 22,32

Bizkaiko Foru Aldundia: % 32,66

Gipuzkoako Foru Aldundia: % 27,52



GERTAKARI AIPAGARRIAK

2024an 1.104 gertakari eragin zuten LAEMZko Esku Hartze Zerbitzuko guardiako teknikariak (BZ) aktibatzea. Gertakari aipagarrienak, horietan zuzenean parte hartu baitzuten, hauek izan ziren:

Urtarrilaren 25ean Getarian pertsonen bilaketa eta erreskatea aktibatu zen, Zumaiaiko portutik irten zen itsasontzi bat irauli baitzen. Gertakari horretan 2 gizon erreskatatu zituzten eta bat hil zen.

Maiatzaren 9an, Bilboko Alde Zaharrean birgaitze-obrak egiten ari ziren eraiki baten zati bat eraitsi zen. Horren ondorioz, 5 pertsona zauritu ziren, larritasun-maila desberdineko zauriekin.



Uztailaren 17an, lurretako enpresa kimiko batean sute bat izan zen. Horren ondorioz, bi pertsonak erredurak jasan zituzten eta bi baserri hustu behar izan ziren.

Urriaren 21ean, AP-68an, Zuia parean, salgai arriskutsuak garraiatzen zituen kamioi batek istripua izan zuen, bere kabinan gertatutako sute baten ondorioz. Lhesik egon ez bazen ere, salgaiak batetik bestera aldatzeko operazio bat egin behar izan zen.

VALENTZIAKO GOIDIA

Azaroaren 3an, suhiltzaileen eta larrialdietako teknikarien lehenengo baliabideak joan ziren Valentziara, Gurutze Gorriko eta DYako profesionalekin batera; eta horiek guztiak koordinatzeko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzako Esku Hartzeko zerbitzuko teknikari bat.

Generalitatek Euskadiko taldeei hasiera batean eskatu zien etxepeetako eta estoldetako ura kentzeko, baina, geroago, eragindako eremuak beren onera ekar-tzen laguntzeko lanak ere egin zituzten. Izan ere, hiru egun geroago, Ertzain-tzako ertzainor unitateko ordezkari bat ere Valentziara joan zen, desagertutako pertsonen bilaketan laguntzeko.



PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA

Iaz, 2.620 pertsona bertaratu ziren, gehienak Babes Zibileko eta Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemako boluntario eta profesionalak, LAEMZek eman zituen 80 prestakuntza-eta zabalkunde-jardueretako batean.

Eskola-eremuari dagokionez, Zuzendaritza horrek heziketa-zentroekin 14 lankidetza (bisita) eskaini zituen, batez ere, lanbide heziketako graduekin lotuta (osasun larrialdiak) 431 ikaslerentzat.



Euskal Mendizale Federakundeak, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, mendiko prebentzioari buruzko hainbat prestakuntza-ikastaro eman zizkien ikasleei.



TOPAKETA BOLUNTARIOEKIN

Joana Egiluz Babes Zibileko sailburuordea, Joseba Zorrilla Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarekin batera, azaroaren 30an Udal Babes Zibileko Boluntarioekiko IV. Topaketan buru izan zen. Topaketa horretan hitz egin zen larrialdi batek eragindako pertsonei arreta psikologiko eta sozial egokia emateko beharrari buruz, hori funtsezkoa baita pertsona horiek gertakari hori beren biografian ahalik eta modurik osasuntsuenean barnera dezaten.

Nabarmendu behar daiaz, Eusko Jaurlaritzak kolektibo horri 70 txaleko korporatibo eta haurrentzako 23.000 identifikazio-pultsera eman zizkiola, 112 anagrama zeramaten eta oso erabilgarriak dira jende ugari biltzen denean eta ekitaldi handietan.

1.3 Krisi-mahaiak

PLANEN AKTIBAZIOA

2024. urtean, LAEMZek, Esku Hartze Zerbitzuaren bidez, hainbat jarduera-plan aktibatu zituen, kausa desberdinengatik:

Urtarrilaren 9an, Eusko Jaurlaritzak, alerta fasean eta prebentzio moduan, **Itsasertza Kutsaduratik Babesteko Euskadiko Larrialdi Plan Berezia (ITSASERTZA)** aktibatu zuen, aurreikusten zelako gure kostaldeetara mikroplastiko-hondakinak hel zitezkeela, itsasontzi batek Portugalgo uretan galdutako kargatik zetozenak.



Otsailaren 26an Euskadiko Uholdeei Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia alerta fasean aktibatu zen, ibaiak nola zeuden eta euri iraunkorren aurreikuspenak zeudela ikusita. Plan hori urriaren 17an ere aktibatu zen, baina kasu horretan Gipuzkoako Lurralde Historikorako baino ez.

Apirilaren 11n, Athletic Clubek kopako titulua lortu zuela ospatzeko ekitaldi jendetsua espero zenez, **Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Babes Zibileko Plana alerta fasean aktibatu zuen**, 0 egoera operatiboan. Aktibazio hori ekitaldi horretarako zabaldutako segurtasun-dispositibo handiaren osagarria izan zen.

Segurtasun-dispositibo horri laguntzeko aldi berean 3 koordinazio-mahai egon ziren: Erandio (poliziala), Txurdinaga (larrialdiak) eta Erandio (instituzionala).

2. PLANIFIKAZIO ZERBITZUA

2.1 Planak

LAEMZek hainbat erakundetan aurkeztu zituen planak, onartuak izan zitezen, eta horiei buruzko txostenak 2024an jaso ziren.

BABES ZIBILEKO PLANIFIKAZIOA

EAEko Baso Suteei Aurre Egiteko Larrialdi Plan Berezia

Plan hori Gobernu Kontseiluaren 2024ko abenduaren 17ko bilkurako erabakiaren bidez onartu zen (Erabakia argitaratzeko Ebazpena 2025eko urtarrilaren 2ko EHAA-1 zk.- argitaratu zen).

Plan horren barruan aldaketa batzuk sartu ziren, besteak beste, planaren operatibitatea, LABI eta Segurtasuneko sailburuordearen 2022ko uztailaren 15eko eta urriaren 26ko Ebazpenak kontuan hartuta; eta hauen guztien berrikuspena: arrisku-mapak, arrisku-garaiak, Arrisku Handiko Eremuen zehaztapena eta Hiri-Baso interfazeen zehaztapena.

Istripu larrien araudiaren menpeko establezimenduak (SEVESO)

Istripu larrien araudiari dagokionean, 2024ko ekainaren 4an, Babes Zibileko Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planei:

- MAIER, S.COOP
- HUTTENES ALBERTUS ILARDUYA, SLU
- GUARDIAN LLODIO UNO, SL
- BILBAINA DE ALQUITRANES, SA
- GENERAL QUIMICA, SAU
- PETRONOR, SA

Plan horiek Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainaren 18ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu ziren (Erabaki horiek argitaratzeko Ebazpena 2024ko ekainaren 28ko EHAA-127 zk.- argitaratu zen).

2024ko ekainaren 13ko egiaztagiraren bidez, Babes Zibileko Kontseilu Nazionaleko Batzorde Iraunkorrak aldeko txostena eman zien enpresa hauetako Kanpoko Larrialdi Planei:

SANTURTZI, ZIERBENA ETA BILBOKO PORTUAREN EREMUKO INDUSTRIA-GUNEA (Bizkaia):

- EXOLUM CORPORATION ELCALERO, SA
- REPSOL BUTANO, SA
- WEYLICHEM BILBAO, SLU
- ESERGUI-AVIA, SA
- TERMINALES PORTUARIAS, SLU TEPESA
- DBA BILBAO PORT, SL

Kasu honetan, planak Gobernu Kontseiluak 2024ko uztailaren 23ko bilkuran hartutako erabakien bidez onartu ziren (Erabaki horiek argitaratzeko Ebazpenak 2024ko abuztuaren 7ko EHAAn -153 zk.- eta 2024ko abuztuaren 8ko EHAAn -154 zk.-) argitaratu ziren

Halaber, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak, 2024ko abenduaren 17an egindako osoko bilkuran, aldeko txostena eman zien enpresa batzuen Kanpoko larrialdi Planen eguneraketei:



Gipuzkoa

- ELECTROQUIMICA DE HERNANI, SA, Epele Bailara, 29 20120 HERNANI (GIPUZKOA).
- KEM ONE, SLU, Barrio Epele, nº 26 20120- Hernani (GIPUZKOA).

Bizkaia

- AURUBIS BERANGO, SLU (Berango)
- BEFESA ZINC ÓXIDO, S.A.U. AMOREBIETA (Amorebieta-Etxano)
- BEFESA ZINC ÓXIDO, S.A.U. SONDIKA (Sondika)
- HA ILARDUYA, SLU (Amorebieta-Etxano)
- AREA INDUSTRIAL DE LA ZONA DE SANTURTZI, ZIERBENA Y PUERTO DE BILBAO (Bizkaia): ACIDEKA, SA

• Udal larrialdi planak

Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak abenduaren 17an Azkoitiko, Santurtziko eta Zaratamoko Udal Larrialdi Planen aldeko txostena ere eman zuen.

• Presen Larrialdi Planak

Gipuzkoako Urak Partzuergokoa den Lareo presaren Larrialdi Plana onartu da eta Mansillako (Errioxa) presaren Larrialdi Planaren ezarpenean parte hartu da.

• Autobabesa

2024. urtean LAEMZek ekintza hauei ekin zien:

Autobabes planen erregistro orokorra.

Iaz, Autobabeserako Euskal Arauari lotutako 1.024 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu edo eguneratu ziren.

Autobabesaren arloko teknikari gaituak.

Era berean, Euskadiko administrazioan 232 teknikari gehiago akreditatu ziren eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte.

• **Autobabes-planak egiteko teknikari gaituen akreditazioa arautzen duen Agindua.**

2024ko maiatzaren 30ean, 105 zk.ko EHAA 2024ko maiatzaren 16ko Agindua argitaratu zen, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, arauturik uzteko nola lortu eta berritu behar den autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien akreditazioa.

• **Zibersegurtasunaren arloko Jarraitutasun Planak Lantzeko Agindua.**

2024ko ekainaren 19an, 119 zk.ko EHAA 2024ko ekainaren 7ko AGINDUA argitaratu zen, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita zibersegurtasun-arloko jarraitutasun-planak egitea autobabeserako euskal arauaren men-de dauden zenbait jardueratarako.

Agindu horren helburua da mekanismo batzuk antolatzea, autobabes-planak egiteko betebeharra daukaten oinarritzako eta nahitaezko sektoreen jarduerak zibersegurtasunaren arloko jarraitutasun-planak ere egin ditzaten, eta plan horiek dokumentu komun batean bateratu ahal izan daitezen.


2.2 Lurralde antolamendua, hirigintza planifikazioa eta ingurumen inpaktua

Iaz, Lurralde Antolamenduko, Hirigintza Planifikazioko, Ingurumen Ebaluazioko eta Ingurumen Baimen Integratuko 160 espediente izapidetu ziren.

Espediente mota	Espediente kopua
Lurralde antolamenduko tresnak (DOT,PTP, PTS)	6
Hirigintza-planifikazioa	26
Planen ingurumen-ebaluazioa	34
Proiektuen ingurumen-ebaluazioa	64
IPPC/AAU	30
GUZTIRA	160

Horrela, baieztatuta geratu zen 2024an, aurreko urteen aldean, jardueraren goranzko joera.

TXOSTEN KOPURUAREN BILAKAERA



2.3 Beste ekintza batzuk

• Planifikazioko oinarrizko Jarraibideen lan-taldeak

Babes Zibileko Oinarrizko Araua (aurrerantzean BZOA) 2023ko ekainean onartu zen eta, horren ondorioz, BZOA horretan jasotako arriskuak kontrolatzeko eta planifikatzeko Babes Zibileko Planifikazioko oinarrizko jarraibide guztiak indargabetuta geratu ziren.

Ondorioz, Planifikazio Zerbitzua parte hartzen ari da Babes Zibileko eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiak jarraibide berriak garatzeko sortutako lan-talde guztietan. Horietan autonomia erkidego guztiek eta beste organismo garrantzitsu batzuek ere parte hartzen dute.

2.4 Tokiko erakundeetako hitzaldietan eta foroetan parte hartzea

2024 urtean zehar LAEMZko Planifikazio Zerbitzua tokiko erakundeekin hitzaldietan eta foroetan parte hartu du.

3. METEOROLOGIA ZERBITZUA



3.1 Euskalmet sozietate publiko gisa eratzea

Gobernu Kontseiluak martxoaren 12an onartu zuen Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentzia sortzeko Dekretua. Aldi berean, horren estatutu sozialak, erakunde berria aplikagarri zaizkion xedapenak, hasierako jarduketaren plana, etab. onartu ziren.

Garai batean LAEMZko Meteorologia Zerbitzuko burua izandakoak, José Antonio Arandak, bete zuen entitate horretako zuzendari nagusiaren kargua.

Ondoren, martxoaren 25ean, Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentzia eratzeke bilera egin zen.

Euskalmeten forma juridiko berriak aukera ematen du 1990ean sortutako Euskadiko meteorologia eredu bilakatzeko, meteorologia kaltegarritik eta aldaketa klimatikotik eratorritako etorkizuneko erronkei aurre egiteko helburuarekin; bi alderdi horiek larrialdien kudeaketarekin eta arretarekin estuki lotuta baitaude.

3.2 Urteko laburpena

Prezipitazio metatuei buruzko datuei begiratuta, esan behar da urtea, oro har, oso hezea izan dela, bereziki ekialderago dagoen kostaldean; han, 2024. urtea serie historikoen artean hezeenetako bat izan baita. Barrualdeko eremuetan, Debagoienan eta Arabako Errioxan, koska bat beherako egon da, heze gisa sailkatu baita.

Gainera, nabarmendu behar da, Euskadiko erreferentziazko estazioetako batez besteko tenperaturen arabera, urtea oso epela izan dela, 1991-2020 aldiari begiratuta. Anomalia positiboa normala dena baino 0.8 °C gehiagokoa izan da; beraz, 2024. urtea, gutxi gorabehera, serie historikoen artean (XX. mendearen erdialdetik) bosgarren urterik beroena izan da.

Horrekin lotuta, 2024. urtean Eusko Jaurlaritzak guztira 251 abisu hori eta 32 alerta laranja aktibatu zituen, horiek guztiak kausa desberdinen ondorioz.

Datu horiek alde batera utzita, Abisuak Nahieran zerbitzua, aurreikusten diren meteorologia kaltegarriko gertakariei buruzko mezuak jasotzeko aukera ematen duen aplikazio publikoa, iaz 9.341 erabiltzaile izatera heldu zen.

3.3 Lehendakariaren bisita

Azaroaren 13an, Imanol Pradales lehendakariak Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentziako instalazioak bisitatu zituen, Arabako Parke Teknologikoan.



3.4 Ekimenak, jarduerak eta hitzarmenak

Martxoaren 12an, Gobernu Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren eta AZTI Fundazioaren arteko hitzarmen bat sinatzeko baimena eman zuen, elementu ozeano-meteorologikoak kudeatzeko lankidetzan aritzeko.

Martxoaren 23an, Euskal Meteorologia Agentziak bat egin zuen Meteorologiaren Munduko Egunarekin, bere egin baitzuen Munduko Meteorologia Erakundeak (MME) proposatutako leloa: "Klimaren aldeko ekintzaren abangoardian".

3.5 Zabalkundea

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) bi kontu dauzka X sare sozialean: @112_SOSDeiak eta @Euskalmet. Euskalmeten kasuan, 2024ko datuak hauek izan dira:

[@Euskalmet](#)

Argitaratutako tuitak 5.797

Jarraitzaile kopurua: 129.988

Web-orriaren bisitak: 10.913.640

Horrez gain, Euskalmetek urte osoan zehar (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpena modu pertsonalizatuan eman zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irratiri batzuei, besteak beste, hauei:

Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervi3n, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM, besteak beste.

Zabalpenaren arloan, Euskal Meteorologia Agentziak lankidetzan finko hauekin jarraitu zuen:

Radio Euskadi: “La Mecánica del caracol” saioa.

Radio Euskadi:

“Distrito Euskadi” saioa (“Distrito clima” atala).

Euskadi Irratia: “Norteko Ferrokarrila” saioa.

Azkenik, Euskalmeteko **“Troposfera”** podcasta. Horren lehenengo denboraldiak ekainaren 23an hasi zen eta urtearen amaierara arte **3.397** entzunaldi euskaraz eta **6.854** gaztelaniaz erregistratu ziren.

3.6 Proiektu Europarrak

Azken urte hauetan, Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, Euskalmeten bitartez, itsas ingurunean eta elikaduran espezializatuta dagoen AZTI zentro teknologikoarekin batera, kostaldearen behaketarako sare ozeano-meteorologikoaren informazio-trukea eta bisualizazioa bultzatu ditu, EuskOOS (www.euskoos.eus), Euskadiko kostaldean ozeanografia operazionalerako sistema ezartzeko funtsezko tresna.

4. BATZORDEAK

Abenduaren 12an, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzueterako Erakunde arteko Batzordeak positiboki baloratu zuen, besteak beste, GOIDIaren ondorioz Valentziako erkidegora joandako Euskadiko larrialdietako zerbitzuen parte hartzea.

Egun horretan bertan, **abenduaren 12an**, Boluntariotzako Aholku Batzordeak, Joana Egiluz Babes Zibileko sailburuordea, Joseba Zorrilla Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaria eta Miren Dobaran Polizia eta



Larrialdietako zuzendari nagusia buru zirela, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak kolektibo horri eskaintzen dizkion prestakuntza-ekintzak aztertu zituen. Prestakuntza hori 2024an 2 ikastaro izan ziren: TETRA komunikazio-sistemari buruzkoa eta segurtasunaren ikuspegitik meteorologia kaltegarriari buruzkoa. Ikastaro horietan 62 ikaslek parte hartu zuten.

Joana Egiluz Babes Zibileko sailburuordea buru izan zen, **Joseba Zorrilla** Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariarekin batera, Vitoria-Gasteizen **abenduaren 17an** egindako **Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen** ohiko bilkuran. Fenomeno meteorologiko kaltegarriak aurreikusteko, zaintzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloaren hamahirugarren bertsioa eguneratu zen, baita Ekialdeko Kantabrikoaren barruko arroetako uholde arriskuen alde aurretiko ebaluazioa ere. Azken lan hori Uraren Euskal Agentziarekin (URA) lankidetzan egin zen, Agentzia horrek ere gainbegiratze-lanak egin baitzituen.

5. JOKO ETA IKUSKIZUNAK

1. JOKOA

2. IKUSKIZUNAK

3. IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK ETA ERREKURTSOAK

4. IKUSKARITZA LANA

5. TASEN ONDORIOZKO DIRU SARRERAK

1. JOKOA

Memoria honetan 2024ko ekitaldian zehar Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak izandako jarduerari buruzko daturik garrantzitsuenak eskaintzen dira. Jokoarekin loturiko beste jarduera batzuk ere badaude, baina dokumentu honetan ez dira jaso. Izan ere, jarduera horiek toki-eremuan egiten dira – gainera, noizean behin – eta jende gutxiri lotuta daude. Horien artean herri-kirola, pilotalekuetako apustuak, etab. ditugu, eta eragin ekonomiko txikia dute.

Datuak eta estatistikak lantzeko erabilitako iturriak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzarenak dira (Sistemen eta Kudeaketa Zerbitzua, Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua, lurralde-bulegoak, baita Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatea ere).

J. eta Ik. Zuzendaritzak kontrolatu beharreko joko-jarduerak

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Enpresa operadoreak				
"B" makinak	35	103	55	198 (5 EAEtik kanpo)
"C" makinak "	0	1	1	2
Apustu-makinak	0	2	1	3
Joko aretoak	8	44	18	71 (1 EAEtik kanpo)
Bingoak	3	8	3	14
Joko-makinetarako baimenak				
"BH" ostalaritza-baimenak	820	4.689	2.065	7.574
"BS" Areto-baimenak	132	1.899	621	2.652
"BG" Bingo-baimenak	23	51	18	92
"C" Kasino-baimenak	0	22	29	51
"P" Apustu-baimenak	400	1.099	635	2.134
Apustu-baimenak apustu-lokale- tan eta gaitutako lokaletan	108	380	197	685
Apustu-baimenak ostalaritzan eta bestelakoetan	292	719	438	1.449
Bingoak	3	7	4	14
Edukiera	893	2.244	1.431	4.568
Joko-aretoak	32	110	66	208
Gaitutako apustu-lokala	6	11	3	20
Kasinoak	0	1	1	2
Edukiera	0	664	620	1.284
Apustu-lokalak	3	14	6	23
Hipikako apustuak (enpresak)	0	0	1	1
Zozketak	5	2	1	8
Ausazko konbinazioak	30	96	30	156

Euskal Autonomia Erkidegoko joko-lokalak

	GUZTIRA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Kasinoak	2		1	1	2
Bingoak	14	3	7	4	14
Joko aretoak	209	32	111	66	208
Gaituta ez dauden Joko aretoak	188	26	100	63	188
Apustu-lokal gisa gaitutako joko aretoak	21	6	11	3	20
Apustu-lokalak	27	3	14	6	23
Apustu-lokalak guztira: apustu-lokalak +apustu-lokal gisa gaitutako Joko aretoak	48	9	26	12	43
Hipodromoa	1			1	1
Guztira	253	38	133	77	248

2. IKUSKIZUNAK

Xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, eta ezartzea zein baldintza eta betekizun izan behar dituzten ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten leku irekiek eta establezimendu publikoek, berdin izanik haien titular edo antolatzaileak erakunde publikoak edo pertsona fisikoak edo juridiko pribatuak diren, irabazteko asmorik duten ala ez, edo jarduera edo ikuskizunak instalazio finko, eramangarrietan edo desmontagarrietan eta etengabe edo aldi baterako antolatzen diren.

Ikuskizunen eta jolas-jardueren lokalak, Eusko Jaurlaritzak kontrolatu behar dituenak (edukiera >700 pertsona eta zezen-plazak)

	2023	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2024 GUZTIRA
Dantzalekuak, diskotekak	7	2	4	2	8
Zinemak, antzokiak	26	3	14	8	25
Museoak eta Erakusketa-aretoak	15	4	7	4	15
Azoka-esparru eta/edo kongresuena	5	1	3	1	5
Futbol-zelaiak	57	8	40	9	57
Pilotalekuak	20	1	5	14	20
Kirol-barrutiak	15	3	3	11	17
Kiroldegia	76	5	48	25	78
Beste kirol-instalazio batzuk	2	0	1	0	1
Zezen-plaza iraunkorrak	7	1	4	3	8
Gizarte etxea edo soziokulturala	11	9	0	5	14
Hipodromoa	1	0	0	1	1
Bestelako lokalak	2	0	0	2	2
Guztira > 700	244	37	129	85	251

Joko eta ikuskizun Zuzendaritzak baimendutako ikuskizunak eta jarduerak

	2023	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	2024 GUZTIRA
Zezen-ikuskizun nagusiak	28	0	14	12	26
Usadiozko zezen-ikuskizunak	188	49	19	122	190
Bestelako zezen-ikuskizunak (Erre-kortadoreak)	2		1		1
Plaza berriro irekitzea	5	0	3	2	5
Birsalmenta	0	0	0	0	0
Piroteknia-artifizioak	76	5	33	28	66
Kontzertuak, jaialdiak	86	21	22	34	77
Bestelako jolas-jarduerak	136	11	87	25	123
Ordutegi-luzapenak	10	1	5	2	8
Guztira	531	87	184	225	496

Zezen arloko jarduera

Kasu hauetan behar da Administrazioaren alde aurreko baimena:

Zezen-ikuskizun eta zezenketetarako, salbu eta erregelamenduz ezartzen denean horiek egiteko alde aurreko jakinarazpena aurkeztu behar dela.

2023 – 2024 aldiko zezen ikuskizunen konparazio taula

	2023	2024
Zezenketak	11	11
Burtzi-zezenketak	1	1
Burtzi-zezenketa mistoak	1	1
Pikatzailerik gabeko nobilladak	11	7
Nobilladak	1	1
Jaialdiak	1	1
Zekorketak	2	4
Guztira	28	26


3. IZAPIDETUTAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEAK

Lege hauen aurkako arau-hausteen ondoriozko zehapen-espedienteak: Jokoa Arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legea, Ikuskizunei eta Jolas Jarduerei buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legea eta kirol-ikuskizunetan egon daitezkeen Indarkeria, Arrazakeria, Xenofobia eta Intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legea.

Joko- espedienteak

	2023	2024
Arau-hauste diren egintzen ondorioz izandako espedienteak	20	20
Legez kontrako jokoa	0	2
Adingabeei jokatzeko uztea	6	2
Adingabeak egotea	0	2
Adingabeak sartzea edota jokatzeko, 10/2015 Legearen arabera	5	2
Ixteko ordutegi ez betetzea	0	1
Makinetan irregulartasunak	1	0
Ausazko konbinazioa	0	0
Joko-lokaletan seguritateko neurriak ez betetzea	1	0
Akzioak eskualdatzea	0	0
Autodebekatutakoek jokatzeko	3	5
Jokoaren kontrola	3	0
Sarien ordainketa osoa edo partziala ez egitea	1	0
Ikuskapenaren Ezetza/Eragozpena	0	4
B Makina	0	1
Datu faltsuak edo dokumentu manipulatatuak aurkeztea	0	2


Arau-haustearen arabera espediente guztiak



Ikuskizun arloan izapidetutako zehapen espedienteak


	2023	2024
Arau-hauste diren ekintzen ondorioz izandako espediente guztiak	269	352
Kiroleko indarkeria	217	306
Antolatzailearen arau-haustea	15	11
Kirol-barrutian ikuslearen arau-hustea	179	162
Inguruetan ikuslearen arau-haustea	23	133
Largetsitakoak	2	0
Ordutegia ez betetzea	2	1
Sarreraren birsalmenta	3	0
Zezenak	0	0
Kontzertuak	0	0
Kirola	3	0
Futbola	0	0
Largetsitakoak	0	0
Segurtasun-neurriak	13	17
Ebakuazio-bideetan irregularitasuna	9	5
Segurtasun-araudia behin baino gehiagotan ez betetzea	4	12
Largetsitakoak	0	0
Zezen-ikuskizunak	4	2
Nagusiak	1	0
Usadiozkoak	3	2
Zezen-ikuskizunetan adin gabeak		2
Edukiera	0	0
Sarrera ukatzea	3	6
Baimena gabeko ikuskizuna	6	3
Ikuskizunarekin lotutako elementuetan iruzurra egitea	0	2
Ikuskizuna bere osotasunean ikustea bermatzen duten baldintzak ez betetzea	0	1
Ikuskizun publikoen edukia etetea edo aldatzea arrazoi justifikaturik gabe /	0	1
Largetsitakoak	3	0
Su artifizialak	1	1
Adin gabeak	14	8
Segurtasun pribatuko zerbitzuak	8	5

Arau-haustearen arabera espediente guztiak




4. IKUSKARITZA LANA

Joko-makinak dituzten ostalaritza-edo joko- lokaletan adingabeak dauden zaintzea eta kontrolatzea



Egindako ikuskapenak, lokal motaren arabera



Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitatearen ikuskaritza lana

Ikuskizunen arloan egindako ikuskapenak

Ikuskizun arloko jarduera	2023	2024
Ikuskizun publikoetan eta Jolas Jardueretan adingabeak dauden kontrolatzea	274	282
Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalei buruzko txostenak	0	0
Baimendutako jardueri buruzkoak	432	944
GUZTIRA	706	1.226

Segurtasun-ikuskapenak	2023	2024
Ikuskizun eta jolas-jardueretarako lokalak	153	180

Establezimenduaren jarduera / lizentzia




Ikuskizun eta jolas-jardueren arloan, gaitzen duen tituluaren babesean, lokalei eta instalazioei baimendutako jardueraren zaintza eta kontrola.


Jardueraren ikuskapenak	2023	2024
Azoka eremuak, erabilera anitzekoak, museoak eta erakusketa aretoak	33	37
Zinemak eta antzokiak	52	53
Kontzertu aretoak, dantzalekuak eta diskotekak	82	101
Kiroldegia	281	391
Zezen-plazak	24	27
Baimen beharrik ez duten beste batzuk	83	49
GUZTIRA	555	658

5. TASEN ONDORIOZKO DIRU SARRERAK

2024ko tasa kopurua



Tasen guztizko zenbatekoa
(2023-2024 alderatuta)



6. POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA

1. POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA
2. GOBERNU ORGANOAK
3. AURREKONTUA
4. AKADEMIAREN JARDUERA

1. POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA

Akademiaren helburua da baldintzak sortzea eta bitartekoak lortzea herritarrei segurtasuna emateko zerbitzu publikoetan beren jarduera garatzen duten pertsonen behar duten lanbide-prestakuntza eskura dezaten, eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere zabaltzea, segurtasun publikoaren zerbitzueta kide ez badira ere, betiere lanbide-interesa badute edo haien jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.

Akademiak garatzen dituen jarduera guztien azken helburua da Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema langile prestatuez (trebeak eta gaituak), hautatuez (egokiak) eta motibatuez hornitzea. Pertsona horiek gizartearen errealitate eta behar berrietarako egokiak izango dira eta beren jardunetik, gizarte-bizikidetzari eta herritarren ongizateari ekarpen onak egin ahal izango dizkiete.

2. GOBERNU ORGANOAK


Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gobernu-organoak hauek dira: Kontseilu Errektorea, Segurtasuneko sailburua burua dela, eta arlo desberdinetako 21 ordezkari osatuta dago.

3. AURREKONTUA

2024. ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legean (2023ko abenduaren 29ko EHAA argitaratutakoa – 247 zk.-) ezarritakoarekin bat, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako, kreditu gehikuntzak eta murrizketak barne hartuta, aurrekontua honela egituratu da:

KAPITULUA	AURREKONTUA
1.- LANGILE-GASTUAK	11.513.139,27 €
2.- FUNTZIONAMENDU GASTUAK	6.850.868,90 €
3.- GASTU FINANTZARIOAK	1.000 €
4.- GASTU ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK	980.000 €
6.- INBERTSIOAK	479.991,83€
8.- AKTIBO FINANTZARIOEN GEHIKUNTZA	10.000 €
GUZTIRA	19.835.000 €

Kapitulu bakoitzari dagokion gastuaren portzentajea hau da:



4. AKADEMIAREN JARDUERA

Administrazio eta zerbitzuen zuzendaritza


BERDINTASUNERAKO UNITATE ADMINSTRATIBOA

Berdintasunerako Unitate Adminstratiboaren misio nagusia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun efektiboa sustatzea eta bermatzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren jarduera-esparruaren barruan, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuko lege-xedapenekin lerrokatuta, arau horren bidez onartzen baita Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina. Hori dela eta, aurrera eramaten den lerro estrategiko nagusia estrategia duala da; horrek lortu nahi baitu alde batetik, genero ikuspegia politika publiko eta lan-prozedura guztietan integratzea; eta bestetik, dauden genero-desberdintasunei zuzenean heltzeko ekintza espezifiko desberdinak inplementatzea.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan ekintza nagusi hauek egin ditu.

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako II Berdintasun Plana ezarri
- Sentsibilizazioa.
- Berdintasun politikak koordinatu (PLEA- Segurtasun Saila)
- PLEAn araudia betetzen dela zaindu eta jarraipena egin.

- Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu (PLEAn sexu-jazarpen kasuetan jarduteko gida)
- Aholkularitza konfidentziala sortu.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko prestakuntza-ibilbidea exekutatu: Akademiako profesionalek (186) emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko eta genero-ikuspegia eta ekintza positiboak txertatzeko neurriei buruzko prestakuntza jaso dute.




PLEAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA (PLEADZ)


Polizia eta Larrialdietako Dokumentazio Zentroak (PLEADZ) ikaskuntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-arloan laguntzen du. Horrek informazio-baliabideetara sartzeko eta baliabide horiek zabaltzeko aukera ematen du eta ezagutza sortzeko prozesuetan ere lagungarria da: PLEAko profesionalentzat, ikasleentzat eta, oro har, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemako kide guztientzat da.

Horiek horrela, 2024. urtean PLEADZen jardura hau izan da:

- Dokumentu-fondoa: 8873 erregistro bibliografiko; aldizkako argitalpenetarako (aldizkariak) 31 harpidetza; aldizkako 784 argitalpen elektronikotarako alertak.
- Mailegu-zerbitzua: 64 mailegu (gehi erdi iraunkorrak diren 778 mailegu).
- Dokumentuak lortzeko zerbitzua (DLZ): 756 eskaera jaso dira, eta adskripzio profesionalen araberako banaketa hau da:



- Eta, generoaren arabera:



Informazioaren zabalkunde selektiborako zerbitzua (IZS):

- 183 alerta-buletin (517 dokumentu; aldizkako 133 argitalpen)
 - Buletin ofizialen 183 laburpen
 - IZSren (Informazioaren Zabalkunde Selektiboa) 18 bidalketa PLEaren Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Alorrera.
- Liburutegien arteko lankidetzak: PLEADZ Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Sarearen eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (Udal liburutegiak dira) parte da. Hain zuzen, PLEADZren katalogoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen online-katalogoaren (EIPS) barruan dago.

ARAUDE JURIDIKOAREN, KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ETA GAI OROKORREN ALORRA

Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren menpe eta haren gainbegiradapean, Araubide Juridikoaren, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Gai Orokorren Alorrak arlo hauek kudeatu behar ditu:

- LANGILEEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ARLOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Langileen eta Araubide Juridikoaren Arloak, besteak beste, Akademiako giza baliabideen administrazioarekin eta kudeaketarekin lotutako jarduketak guztiak egiten ditu, baita Euskadiko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako Agente izateko sartzen diren ikasleekin lotutako kudeaketa administratibo guztiak ere; eta horretarako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian mugimenduak egiten ditu bi kolektiboetako pertsonen kotizazioei altak eta bajak emateko.

- KONTRATAZIO ETA AURREKONTUEN ARLOA

Kontratazio eta Aurrekontuen Arloak planifikatu, kudeatu, antolatu eta gainbegiratu behar ditu Organismo Autonomoak bere jarduera aurrera eramateko eta bere helburuak lortzeko behar dituen baliabide materialak eta zerbitzuak zein jarduera ekonomiko-finantzarioa.

- ANTOLAKETA ETA GARAPEN ARLOA

Antolaketa eta Sistemen Arloak Akademiaren behar informatikoei erantzuten die; horretarako, egin beharreko kudeaketak eta lanak egiten ditu Akademiak, telekomunikazioen, sareen, sistemen, ekipamenduen, sarbideen eta aplikazioen arloan, behar duen guztia izan dezan. Halaber, beste Arlo batzuei ezartzen diren tresna berriak ikasteko eta eguneratzeko laguntza eta aholkularitza ematen die eta prozesu desberdinak automatizatuz konponbide informatikoak planteatzen ditu.

Arlo honetan aurten ekintza nagusi hauek izan dira:

- **E-Learning zerbitzua**
- **Hautaketa-prozesuetako probak: irakurgailu optikoaren bidezko zuzenketa eta datuen mantenimendua. 8 hautaketa-prozesu propio.**
- **Prestakuntza-ikastaroetako probak: irakurgailu optikoaren bidezko zuzenketa. 48 proba; 3565 ikasle.**
- **Ikastaroerik buruzko gogobetetze-inkestak: 7 txosten.**
- **Mantenimendua, eguneratzeak, hobekuntzak, garapen informatikoak,..**
 - GA aplikazioa (Kudeaketa Akademikorako Aplikazioa)
 - Arkampus, Akademiaren online ikaskuntzarako plataforma.
 - Ikastaroak igarotzea automatizatzea
- **Beste aplikazio eta programa batzuen kudeaketa**
 - PLEA deialdiak
 - Ikastaroetan izena ematea (PAREZ-PARE)
 - Inbentariatu daitezkeen ondasunen kontrola: GLPI aplikazioa
 - Hautaketa-prozesuetan eta ikastaroetan destinoak esleitzea.
- **Akademiaren web-kudeaketa**
- **Telekomunikazioen eta sistemen kudeaketa**
 - Telekomunikazioen eta sarearen azpiegitura
 - Lizentzien eta ekipamendu informatikoen kudeaketa (ekipoak berritzea).
 - Erabiltzaileen sarbideen kudeaketa
 - Erabiltzaileei laguntza informatikoa
 - ZERBINET bidezko eskaera informatikoak
- **Proiektuak**
 - PROIEKTU HONI JARRAIPENA EGITEA: "Kudeaketa Akademikoaren interakzioa kanpoko erabiltzaileekin"
 - PROIEKTU HONI JARRAIPENA EGITEA: "Arkampus (Moodle) GArekin integratzea"
 - HASIERA: GA Migrazioa, "Aztertzea, diseinatzea eta prototipatzea, migrazioa egiteko"
- **e-learning (Arkanpus) zerbitzuak**

AZTERLANEN ETA PLANIFIKAZIO ALORRA

Euskadiko Poliziari dagokionez, Azterlanen eta Planifikazio Alorrak Euskadiko Polizia osatzen duten kidegoetako eskala eta kategorietan sartu aurreko prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu eta Euskadiko Poliziako kideen espezializazio-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza antolatzen eta garatzen ditu.


Horrez gain, Ertzaintzako kideen euskalduntzea lortzeko hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu.

Larrialdien eta Babes Zibilaren Arloari dagokionez, Alor honek babes zibileko eta larrialdietako euskal sistemako (Euskadiko administrazioen menpekoak, legez edo erregelamenduz) oinarritzko edo nahitaezko zerbitzuen langile moduan sartu aurreko praktikaldiak eta prestakuntza-ikastaroak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu.


Horrez gain, babes zibilaren eta larrialdien arloko prestakuntza-ekintzak programatzen, antolatzen eta garatzen ditu Babes Zibileko eta Larrialdietako Euskal Sistemaren parte hartzen duten profesional eta langile guztientzat, berdin du enplegatu publikoak, boluntarioak edo entitate pribatuetao langileak diren.

MATRIKULAZIOAK:	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
ERTZAINZA	5.137	1.329	6.466
UDALTAINGOA	1.735	567	2.302
LARRIALDIAK	1.480	75	1.555
BESTE KOLEKTIBO BATZUK	128	60	188
GUZTIRA	8.480	2.031	10.511

Hona hemen matrikulatutako emakumeen eta gizonen portzentajea:



Hona hemen matrikulatutakoen lanbidearen arabera portzentajeak:



Prestakuntza hauek eman dira:

- **Ertzaintzako profesionalen prestakuntzarako**
 - Lanbide karrera
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak
 - Euskalduntzea
- **Udaltzaingoetako profesionalen prestakuntzarako**
 - Agente izateko
 - Ofizialorde kategoriara igotzeko
 - Ofizial kategoriara igotzeko
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak
- **Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetako profesionalen prestakuntzarako**
 - Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetan sartzeko
 - Bitartekoen lan-poltsa
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak
 - Larrialdiei Aurre egiteko profesionalen prestakuntzarako
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak
- **Boluntarioen prestakuntzarako**
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak
- **Beste kolektibo batzuetako profesionalen prestakuntzarako**
 - Eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak



- ÁREA DE SELECCIÓN Y EVALUACIÓN

EUSKADIKO POLIZIA KIDEGOAK ETA UDALTZAINGO ZERBITZUAK (EUSKAL POLIZIA)

- Euskadiko polizia kidegoetako (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) eta Udaltzaingo Zerbitzuetako oinarritzko eskalako agente kategorian txanda librean sartzeko hautaketa-prozesua egin da: 3721 hautagai (2326 gizon eta 1395 emakume).
- Euskadiko Polizia Kidegoetako agente kategorian sartzeko ikastaroko jarrerren balorazioa (P32MP) egin da: 249 hautagai (153 gizon eta 96 emakume).

ERTZAINZA

Hautaketa-prozedura hauek egin dira:

- Babes Pertsonaleko Espezialitate ikastaroan sartzeko (oinarritzko eskalako agente kategorian).
- Espezialitate ikastaroan sartzeko (oinarritzko eskalako agente kategorian).
- Ofizialorde eta ofizial (ikuskapen eskala) kategorietara igarotzeko.

Jarrerren balorazioa ikastaro hauetan:

- Bide-segurtasunaren espezialitatea daukan Ertzaintzaren agente kategorian sartzeko ikastaroa (P32SC): 66 hautagai (56 gizon eta 10 emakume).
- Ikerketa kriminalaren espezialitatea daukan Ertzaintzaren agente kategorian sartzeko ikastaroa (P32IC): 106 hautagai (49 gizon eta 57 emakume).

Praktiketan jarraipena hautaketa-prozesu hauetan:

- NEBK: 20 hautagai (20 gizon).
- Babes pertsonala: 36 hautagai (34 gizon eta 2 emakume).
- Ofizialordeak: 211 hautagai (174 gizon eta 37 emakume).
- XXXI Promozioa: 377 hautagai (259 gizon eta 118 emakume).
- Ertzaintzaren XXXII. promozioa: hautagai 1 (gizon 1).

UDALTZAINGOA

Hautaketa-prozesu bateratu hau egin da:

- Euskadiko Udaltzaingoetako oinarritzko eskalako agente lehena kategoriara igarotzekoa. Prozesu horretan 19 udalek parte hartu dute: Abadiño, Andoain, Arrasate, Azkoitia, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Derio, Donostia, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Getxo, Ibarra, Irun, Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zalla eta Zarautz.

Jarrerren balorazioa ikastaro honetan:

- Agente kategorian sartzeko ikastaroa (MP125-MP126): 12 hautagai (6 gizon eta 6 emakume).

Praktiketan jarraipena hautaketa-prozesu hauetan:

- Ofizial kategoriara igarotzekoa: 7 hautagai (6 gizon eta emakume 1).

- Ofizialorde kategoriara igarotzekoa: 52 hautagai (48 gizon eta 4 emakume).
- Kidegoetako agente kategorია: 124 hautagai (95 gizon eta 29 emakume).
- Agente kategoriarako "egonkortzea": 77 hautagai (53 gizon eta 24 emakume).

UDALEK DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAK

Bizkaia: Amorebieta (Ofizial lanp. 1), Arrigorriaga (Ofizialorde lanp. 1), Barakaldo (6 ofizialorde lanp.), Durango (5 ikerketako agente lanp.), Etxebarri (Ofizialorde lanp. 1 zerbitzu eginkizunetan), Mungia (Agente lehena lanp. 1), Ondarroa / Markina-Xemein / Lekeitio (7 agente lanp.),

Gipuzkoa: Tolosa (Ofizial lanp. 1), Bergara (7 agente lanp.), Hernani (9 agente lanp.), Tolosa (Ofizial lanp. 1), (Urretxu (Ofizialorde lanp. 1), Villabona (2 agente lanp.), Zumarraga (Ofizialorde lanp. 1).

UDALTZAINGOKO BITARTEKO AGENTEEN HAUTAKETA-PROZESUAK:

Udaltzaingoko bitarteko agenteen lan-poltsa sortzeko prestakuntza-ikastaroaren bigarren fasearen barruan, 51 aldiz egin dira talde-dinamikak: 289 hautagai (181 gizon eta 108 emakume).

UDALTZAINGOKO LAGUNTZAILEEN HAUTAKETA-PROZESUAK

Epai judiziala betetzeko, Udaltzaingoko laguntzaileen lan-poltsa bat osatzeko hautaketa-prozesua egin da, Euskadiko Tokiko Korporazioetan aldi baterako zerbitzua emateko: 75 hautagai (45 gizon eta 30 emakume).

UDALTZAINGOKO PLAZAK EGONKORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK:

Bizkaia: Barakaldo (2 agente lanp.).

Gipuzkoa: Ordizia (Agente lanp. 1), Urretxu (Agente lanp. 1).

EUSKADIKO SUTEAK PREBENITZEKO ETA ITZALTZEKO ZERBITZUEN HAUTAKETA-PROZESUAK

Hautaketa-prozedura eta praktiketan jarraipena egin da, honi dagokiona:

Euskadiko Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuetan, suhiltzaile kategorian, azpieskala operatiboan, Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuen klasean, Administrazio Bereziko eskalan sartzekoa. Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien deialdi bateratua.

BESTE BATZUK

- Ertzaintzako langileentzat, zerbitzu eginkizunak esleitzeko bi hautaketa-prozesu egin dira, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian heziketa-, hautaketa- edo ikerketa-zereginak egiteko (C287 eta C298)
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako irakasle bat hautatzeko (lan itunpeko langilea) elkarriketa pertsonalak egin dira.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako barra-arduradun bat hautatzeko (lan itunpeko langilea) elkarriketa pertsonalak egin dira.

7. CYBERZAINZA

1. AURREKARIAK

2. ZIBERSEGURTASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA

3. 2024A ZENBAKIETAN

4. ZAINZA ZIBERSEGURTASUNEAN

5. HARREMAN INSTITUZIONALAK

6. PRESENTZIA KONGRESUETAN

7. ZIBERSEGURTASUNEAN TALENTUA BULTZATZEA

8. HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA

1. AURREKARIAK

2023ko Ekaina

7/2023 LEGEA, ekainaren 29koa, Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia sortzeari buruzkoa

Lege horretan, Cyberzaintza sortzea jasotzen da, euskal sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzeko eta koordinatzeko. Ekimen komun bat garatzeko beharrari erantzuten dio, lehendik badauden baliabideen koordinazioa artikulatu eta indartzeko eta Euskal Autonomia erkidegoan zibersegurtasunaren heldutasun-maila ez ezik, erresilientzia ere areagotzea ahalbidetzeko.

2023ko Iraila

Javier Dieguez izendatu zuten Cyberzaintzako zuzendari nagusi: Gobernu Kontseiluak Javier Dieguez Cyberzaintzako zuzendari nagusi izendatzea onartu zuen.

BCSCtik Cyberzaintzara: Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia Basque CyberSecurity Centre (BCSC) erakundearen ordezkari sortu da. Erakunde hori Euskadin zibersegurtasunaren kultura zabaltzen nahiz sektore hori euskal enpresa-sarean sustatzen aritu da 2017az geroztik.

2023ko Urria

Cyberzaintzak SIC Aldizkariak emandako "SIC Saria" jaso zuen: Ohore bat izan zen sari ospetsu hori jasotzea Cyberzaintza sortzeagatik, zibersegurtasunak zerbitzu publiko gisa duen garrantzia berretsi baitzuen.

2023ko Abendua

Cyberzaintzaren aurkezpen ofiziala, Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia berri bezala: Cyberzaintzaren aurkezpeneko ekitaldi ofiziala egin genuen, Josu Erkoreka lehenengo lehendakariordea eta Segurtasun sailburua buru zela. Euskadin, Interneten eta teknologia berrien erabilera eratorritako mehatxuei modu integrarean eta zeharka aurre egiteko sortu zen.

2. ZIBERSEGURTASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA

Cyberzaintzak zuzendu ditu Euskadiko Zibersegurtasunaren Euskal Estrategia diseinatzeko lanak, datozen urteetan arlo horretako jarduerak lerrokatzea bultzatzeko helburuarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko maila ezberdinetako interesatu nagusiek ez ezik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek eta zibersegurtasunaren sektore pribatuko ordezkariak ere parte hartu dute prozesuan.

Cyberzaintzak 2024an garatutako lehen mugari garrantzitsua Euskadirako zibersegurtasunaren estrategia bat diseinatzea izan da, 2024-2029 denboraldirako arlo horretako jarduerak lerrokatzea bultzatzeko.

Estrategiaren xedea da Euskadi herrialde ziberresiliente bihurtzea, Administrazio Publikoa eta enpresa-ehuna arrisku zibernetikoen aurrean babesteko gaitasun eta guzti. Era horretan, eraldaketa digitalaren prozesuan gizartea ahaldundzea sustatuko da, eta gaitasun horiek emango dira zibersegurtasun globala garatzeko, nazioartean erreferentziazko lekua hartuz.

ZAZPI ERRONKA ETA LAU HELBURU ESTRATEGIKO

Zibersegurtasunaren estrategiak herrialdeak arlo horretan dituen erronkak identifikatzeaz gain, helburu estrategiko batzuk aurkezten ditu. Helburu horiek lortzeko, zortzi jarduera-ildo definitzen ditu. Aldi berean, ildo horietako bakoitzerako, kasu bakoitzean eskumena duen eragileak gidatu beharreko jarduera-multzo bat zehazten du, identifikatutako helburuak lortze aldera.



ZORTZI JARDUERA-ILDO

Ondorengo jarduera-ildoei esker, Estrategian identifikaturiko erronka nagusiak ebatzi ahal izango dira. Ildo horretan, jarduera-ildo bakoitza jarduera nagusi batzuek osatzen dute, eta horien helburua da 2024-2029 denboraldirako ezarritako helburuak lortzen laguntzea.



GOBERNANTZA-EREDUA


Zibersegurtasunaren Euskal Estrategia behar bezala ezartzeko, gobernantza-eredu solidoa eta ondo egituratua behar da, eta, bertan, zehaztutako jardueraren ildotik dauden eragile guztiak egongo dira. Horretarako, erreakzio-batzordeen eta -mekanismoen eredu bat ezarri da, hiru mailatan oinarritua eta estrategiaren segimendua egin ahal izateko neurketa-esparru batekin.



3. 2024 ZENBAKIETAN

Cyberzaintzan jakin badakigu zibersegurtasuna urtean zehar bultzatutako ekintza ugariaren bitartez indartzen dela. Hori dela-eta, hainbat ekimen burutu ditugu 2024. urtean zehar, prestakuntza-programetatik eta kontzientziazio-jardueretatik hasi eta informazio giltzarria hedatu arte, eta, horrela, ekimen bakoitzak babes digitala hobetzen lagundu du. Jarraian, Euskadin lortutako inpaktua eta irismena islatzen duten datu adierazgarrienak aurkeztuko dira:

JARDUERAREN INPAKTUA



INPAKTU DIGITALA



4. ZAINZA ZIBERSEGURTASUNEAN

Zibersegurtasuneko zaintzaren ikuspegitik, 2024a intzidente asko kudeatutako urtea izan da. Kasu ohikoenak iruzurrarekin lotutakoak izan dira, eta, horien ondoren, programa maltzurrekin lotutako intzidenteak.

1.265 intzidente kudeatu dira



703
Iruzur.
%55,53



193
Programa maltzur.
%15,28



157
Intrusio.
%12,36



70
Bestelako.
%2,11



42
Abusuzko eduki.
%3,33



42
Eskuragarritasun.
%3,33



27
Kaltebera.
%2,11



14
Intrusio-saiakera.
%1,14



9
Informazio-lorpen.
%0,73



8
Informazio-konpromiso.
%0,65



Euskadin Ertzaintzarekin lankidetzan iruzur-kanpaina deseginda.

34

Cyberzaintzan egunero sortzen ditugu kalteberatasunari eta malwareari buruzko txostenak eta gertakari nabarmenekin lotutakoak, inpaktu esanguratsua duten zibermehatxuak eta horien bilakaera ikusarazten laguntzen baitute, baita lege-aldaketak, bilakaera teknologikoa eta jardunbide egokiak ezagutzen ere.

190 argitalpen eginda



10
Malware txosten.



117
Kalteberatasun txosten.



58
Buletin.



5
Beste mota batzuk.

NONAME057 TALDEAREN ERASOAK

Cyberzaintzak zibersegurtasunaren hainbat abisu igorri zizkien euskal erakundeei, otsailaren 6tik aurrera Errusiaren aldeko NoName067 taldeak zerbitzua ukatzeko erasoak egin baitzituen. Cyberzaintzak, lan egiten duen konfiantzazko sareekin koordinatuta, helburuen zerrenda eskuratu zuen etapa goiztiarretatik, eta mehatxatutako erakunde guztiak ohartarazi ahal izan zituen erasoak gertatu aurretik. Emandako abisuez gain, eskuratzen genuen informazio guztia partekatu genuen, erakundeen informatikako eta telekomunikazioetako taldeek erasoen aurkako azpiegitura indartu eta eragina arindu zezaten.

EUSKAL HAUTESKUNDEEN SEGURTASUNA KOORDINATZEKO ZENTROA

Cyberzaintzak, EJI Erekin lankidetzan, apirilaren 21eko hauteskunde-prozesuan zibersegurtasunaren arloan eragina izan zezaketen taldeak eta mehatxuak aztertzeko eta identifikatzeko operati-boa antolatu zuen. Arriskuen etengabeko analisia egin zen, erasoak prebenitzeko, detektatzeko eta haiei erantzuteko kontrol-neurriak ezartzearen.

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ZIBERSEGURTASUNAREN ARLOAN DITUEN ARRISKU NAGUSIAK

Kontuan izan behar da zibersegurtasuna gai teknikoa ez ezik, erantzukizun etikoa eta soziala ere badela, eragina baitu datu pertsonaletan, herritarrek beren eskubideak erabiltzean eta funtsezko zerbitzu publikoak eskaintzean. Euskadiko erakunde publikoek zibersegurtasunaren arloan dituzten arrisku nagusiak identifikatu ditu Cyberzaintzak, eta txosten honetan horiek zehaztu eta zenbait gomendio proposatzen dira, murrizte aldera.

2024AN EUSKADIN ERAGINA IZAN DUTEN TALDE KRIMINALEN MODUS OPERANDIA

2024an zehar, Euskadin inpaktu potentziala izan duten mehatxuak identifikatzeko eta monitorizatzeko prozesua jarraitu da, herritarren nahiz erakunde publiko zein pribatuen arriskua arintzeko ekimenak abian jartzearen. Garrantzi bereziko 94 intzidentzia aztertu ditugu guztira, eta, besteak beste, erasotzaileek beren ekintza maltzurak burutzeko erabilitako «modus operandia» identifikatu da; horrela, taktikak, teknikak eta prozedurak jaso dira.

2024AN IDENTIFIKATUTAKO KALTEBERATASUNAK

Aipatu denboraldian zehar garrantzi berezia izan duten kalteberatasunak nabarmentzen dira txostenean, aktiboki ustiatzen ari direnak eta biktima gehien dituzten ransomware familiekin lotuta daudenak barne. Aurkikuntza horien arabera, garrantzitsua da eguneratze-politikak eta kalteberatasunak kudeatzeko politikak ezartzea, ustiapenaren eragina jasateko arriskua minimizatzearen.

5. HARREMAN INSTITUZIONALAK



Javier Dieguez Europako Eskualdeen ordezkari hautatu dute berriro, ECSOren Board of Directors-en

Batzorde horren bitartez, Euskadik lotura zuzena du Europako erakundeekin eta erabakiak hartzeko arduradunekin, zibersegurtasunaren sektorean politikak eta ekintzak traxionatzeko.

Navarra Cybersecurity Center

Sortu berria den Navarra Cybersecurity Center-en bisita jaso genuen, NASERTIC-ekin batera. Bileran, zibersegurtasunaren arloko esperientziak partekatu genituen.

Euskadiko Zibersegurtasuneko Erakundearteko Mahaia

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetakoko, hiru foru-aldundietako eta Eudeleko erakundeek osatutako lankidetza-foroa eta informazio-trukea. Kataluniako Ciberseguretat Agentziako zuzendari nagusia gonbidatu gisa izan genuen, eta Kataluniako beste erakunde batzuekiko harreman-eredua hedatzeko orduan zeintzuk izan ziren funtsezko elementuak azaldu zigun.

Cyberzaintzaren Aholku Batzordea

Euskal Zibersegurtasunaren Agentziaren Aholku Batzordea eratzeko bilera egin zen martxoan, eta, bertan, arlo publikoko zein pribatuko hainbat diziplinatako 11 aditu izendatu ziren. Aditu horiek, gaurtik aurrera, Agentziaren gobernu-organoei aholkuak emango dizkiete.

Euskadiko azpiegitura kalteberen foroa

Zazpigarren edizio honetan bildu da planean aktiboki parte hartzen duten 50 operadore baino gehiagoren zati handi bat, egungo egoera aztertu eta Euskadiko azpiegitura eta zerbitzu kalteberen babes-zutabeetako bat indartzeko; hau da, lankidetza publiko-pribatua.

Cyberzaintzako Administrazio Kontseilua

Hauteskundeen ondoren karguak berrituta, Kontseiluak ongietorria eman zien kide berriei. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako sailetako, hiru foru-aldundietako eta hiru hiriburuetakoko udaletako eta EUDELeko ordezkariak dira. Cyberzaintzak 2025erako duen lehentasun gisa, jorratutako gaien artean, Zibersegurtasunaren Euskal Ituna bultzatzea azpimarratu zen.

6. PRESENTZIA KONGRESUETAN



Uraren sektorea Zibersegurtasunaren erronken aurrean

Urtarrilean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak jardunaldia antolatu zuen Ibermatikarekin elkarlanean, eta guk jardunaldi horretan parte hartu genuen. Era horretan, ezagutzak trukatzeari gain, ura kudeatzen duten enpresei eta zerbitzuen digitalizazioari egokitutako zibersegurtasunaren inguruan eztabaidatu genuen. IT eta OT segurtasunaren ikuspegi integral baten beharra nabarmendu genuen, hornidura-kateari eman beharreko arretarekin batera.

Sociedad de la Información Aldizkariak antolatutako topaketa

Otsailean, Zibersegurtasunaren Agentziak bildu egin ziren beren estrategiak eta erronkak bateratzeko asmoarekin, eta Zentroa izatetik Agentzia izatera igarotzeko bilakaeraren berri eman genuen guk, Cyberzaintza sortzera eraman gaituena, erronkak azaltzeaz gain; hau da, Zibersegurtasunaren Euskal Estrategia zehaztea eta zabaltzea.

Industrial Cyber Cert

Otsailean, Orbik, Ikerlan eta TÜV Rheinland Europe erakundeek elkarrekin antolatutako jardunaldian parte hartu genuen. CRAk, aurtengo urtetik aurrera, gailu industrialen kalteberatasunak monitorizatzen, eguneratzen eta jakinarazten behartutako gaituena azaldu zuten. Laborategiko frogak eta zibersegurtasuneko ziurtagiria funtsezkoak izango dira estandar hori betetzeko.

FOROA: “Aliatu digitalak, ziberseguru egoteko funtsezkoak”

Zibersegurtasunaren edozein arlotan lankidetzan aritzea eta informazioa partekatzea balio handia da gehitzen ari diren eta aldakorrek diren zibermehatxuei aurre egiteko eta kolektibo ahulenak eta horren arriskupean daudenak babesteko. Filosofia hori bat dator geure burua babesteko sarea egiteko dugun filosofiarekin, eta, horrela, foro horretan parte hartu genuen martxoan. Eragile publikoak eta pribatuak funtsezkoak direla nabarmendu zen gizartea kontzientziatzeko.

Cybersecurity: Bank, Insurance & Finance Summit

Martxoan, topaketa honetan parte hartu genuen, INCIBEko eta CCN-CERT-eko kideekin batera; bertan, eraso-mehatxuak eta -teknikak aurreratzen eta etengabe aldatzen direla azaldu zen, eta, beraz, finantza-sektorean etengabeko eguneratze-lana egin behar dela eragiketen osotasuna zaintze aldera. Beste gai batzuen artean, compliance on bat lantzea lehentasunezko oinarri-lerroa dela nabarmendu zen.

Europako hurrengo hauteskundeetarako zibersegurtasunaren gakoak

Maiatzean eta Europako hauteskundeak berehala izanik, Francisco Javier Dieguez Barriocanal gure zuzendariak hurrengo hauteskunde-prozesuaren “kazetaritza-gakoetan” oinarritutako hitzaldian parte hartu zuen. Hitzaldia EuroBasquek antolatu zuen Kazetarien Euskal Elkargoarekin eta Euskal Kazetarien Elkartearekin elkarlanean, eta Europako hauteskundeak izan zituzten aztergai hainbat ikuspegitik; tartean, zibersegurtasuna. Zerbitzu Digitalei buruzko Lege berria aztertzeaz gain, desinformazio-kanpainak jorratu zituzten. Herritarrak jardunbide egokien eta prebentzioaren inguruan kontzientziatzearen beharra azpimarratu zen. Ikuspegi kolaboratiboa eta hezitzailea funtsezkoa da gure hauteskunde-prozesuaren erresilientzia indartzeko mehatxu digitalen aurrean, hauteskundeetan integritatea eta konfiantza ziurtatze aldera.

Barcelona Cybersecurity Congress

Ekainean, kongresu honetan parte hartu genuen, Kataluniako Ciberseguretat Agentziak gonbidatuta. Horrela, Euskaditik kanpo, Cyberzaintza ezagutzera eman ahal izan genuen, zibersegurtasunaren arloan egiten dugun lana erakustearekin batera. Gainera, ederra izan zen gure euskal ekosistemako zibersegurtasuneko enpresa batzuekin han elkartzea, haiek ere Bartzelonara joan baitziren proiektu berri eta disruptiboenak erakustera.

Developing a Leading Industrial Cybersecurity Ecosystem

Ekainean, European Cyber Security Community Project-ek (ECCO), ECCC-rekin lankidetzan (Start-up, Scale-up eta ETEetan espezializatuak) ezagutzak trukatzeko webinarra antolatu zuen, Euskal Zibersegurtasunaren Agentziak zibersegurtasuneko ekosistema solido bat eraikitzen duen esperientzian oinarrituta.

Europe Zibersegurtasun Industrialaren Nazioarteko XXIII. Biltzarra

Irailean, “OT arriskuen aurreko erantzuna zibersegurtasunaren agentzien eskutik” izeneko panelan parte hartu genuen, Valentziako Generalitateko eta Kataluniako Ciberseguretat Agentziako kideekin batera. Gure estrategiak Europako NIS2 zuzentara egokitzearen garrantziaz eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako agentzien etengabeko lankidetzaren balioaz aritu ginen, zibermehatxuei modu integratuan aurre egite aldera.

Cybersecurity & Identification kongresua

Azaroan hartu genuen parte kongresu honetan, eta zibersegurtasunaren arloan Euskadi erronka ezberdinetara egokitu dela azaldu genuen, eta, horrela, Cyberzaintza sortu dela. Erakundearteko estrategiak behar direla nabarmendu zen eta toki-, eskualde- edo nazio-mailan, eta, aldi berean, Europako zuzentarauekin lerrokatu behar direla.

Euskal Kazetaritzaren 2024 Sarien banaketa

Cyberzaintzarentzat ohore handia izan zen

Francisco Javier Dieguez Barriocanal gure zuzendari nagusia hautatu izana Miriam Duqueri saria emateko “Kazetaritza digitala eta narratiba berriak” kategorian, “Ganbara Negra” podcast-aren-gatik; hau da, Radio Euskadin gertaeren eta ikerketaren munduan murgiltzen gaituen programa. Saria Euskal Kazetarien Elkarteak eta Kazetarien Euskal Elkargoak ematen du.

7. ZIBERSEGURTASUNEAN TALENTUA



Cyber Lehia 2024

Etorkizunera begira, CyberLehiaren edizio honetan hartu dugu parte, eta eskerrak ematen dizkiogu Lanbide Heziketako Sailburuordetzari hori antolatzeagatik. Ekimen bikaina da Lanbide Heziketako euskal ikasleak zibersegurtasunean prestatzea sustatzeko. Bertan, Euskadiko LHko 25 ikastetxetako 280 ikasle baino gehiagok hartu dute parte. Garrantzitsua da milaka gazte ezagutza digitaletan trebatzea, etorkizunean lan-ingurune segurua eta gure lurraldearen oparotasuna ziurtatzearren.

Olentzero 42- Christmas Hacking-ean

2024ko abenduan, hirugarren urtez jarraian, Cyberzaintzak, Euskal Zibersegurtasunaren Agentziak, jarduera hori antolatzen esku hartu du 42 Urduliz Bizkaia Telefonica fundazioa campus teknologikoarekin batera, eta, bertan, 6 eta 11 urte arteko 50 adingabe baino gehiagok beren ikerketa digitaleko teknikak probatu dituzte Mari Domingi eta Olentzero eraso informatiko batetik erreskatatzeko. Haien adinera egokitutako dinamiken bitartez, mehatxu digitalak identifikatzen eta zibersegurtasuneko oinarrizko trebetasunak garatzen ikasi dute.

EuskalHack Security Congress VII

Beste urte batez, EuskalHack Security Congress-en babesleak izan ginen; hau da, sektoreko profesionalentzako topaketa, segurtasun digitalean komunitatearen eta kulturaren garapena sustatzea helburu duena, ezagutza batez ere teknikoa bultzatuz eta zabalduz. Ekimena interesatutako publiko guztiarentzat izan zen, arlo publikokoa zein pribatukoa.

8. HERRITARRAK KONTZIENTZIATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA

Zibersegurtasunaren eta haren jardunbide egokien inguruan inpaktu soziala sortzeko helburuarekin, informazioa eta sentibilizazioa landu dira. Sentsibilizatzeko hainbat ekintza, programa eta kanpaina burutu ditugu adin-tarte guztietan, eta batik bat gazteenei eta kalteberenei erreparatu diegu, ikuspegi digitaletik.

CYBER ERRONKA KANPAINA

Adingabeei (12-17 urte) zuzendutako kontzientziazio-kanpaina planteatu genuen, eta adingabe batek, protagonista izanik, erreferente moduan jardun zuen sare sozialen bitartez. Estatuko selekzioko skateboard rider gazteena aukeratu genuen, kirol-esparruak autoezagutza eta gainditzearen arloan transmititzen dituen balioengatik. Balio horiek bateragarriak dira zibersegurtasuneko "autoprestakuntzaren" inguruan Cyberzaintzak duen espirituarekin, eta hori espero da herritarrengan lortzea.

Zibersegurtasunaren 12 erronkako kanpaina Instagram eta TikTok sareetan banatu zen honako bideo hauen bitartez:

1. Wifi sareak
2. Erortzen ikastea
3. Grab zure eskubide digitalet
4. Fake news
5. Faktore biko autentifikazioa.
6. Deskonektatzen ikastea
7. Babestu sare sozialetan
8. Erron. biralak
9. Flyp-indy zure Apps-ei.
10. Aztarna dig.
11. Estekak eta QR kodeak
12. Netiketa.

Horri esker, Instagram-en lorpen hauek izan ditugu...

- **1.17 M pertsona.**
- **19.854 profilerako bisita.**
- **3.756 erreakzio.**

Horri esker, TikTok-en lorpen hauek izan ditugu...

- **1.401 follower berri.**
- **2.45 M bideo-bisualizazio.**
- **1.062 erreakzio.**

CYBERNAGUSI

Programa honek adinekoen digitalizazioa eta zibersegurtasuna babesten du. Gero eta digitalizatuagoa den mundu honetan, adinekoek erronkak dituzte teknologia berrietara egokitzeko eta lineako arriskuetatik babesteko. Gure konpromisoa da ingurune digital seguruagoa eta eskuragarriagoa eskaintzea, teknologien erabileran haien ongizatea eta autonomia sustatuz.

Horretarako, KZguneak, Eusko Jaurlaritzak IKTetan trebatzeko duen zentroen sareak, ematen duen “Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean” ikastarorako edukiak prestatzen parte hartu dugu. 8 orduko ikastaro honetan, honako gai hauek jorratzen dira:

1. Interneten seguru nabigatzea
2. Segurtasuna online erosketetan
3. Zer egin iruzurraren biktima izanez gero
4. Desinformazioa, buloak eta albiste faltsuak
5. Mehatxu eta arrisku komunak interneten
6. Smishing eta vishing.

ZORITXARRETARRAK KANPAINA

Zoritxarretarrak kanpaina herritarrok oro har kontzientziatzeko asmoarekin sortu zen, zibersegurtasunaren arloan kalteberatasuna handitzen doan unean, black friday eta cybermonday delakoen hurbiltasunagatik online erosketak gehiago izateagatik.

2024. urtearen hasiera aldera hasitako komunikazio-ildo estrategiko berean, eta mezu positiboen espirituarekin, 4 kapituluko serie txiki bat proposatu zen, telebista-motako ekoizpenarekin, umore-ukituarekin eta Instagram-era bideratuta, zibersegurtasuneko gai hauekin:

1. Ordaintzeko modu seguruak
2. Eskaintzen aurrean phishing eta eskaintza handiekin kontuz
3. Iruzurra online erreserbak egiterakoan
4. Zibersegurtasuna online jokoetan aplikatuta

Horri esker, Instagram-en lorpen hauek izan ditugu...

- **523.519 pertsona.**
- **1.388 profilerako bisita.**
- **199 erreakzio.**

CYBER GABONAK KANPAINA

Herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina honen helburua da iruzurrak jasateko arriskuak minimizatzea eta 2024ko Gabonetako kanpainari begira erosketak modu seguruan egitea, adinekoei dagokienean. Material desberdinen bitartez honako hauei buruzko aholkuak ematen dira: nola ezagutu online bidez egin daitezkeen iruzurrak, nola identifikatu gune seguruak eta nola aplikatu zibersegurtasuneko neurri batzuk informazioa babesteko.

Kanpainan, gai hauek jorratzen dira:

1. Smishing
2. Bankuaren Gakoak
3. Wifi sareak
4. QR kodeak
5. Maukak

Horri esker, honako hauek lortu ditugu...

- **1.170.406 pertsona.**
- **Kanpainaren bideoen 3M bisualizazio.**
- **1.374 erreakzio.**

CIBERJENDEA PROGRAMA

Belaunaldi berriek, bertako digitalek, teknologia menderatzen dute, baina askotan ez dakite desegoki erabiltzeak zer arrisku ekar ditzakeen, eta horrek kalteberatasun-egoeran jar ditzake. Cyberzaintzan, programa oso bat sortu dugu hezitzaile eta guraso-elkarteentzat, adingabeekin eta beste kolektibo kalteberekin egiten duten heziketa-lanean laguntzeko, ingurune digitalean nabigazio segurua eta arduratsua sustatuz.

2024an zehar...

- **Guztira 501 hitzaldi egin dira.**
- **123 erakunderentzat.**
- **8.705 pertsona lortuz.**

Saioetan, 6 gai jorratu dira:

1. Ziberbullinga, genero ziberindarkeria eta beste indarkeria-mota batzuk Interneten
2. Segurtasuna Interneten

3. Zibersegurtasuna bideo-jokoetan
4. Zibersegurtasuna, etxekoa eta pertsonala.
5. Erosketa segurua Interneten
6. Mugikorraren gehiegizko erabileraren kontrola eta prebentzioa

8. ARAUBIDE JURIDIKOA, ZERBITZUAK ETA HAUTESKUNDE PROZESUAK

1. AHOLKULARITZA JURIDIKOA
2. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA
3. HAUTESKUNDE PROZESUAK

1. AHOLKULARITZA JURIDIKOA

1.1 Araudia

DEKRETUAK:

- **2024 Urteko Araugintza Planaren barruan:**
 - 24/2024 Dekretua, martxoaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoen armak, beste baliabide tekniko eta defentsako batzuk eta horien guztien hornidura arautzen dituen.
 - 29/2024 Dekretua, martxoaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baimena ematen diona «Euskalmet – Euskal Meteorologia Agentzia, S.A.» sozietate anonimo publikoa sortu eta haren partaidetzak erosteko.
 - 34/2024 Dekretua, martxoaren 19koa, Euskal Zibersegurtasun Agentziaren estatutuak onartzen dituen.
- **Urteko Araugintza Plan horretatik kanpo:**
 - 318/2024 Dekretua, urriaren 29koa, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
 - 75/2024 Dekretua, ekainaren 18koa, zeinaren bidez laugarrenez aldatzen baita Ertzaintzako langileen 2011., 2012. eta 2013. urteetarako lan-baldintzak araupetzeko akordioa onartzen duen dekretua.

AGINDUAK:

- Agindua, 2024ko maiatzaren 16koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, arauturik uzteko nola lortu eta berritu behar den autobabes-planak egiteko gaitutako teknikarien akreditazioa.
- Agindua, 2024ko ekainaren 7koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita zibersegurtasun-arloko jarraitutasun-planak egitea autobabeserako euskal arauaren mende dauden zenbait jardueratarako.

1.2 Dirulaguntzak (Urteko Dirulaguntzen Plana)

12 dirulaguntza-agindu.

1.3 Hitzarmenak

3.1. **Berriak.** 11 hitzarmen (hezkuntza arloko lankidetzarako 5 hitzarmen 5 unibertsitatekin, kanpoko praktika akademikoak egiteko; jokoaren eta ikuskizunen arloko 2; meteorologiaren eta larrialdien arloko 3 eta Ertzaintzaren arloko 1).

3.2. **Luzapenak.** AFArekiko hitzarmen honen luzapen 1: Laudion Ertzain-etxea eta Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa barne hartzen dituen eraikin-guneari buruzko hitzarmena.

1.4 Orokorrenak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrenak, Segurtasun Sailaren bidez (Ertzaintza), eta Microsoft Ibérica S.R.L. Unipersonal enpresaren arteko jarduketa-protokolo orokorra; horren bidez elkarlanean arituko baitira, "Prebentzioa komunikazioaren bidez landuz" izeneko proiektuaren barruan, Ertzaintzako langileen baliabideak eta gaitasunak garatzeko. Izenpetuta: 2024ko maiatzaren 13an.

1.5 Kudeaketa-gomendioak

- Kudeaketa-gomendio honi buruzko Erabakiaren aldaketa eta 2024-2025 ikasturterako luzapena: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren eta Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) artekoa, Ertzaintzako langileentzat lan orduz kanpoko euskara ikastaroak antolatzeke dena. Izenpetuta: 2024ko irailaren 5a. Esp. NBNC_EDG_3842/24_02
- Zibersegurtasunaren Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren arteko lankidetzak-hitzarmena, Agentziaren funtzionamendurako beharrezkoak diren obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzeke zenbait jarduketa egiteko. Izenpetuta: 2024ko abenduaren 24a. Esp. NBNC_EDG_7091/24_07

1.6 Saileko batzordeen bilerak:

- Segurtasun Sailera atxikitako edo harekin lotutako 11 lantaldetan eta kide anitzeko organotan, 27 bileratan parte hartu da.

1.7 Espedienteak:

1.204 espediente, hauekin lotuta: txostenak, diziplina-errekurtsoak, langileen errekurtsioak, herri-tarren segurtasunekoak eta segurtasun pribatukoak, ondare erantzukizuneko erreklamazioak, dominak eta beste kondekorazio batzuk, LPZ, informazio publikora sartzeko eskaerak, larrialdien arloko zehapen-prozedurak, prozedura juridikoen eta auzietakoen jarraipena.

1.8 Prozesuak (eskuliburuak):

Aholkularitza Juridikoan izapidetzen diren 11 prozesuekin lotutako eskuliburuak dokumentatu dira, prozesu horietako bakoitzari dagozkion une garrantzitsu guztiak zehaztuta.

2. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA.

2.1 Hizkuntza-normalizazioa.

- Euskara ikastaroak: 64 euskara-ikastaroren eta hizkuntza-profilen egiaztapenen jarraipena eta kontrola egin da.
- Euskara Batzordea: hizkuntza normalizazioaren arloko aholkularitza eman da eta Euskara Batzordea sortu eta martxan jarri da; Batzorde horretan, 2018-2022 plangintzaldiaren ebaluazioan oinarrituta, Segurtasun Saileko 2023-2027 hizkuntza normalizazioko plan estrategikoa eta hizkuntza irizpideak onartu dira.
- Testuen itzulpena: 142.109 hitz.

2.2 Langileen administrazioa.

- Langileen arloko prozedura administratiboak (919) eta lizentziak eta baimenak (6.895) izapidetu eta ebatzi dira.

2.3 Prestakuntza-ikastaroak.

- Langileentzako prestakuntzarekin lotutako jarduerak: Saileko Prestakuntza Plana gauzatu eta horren jarraipena egin da, prestakuntzarako eta hobekuntza profesionalerako ikastaroen eskaerak kudeatu dira (237).

2.4 Korrespondentzia-erregistro nagusia.

- Dokumentazioaren eta korrespondentziaren erregistroarekin lotutako jarduerak: sarrerak (6.855) eta irteerak (1.127).

2.5 Antolaketa:

- Espedienteen kudeaketa: Tramitagunen ixteko zain zeuden espediente amaituak itxi dira (1147). Artxiiboak identifikatu eta garbitu dira (668).
- Segurtasun Sailaren argitaratze-eskaerak koordinatu dira (Eskola Agenda 2023-2024, Trafikoko salaketa-buletinak, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzako 6 liburu elektroniko).

3. HAUTESKUNDE PROZESUAK

1. Hauteskundeak deitu baino lehenagoko prestaketa-lanak:

- Aldez aurretik tramitatutako kontratuen exekuzioa prestatzea.
- Behar diren kontratu txikiak tramitatzea.
- Komunikazio Zuzendaritzarekin koordinatuta, ekintzak planifikatzea.

2. HautesData aplikazio berriarekin simulakroak egin dira (parte hartze datuak eta emaitzak jasotzeko, prozesatzeko eta zabaltzeko).
3. Hauteskunde-prozesuaren kudeaketa, hauteskunde-deialditik boto-zenbaketa orokorrera arte.
4. Alderdi politikoen funtzionamendu-gastuetarako dirulaguntzak.
5. Hauteskunde-prozesuan inplikaturako eragileei haborokinak ordaintzea.
6. Emaitzak argitaratzea.
7. Hauteskundeen ondorengo analisia.

9. TELEKOMUNIKAZIOAK ETA SISTEMA INFORMATI- KOAK KUDEATZEA

1. SARRERA

2. PROIEKTUAK ETA EKIMENAK 2024

1. SARRERA

TSIKZren izaera eta printzipio gidarien identifikazioa

Telekomunikazioak eta Sistema Informatikoak Kudeatzeko Zuzendaritzaren izaera bere ikuspegia eta misioa definituz adierazten da, eta bertan Euskadiko Segurtasun Publikoaren sistemari zerbitzua emateko ikuspegi argia aurkezten da:

IKUSPEGIA: Eraldaketa digitalaren estrategia gidatzea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema modu proaktiboan babestuz eta segurtasun-jarduerak egiteko gaur egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharrei erantzunez.

MISIOA: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren euskarri teknologiko izango diren informazio- eta telekomunikazio-sistemak diseinatzea, ezartzea eta kudeatzea, etengabeko berrikuntza-estrategiaren bidez.

Horrez gain, haien eginkizunak eta hurrengo urteetako bilakaera zuzentzen dituzten **PRINTZPIO GIDARIAK** identifikatu dira.

Konpromisoa: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema babestea, herritarrei erantzun eraginkorra eta solidarioa eman diezaien.

Gardentasuna: hirugarrenetikiko jardun publikoetan berdintasuna bermatuz, araudiaren arabera eta arlo publikoaren etika oinarri hartuta

Bilakaera: Liderra izatea eta berrikuntza bultzatzea, eta arreta jartzea etengabeko hobekuntzan, datuaren analitikaren bidez.

Proaktibitatea: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren beharrei aurrea hartzea, eta balioa emango duten irtenbide berriak agintzea.

Eraginkortasuna: Ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide teknologikoak erabiliz.

Efizientzia: Zerbitzuak emateko eta proiektu berriak garatzeko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak optimizatuz.


Koordinazioa: IKTen bidez, Euskadin segurtasun integraleko eredu bat bultzatuko duten ekimenak emanez.

Espezializazioa: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren zerbitzuak emateko behar diren gaitasun teknikoak emanez.

Euskara: Hizkuntza Teknologien Planarekin lerrokatzea euskara sustatzeko, eta herri administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeako 7. Planarekin 2023-2027.

Generoa: 2022-2025eko Gizarteratzeko V. Euskal Planarekin lerrokatzea, erronka berriei eta krisi ekonomikoko aldien ondorioei erantzuteko, genero-ikuspegiarekin.

Jasangarritasuna: Administrazio Publikoetan Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legearekin lerrokatzea.



Egitura eta funtzioak

TELEKOMUNIKAZIOAK ETA SISTEMA INFORMATIKOAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZAK INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOEN TEKNOLOGIEN DIBISIO bat du, eta, aldi berean, hiru arlo desberdinek osatzen dute: GARAPEN ETA APLIKAZIO ARLOA, Segurtasun Saileko aplikazio informatikoak garatzeaz, ezartzeaz eta mantentzeaz arduratzen dena; Segurtasun Saileko telekomunikazio-sistemak kudeatzeaz arduratzen den KOMUNIKAZIO-ARLOA, honako esparru hauetan: telekomunikazio-azpiegiturak, multimedia-komunikazioko zerbitzuak, misio kritikoko komunikazioak eta mugikortasuneko zerbitzuen hornidura; eta SISTEMEN ARLOA, IT azpiegiturak, arkitektura eta plataforma teknologikoak kudeatzeaz, sistemak eta komunikazioak monitorizatzeaz eta zerbitzuen eta azpiegituren segurtasunaz arduratzen dena.

Hauek dira buruzagitza tekniko horien eginkizunak:

- Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea, gainerako arloekin batera, informatika- eta telekomunikazio-sistemen plan estrategikoak definitzeko, eta plan horiek ezartzea, horretarako zehaztutako urteko planen bidez.
- Ekintza-planetatik eratorritako aurrekontu-beharrak prestatzen parte hartzea.
- Arloko espedienteak nola gauzatzen diren ikuskatzea, denboran eta aurrekontuan desbideratzerik ez dagoela zainduz. Horretarako, aplikazioen garapenaren jarraipena egin beharko da, arriskuak identifikatu beharko dira, baita horiek konpontzeko edo arintzeko ekintzak ere, eta aplikazioak behar bezala aurrera egitea eragozten duten arazoak konpondu beharko dira.
- EAEko segurtasunaren arloko beharrei erantzungo dieten sistemak edo aplikazioak proposatzea.

- Administrazio Elektronikoa ezartzen laguntzea, IKTZk ezarritakoekin lerrokatutako konponbideen bidez, digitalizazio-zerbitzuak sustatuz.
- Elkarerragingarritasun-beharrak betetzea, Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko lankidetzak eta informazio-trukea errazteko. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzarekiko lankidetzak, EAEko udaltzaingoei Ertzaintzarekiko lankidetzak erraztuko dieten tresnak emateko, Euskal Poliziaren kontzeptua finkatzen laguntzeko.
- Beharrezko mantentze-lanak egitea, polizia- eta larrialdi-zerbitzuei erantzuteko informazio-sistemak etengabe operatibo egon daitezen, eskaintako zerbitzuaren kalitatea bermatuz.
- Sistemen erabiltzaileei laguntza ematea eta aplikazioen erabilerari dagokionez dituzten arazoak konpontzea.
- Garapen-araudiak eta -irizpideak ezartzea, eta kodeko kalitate- eta segurtasun-auditoretzak egitea, behar bezala ezarriko direla bermatzeko.
- Egindako jardueraren ebaluazioa eta jarraipena egitea ahalbidetuko duten metrikak eta adierazleak definitzea eta ezartzea.
- Zuzendaritzak arloaren jarduerari buruz eskatzen dituen txostenak idaztea
- Azterlan teknikoak egitea IKT eremu interesgarrietan
- Zerbitzu berriak emateko edo dauden sistemak hobetzeko proiektuak definitzea, planifikatzea eta kudeatzea.

Etorkizuneko erronkak:

- Lantzen ari garen berrikuntza teknologikoa amaitzea, egungo aplikazioetan balio erantsiko konponbideak errazago eta azkarrago txertatzeko.
- Adimen artifizialeko soluzioak txertatzea, erabiltzaileei zeregin errepikakorrek egitea errazteko, ikerketarako lagungarriak diren patroiak identifikatzeko eta larrialdi-egoeren aurreko arriskuen analisia eta ebaluazioa egiteko.
- Erabilerari dagokionez, irtenbide eta zerbitzu sinpleagoak eta intuitiboagoak ematea, erabiltzaileek azkarrago egokitu ahal izan ditzaten.
- Mugikortasuneko irtenbide eta zerbitzu berriak sustatzea
- Misio kritikoko komunikazio-sarea garatzea 4G edo 5G teknologia berriei dagokienez, eremuko segurtasun- eta larrialdi-baliabideei eta koordinazio-, kudeaketa- eta erabaki-zentroei multimedia-zerbitzu berriak emateko
- Euskadiko segurtasun publikoko hurrengo plan orokorrean identifikatzen diren erronkei erantzutea
- Azpiegiturak etengabe modernizatzeko plan bat ezartzea.

2. PROIEKTUAK ETA EKIMENAK 2024

Azpiegitura eta plataformak etengabe berritzeko betebeharra ezartzen da, Segurtasun Sailak herritarrei ematen dizkien zerbitzuei ekiteko baliabide egokiak izateko. IT azpiegituren eta komunikazio-azpiegituren gaitasunak berritzeko eta handitzeko hainbat proiekturi ekin zaie. Halaber, Tetra Enbor Sarea berritu da eta helikopteroaren bideoa berritu da.

2024an, droneak detektatzeko eta neutralizatzeko sistemak handitu dira. Ertzaintzan bideoa grabatzeko banakako kameraren sistema bat zabaldu da, eta bideo-plataforma integral bat ezarri da. Banda zabaleko komunikazioen estrategian ere lan egin da, misio kritikoko komunikazioen ENBOR SAREA sare berria definitzeko. Gainera, hainbat bilakaera izan dira saileko sistemetan, hala nola KLI, kudeaketa intzidentala, polizia-sistemak, eAdministrazioa, Business Intelligence, sailaren informazio kartografikoko sistema, mugikortasuneko aplikazioak, eta beste polizia batzuekiko lankidetzaren sistemak. Horietan EBaren eta VIOGENen arteko interkonektioa eta identifikazio biometriko sistemaren egokitzapena bertan udaltzaingoak sartzeko, nabarmendu ditzakegu.



10. ERANSKINAK



- 10.1 ARAU-HAUSTE PENALAK (15.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN), ERTZAIN'TZAREN ETA UDALTZAINGOEN DATUEN ARABERA. * ARAU-HAUSTE MOTAK EUSKADIKO LURRALDE BAKOITZEAN- ARABA - BIZKAIA - GIPUZKOA
- 10.2 ARAU-HAUSTE PENALAK 50.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN, VITORIA-GASTEIZ - BILBAO - BARAKALDO - GETXO - DONOSTIA - IRUN; ERTZAIN'TZAREN ETA UDALTZAINGOEN DATUEN ARABERA
- 10.3 ARAU-HAUSTE PENALAK 15.000 ETA 50.000 BIZTANLE BITARTEKO UDALERRIETAN ARAU-HAUSTE MOTAK ZEHAZTUTA, ERTZAIN'TZAREN ETA UDALTZAINGOEN DATUEN ARABERA: LAUDIO/LLODIO - AMOREBIETA/ETXANO - BASAURI - BERMEO - DURANGO - ERANDIO - ERMUA (ERMUAKO UDALAK EZ DU DATURIK EMAN)- GALDAKAO - GERNIKA-LUMO - LEIOA - MUNGIA - PORTUGALETE - SANTURTZI -SESTAO - ARRASATE/ MONDRAGÓN - AZPEITIA - EIBAR - ERRENTERIA - HERNANI - HONDARRIBIA - LASARTE/ ORIA - PASAIA - TOLOSA (TOLOSAKO UDALAK EZ DU DATURIK EMAN) - ZARAUTZ
- 10.4 ARAU-HAUSTE PENALAK ARABAKO UDALERRIETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.5 ARAU-HAUSTE PENALAK ARABAKO ERTZAIN-ETXEETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.6 ARAU-HAUSTE PENALAK BIZKAIKO UDALERRIETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.7 ARAU-HAUSTE PENALAK BIZKAIKO ERTZAIN-ETXEETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.8 ARAU-HAUSTE PENALAK GIPUZKOA KO UDALERRIETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.9 ARAU-HAUSTE PENALAK GIPUZKOA KO ERTZAIN-ETXEETAN, ERTZAIN'TZAREN DATUEN A9ABERA: KOPURUA ETA TASA MILA BIZTANLEKO.
- 10.10 ARAU-HAUSTE PENAL PRESENTZIALENGATIK ETA ZIBERDELITUENGATIK ERRUZTATUTAKO PERTSONAK (ATXILOTUAK EDO IKERTUAK), ARRAZOA ETA SEXUA ZEHAZTUTA, ERTZAIN'TZAREN ETA UDALTZAINGOEN DATUEN ARABERA
- 10.11 EAEKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMIZAZIOAK ETA BIKTIMAK, ERTZAIN'TZAREN DATUEN ARABERA.

10.1 ARAU-HAUSTE PENALAK ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOEN* (15.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN) DATUEN ARABERA. ARAU-HAUSTE MOTAK EUSKADIKO LURRALDE BAKOITZEAN ZEHAZTUTA (15.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN) DATUEN ARABERA.

OHARRAK:

* Udaltzaingoen jasotako arau-hauste penalak Lurralde Historikoetako 15.000 biztanletik gorako udalerri hauei dagozkie, horiei buruzko datuak daude eta: Araba: Vitoria-Gasteiz, Laudio; Bizkaia: Bilbao, Barakaldo, Getxo, Amorebieta-Etxano, Basauri, Bermeo, Durango, Erandio, Galdakao, Gernika-Lumo, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Sestao; Gipuzkoa: Donostia, Irún, Andoain, Arrasate, Azpeitia, Bergara, Eibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Lasarte-Oria, Pasaia, Tolosa, Zarautz.

Udaltzaingoen mila biztanleko tasa kasuan kasuko Lurraldeko biztanle kopuru osoaren gainean kalkulatu da.

(EB). Europar Batasunak, bere estatistika-bulegoaren bitartez (EUROSTAT), herrialde desberdinetako polizia-kidegoek arau-hauste penalei buruz daukaten informazioa biltzeko asmoz, oinarritzko tipologia komun batzuk zehaztu ditu eta horiexek dira (EB) laburdurarekin markatuta agertzen direnak.

(1) "Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurreta, etxebizitzetan" tipologia bi azpimultzotan banatzen da: "etxeetan lapurtzea", eta "etxebizitzaren beste leku batzuetan, besteak beste, garajeetan, trastelekuetan, atarietan, patioetan etab. lapurtzea".

(2). 2022ko urriaren 7rik aurrera, 10/2022 Lege Organikoa, Sexu Askatasunaren Berme Osoarena, indarrean sartu zenetik, sexu-abusuak desagertu dira eta sexu-erasotzat hartzen dira eta horregatik sexu-abusuak data hori baino lehen gertatutakoak baino ezin dira izan. Hori dela eta, azterketa konparatiboa egiten bada, aldaketa hori kontuan hartu beharko da.

Biztanle-datuak iturria: INE, 2023ko eta 2024ko urtarilaren 1ean

10.1 ARAU-HAUSTE PENALAK ERTZAINZAREN ETA UDALTZAINGOEN* (15.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN) **DATUEN ARABERA.** ARAU-HAUSTE MOTAK EUSKADIKO LURRALDE BAKOITZEAN ZEHAZTUTA

EUSKADI 2023-2024

ARAU-HAUSTE MOTA	ERTZAINZA			UDALTZAINGOA			EUSKAL POLIZIA		
	2023	2024	Δ	2023	2024	Δ	2023	2024	Δ
Giza hilketa bere forma guztietan	71	108	52,11%	12	12	0,00%	83	120	44,58%
Giza hilketa- / erailketa-burutua (EB)	7	8	14,29%	-	-	-	7	8	14,29%
Giza hilketa- / erailketa-saiakuntza (EB)	44	79	79,55%	5	5	0,00%	49	84	71,43%
Edozein giza hilketa motarekin lotutako beste batzuk	20	21	5,00%	7	7	0,00%	27	28	3,70%
Lesioak	8.584	9.066	5,62%	1.770	1.873	5,82%	10.354	10.939	5,65%
Familia barruko tratu txarrak	2.641	2.927	10,83%	480	451	-6,04%	3.121	3.378	8,23%
